

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-02-31  
ASTELEHENA  
447. ZENBAKIA  
11. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM



JOXE ARREGI

"Barne askatasunak sor dezake serotonina eta alda dezake ekonomia"

Joxe Arregi | Teologo eta irakaslea | 8

Mila lagun inguruk salatu zuten Oñatin Cegasak bizi duen egoera | 3



Martitzenean hasiko dituzte Polmetasa botatzeko lanak | 14



Egubakoitzean harrera egin zieten Arrasateko iheslari ohiei | 3

## Denak bedeinkatuta

Angiozarko Mainddao auzoko San Migel elizan umeak bedeinkatzeko ohitura erreperatu dute | 13



Domeka eguerdian, meza ostean, San Migel elizako atarian batu ziren ume eta gazteak -denak bedeinkatuta- senitartekoek lagunduta.

ZURINE VELEZ DE MENDIZABAL

### SINADURAK

	IÑAKI CASAS   9
	9   LARRATZ ZEBERIO
	JOSUNE MURGOITIO   14
	17   MIREN MAIZTEGI
	GORETTI MADINA   18
	19   NESTOR ARANA
	OIHAN VEGA   37
	40   IXIDOR SOLUPE

# Arnau Solek ez du birritan barkatzen

laz ziklista katalana bigarren izan zen Gorlan; atzo, igoyerako azken zuzenean erasoia jota irabazi zuen | 22



Arnau Sole, helmugan. | X.U.

943 71 48 45

**Hemen GARBIKETAK**  
www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, ambulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

2. FASEA

herritarrekin martxan en marcha

Gipuzkoa BERRIA

www.garraioahobetzen.net

**GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?**  
Zoaz 4. orrialdera.

Gipuzkoa BERRIA

# Belaunaldi arteko elkartasuna. Adineko pertsonen bizi kalitatea eta gizarte parte hartzea

## HITZALDI ZIKLOA

### Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitate Zaharra

#### APIRILAREN 7AN, arratsaldeko zazpitan:


#### ZAHARTZE AKTIBOA. BELAUNALDI ARTEKO BIZI-KALITATEA ETA ELKARTASUNA



**Maria Isabel Genua Goena**  
Matia Fundazioko Arreta  
Farmazeutikoko arduraduna.  
Farmaziako doktore Nafarroako Unibertsitatean  
Ospitale Farmazian  
espezialista,  
Elikagaien Teknologian  
espezialista, Ikerketa  
Zientifikoen Goi Mailako  
Kontseiluan.

#### APIRILAREN 9AN, arratsaldeko zazpitan:

#### ADINEKO PERTSONEN PARTAIDETZA-PLAN BATERAKO GAKO SOZIAL ETA KULTURALAK



**Elisabet Arrieta Aranguren**  
Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) irakaslea,  
formazioz soziologoa,  
soziologian doktore,  
hiritarren parte hartzearen  
inguruko lanarekin.

2008tik aurrera Filosofia  
eta Hezkuntza Zientzien  
Fakultateko dekanordea.

#### APIRILAREN 10EAN, arratsaldeko zazpitan:

#### OSASUNEZ ZAHARTU. ARRAKASTAZ ZAHARTU



**Javier Yanguas Lezaun**  
Doktorea Psikologia Biologikoan eta Osasun arlokoan,  
Madrilgo Unibertsitate  
Autonomoan. 1991n Helduen  
Hezkuntza arloko Unibertsitate  
Adituaren titulua eskuratu  
zuen, Salamancako Eliz  
Unibertsitatean. Neuropsikologia  
Klinikoko masterra egin  
zuen Bartzelonako Unibertsitate  
Autonomoan.

# Mila lagun inguruk salatu zuten Oñatin Cegasak bizi duen egoera larria

- ▶ Manifestazioa egin zuten zapatuan, lanpostuak defendatzeko
- ▶ Zuzendaritzaren kudeaketa "negargarria" izan dela ere salatu zuten

MIRARI ALTUBE | OÑATI

*Eutsi diezaiegun geure lanpostuei!, Despidorik ez!* eta antzeko oihuak jaurtita eta etengabe txistuka egin zuten manifestazioa Cegasa Taldeko langileek zapatuan, Oñatin. Mila bat lagunek bete zituzten kaleak, tartean Gasteiztik etorritako asko, eta herrikideen elkartasuna jaso zuten.

Hartzekodunen lehiaketan sartuta dago Cegasa Taldea eta ondorioz, langileak, oso kezkatuta daude. Lanpostuak arriskuan daudela salatu zuten, baita zuzendaritzak egindako kudeaketa "negargarria" ere. Eta nazioartean zabaltzeko plana "oso gaizki" bideratu dutela jakinarazi: "Bazkideek eta inbertsiogileek egindako diru ekarpen ugariak di-da xahutu dituzte. Defizita eragiten zuten lerroak kentzeko ekimenik ez dute izan. Ezin okerrago pres-



Cegasa Taldeko langileek egindako manifestazioaren burua Oñatiko kalean. | IMANOL SORIANO

tatu dituzte Txinako lantegiak industrian aritzeko. Horregatik guztiatik, eta etengabe inprobisatzen aritzeagatik dago Taldea egungo ataka gaiztoan", zioen manifestazio bukaeran Maribel Herrera Oñatiko langileen batzordeko presidentek.

Azken bost urteotan 350 lanpostutik gora galdu direla gogorarazi zuten, eta orain, behin hartzekodunen lehiaketa aldian sartuta, enplegu erregulaziorako aldi baterako espediente iragarri diete. Hori horrela, langileek ez dute inolako konfiantzarik zuzendaritzarengan "ez duelako gaitasunik Taldea bideragarri egiteko". Langileek bere aldetik, "ahal duten guztia" egin dutela Taldea eta horrekin batera lanpostuak bideragarriak izateko argitu zuten: "Bake soziala eta dirua jarri dugu, horren adibide dira kobratu gabe dauden soldatak; enplegu erregulaziorako aldi baterako espediente; plantilla murrizketak; lan eskubideen murrizketak..."

Langile batzordeko kideek bilerak egin dituzte Gasteizko eta Oñatiko udal ordezkariekin eta alderdi politikoeekin: "Gure egoeraren berri eman gura diegu guztiei, baita Aldundiari eta Jaurlaritzari ere, eta era berean laguntza eskatu. Erakunde guztiekin elkartuko gara Cegasa bizirik ateratzeko", jakinarazi zuten Herrerak.

## Oxel Azkarate iheslari ohia: "Zerbait apalagoa espero genuen eta jende mordoa etorri da"

Egubakoitzean egin zieten harrera Zeziaga, Ruiz de Larrinaga eta Azkarateri

M.A. | ARRASATE

Etxean dira Lorea Zeziaga, Kepa Ruiz de Larrinaga eta Oxel Azkarate Arrasateko iheslari ohiak. Hilabeteko azken egubakoitzeko elkarretaratzean egin zieten ongi-eterria Herriko Plazan, lagun, senide eta herrikideek. Jende mordoa elkartu zen, eta txalo artean harrera egin eta guztiek besarkatu gura izan zituzten.

24 urte eta erdi egin ditu Lorea Zeziagak herritik kanpo, 10 urte Oxel Azkaratek eta beste mordoxka bat Kepa Ruiz de Larrinagak. Horregatik lehen uneak urduri eta hunkituta bizi izan zituzten. Plazan elkartutako lagunak eta herrikideak, ostera, pozik hurbildu zitzaizkien.

"Urduritasun handiarekin bizitzen ari naiz, ez dut asko pentsatzeko astirik izan. Buruan ditut ihesean utzitako lagun guztiak", zioen Zeziagak: "Berrogei mila muxu, besarkada eta ongi-eterri jaso ditut baina nago urduri..." Oxel Azkarate ere harrituta azaldu zen: "Guk zerbait apalagoa espero genuen baina jende mordoa etorri da. Hamar urteotan alboan izandako jendea dago; eta baita aspaldian ikusi bakoak ere, baina beti hor daudenak.

**Herri presioa "ezinbestekoa"**  
Herria dugu arnas leloarekin euskal iheslari politikoen kolek-



Zeziaga, Ruiz de Larrinaga eta Azkarate Herriko Plazan. | IMANOL SORIANO

tiboak abian jarritako ekimenaren baitan itzuli dira eta argi utzi zuten lanean jarraitu beharra dagoela "euskal preso politikoko guztiak eta euskal iheslari politikoko guztiak bueltan izan arte". Horretarako kale aktibazioa areagotu beharra dagoela jakinarazi zuten: "Egoera ikusita borrokan jarraitzeko momentuak direla adierazi gura diet herritarrei. Eta mezu bat helarazi: herri aktibazioa eta herri presioa ezinbes-

tekoak izango dira iheslari guztiak eta preso guztiak etxera ekarri gura baditugu", zioen Zeziagak. Eta Azkaratek gaineratu zuen: "Urrats honekin gura dugu estatuen blokeoa gainditzen joan eta aukerak sortu konponbide integral hori lortzeko, Euskal Herriko gatazka politikoa benetan gainditzeko. Eta ea guztion artean, behingoz, lortzen dugun preso eta iheslari guztiak Euskal Herrian libre egotea".



M.A.

## Hausnarrean jardun dute gazteek

Egubakoitzetik domeka arratsaldera bitartean egon ziren elkartuta 30en bat gazte Aretxabaletan, Gazte Topaketak tarteko. Kontsumoa, globalizazioa, autogestioa eta beste hainbat gairen gainean hausnartzeko tarte hartu zuten. Era berean, herriko gazteen arteko harremanak sendotzeko baliatu dute aste bukaera.

## Libre utzi dute Irati Muxika, 26/11 sumarioan auzipetutako gaztea

M.A. | ARAMAIO


Libre utzi dute Irati Muxika. 26/11 sumarioan zegoen auzipetuta Aramaion bizi den gaztea, eta urtarrilaren 9an atxilotu zuen Polizia Nazionalak Aramaion bertan; Martutenera eramane zuten lehenengo eta handik Soto del Real espetxera. Eguenean, martxoak 27, pasatu zen epailearen aurretik, epaiketaren bigarren egunean, eta epaileak Muxika baldintzarik gabe aske uzteko agindua eman zuen. Orain sententziaren zain geratu da.



Irati Muxika. | GOIENA

**2.**  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



**herritarrekin**  
martxan en marcha



**Gipuzkoa**  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

**PARTE HARTU**  
ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela  
kargatzeko 20 euroko bonoak  
zotz egingo ditugu.

**Gipuzkoa**  
BERRIA

### GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

### DEBAGOIENeko HERRIETAN EGINGO DIREN BILERAK

HERRIA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Aretxabaleta	Martxoak 31	18:30	Arkupe
Eskoriatza	Apirilak 1	18:30	Kultura etxea
Antzuola	Apirilak 2	18:30	Olaran



GI-632 errepidearen lanetan ezbeharra izan zen egunean, suhiltzaileak zorritzareko gertatu zen tokian. | GOIENA

# Deskargan lanean ari den Lapatza enpresarentzat, 1,6 milioi euroko zigor eskaera

- Foru Aldundiak uste du "ardura" izan zuela lanetan izan zen ezbeharrean
- Segimendu Batzordeko sindikatuek adostu du zigorra Aldundiak

GOIATZ ARANA | ARRASATE

GI-632 errepideko lanetan, 2013ko irailaren 18an, 33 urteko langilearen heriotza eragin zuen lan istripuan, Lapatza Aldi Baterako Enpresa Batasunak "ardura" izan zuela ebazti dute Aldundiak eta Segimendu Batzordeko sindikatuek.

Bilera egin zuen, egunean, Aldundiak sindikatuekin osatutako Jarraipen Batzordeak. Eta bilera horretan, besteak beste, Jose Inazio Alkortaren heriotza eragin zuen lan istripuaren harira Osalanek eta Lan Ikuskaritzak kaleratutako txostenak aztertu zituzten. Hori egin ostean, Gipuz-

koako Foru Aldundiak uste du Lapatza Aldi Baterako Enpresa Batasunak baduela "ardura", izan ere, "txostenek diote enpresa batasunak ez zituela bete kontratuko betebeharrak segurtasun eta osasun arloan". Horregatik, kontratazio pleguetan jartzen duenaren arabera, Gipuzkoako

Foru Aldundiak 1,6 milioi eurotako zigorra ezartzea proposatu du, eta espedientea abiarazi.

## Zigor "handia"

Larraitz Ugarte diputatuak Segimendu Batzordean parte hartu duten LAB, CCOO eta UGTko ordezkariak lagunduta eman zuen erabakiaren berri, eguen arratsaldean, hedabideen aurrean: "Obra hau egiteko pleguetan jartzen dena aplikatu dugu. Zigor handia da eta espero dugu horrelakorik berriro egin beharrik ez izatea, izan ere, horrek adieraziko luke lan eta segurtasun baldintzak betetzen ari direla obra honetan eta, beraz, langileak segurtasunez ari direla. Espero dugu enpresa guztiek dagokion garrantzia ematea segurtasunaren gaiari eta era horretan lan istripuak gutxitu ahal izatea. Aldundiarentzat hasieratik oso garrantzitsua izan da lan arloko segurtasuna, herritarren ongizaterako ezinbestekoa baita arlo horretan erakundeek zorrotz jokatzeko".

Segimendu Batzordean parte hartu duten sindikatuekin adostu du Aldundiak zigor proposamena, eta obra horren jarraipena egiteko konpromisoa berretsi du batzordeak.

Bestalde, Diputatuen Kontseiluak erabaki du hil zen langilearen kasuan herri akusazio gisa aurkeztea epaitegien aurrean.

## ESANAK

"Zigor handia da, berriro egin beharrik ez espero dugu"

LARRAITZ UGARTE | DIPUTATUA

## Alemania eta Italia bakarrik dira EAE baino "zaharragoak"

L.K. | ARRASATE

Euskadiko biztanleak gero eta gutxiago, eta gero eta zaharragoak dira. Hori ondoriozta daiteke Eustatek egin duen EAEko Biztanleen Udal Estatistikatik (BUE).

2013ko urtarrilaren 1ean 2.178.949 lagun bizi ziren Euskadin, 2011ko azaroko Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuan baino 866 gutxiago. Gipuzkoan bakarrik handitu da biztanle kopurua: 2.681 gehiago. Hiriburuko guztiek galdu dute populazioa: Gasteizek, 1.038 biztanle; Donostiak eta Irunek, 1.231; eta Bilbok, 2.789.

## Debagoiena, erdi aldean

EAEko biztanleen %20,2k 65 urte edo gehiago dute; Espainian, %17,7k. European, Italia eta Alemania bakarrik dira Euskadi baino "zaharragoak". EAEn, 16 urte baino gutxiago dituen biztanle bakoitzeko, 65 urte eta gehiagoko 1,4 pertsona daude; Espainian 1,1.

Debagoiena ez dago eskualde zaharren artean, baina Gipuzkoako beste eskualde batzuek baino batez besteko adin handiagoa dute biztanleek. Hala, Arrasate, Bergara eta Oñatiko biztanleen %19,5 eta %23 artean 65 urte edo gehiagokoak dira; beste herri guztietan, proportzioa %16 eta %19,49 artekoa da. Donostiaren pareko batez bestea dute Debagoieneko hiru herri handienek.

## Ekintzaile eta ETEendako, 24 milioi euro mailegutan

Laboral Kutxak eta Europako Inbertsio Funtsak mikrofinantzaketa hitzarmena sinatu dute

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Laboral Kutxa kreditu kooperatibak eta Europako Inbertsio Funtsak (EIF) lankidetzahitzarmena aurkeztu zuten eguaztanean. Horren bidez, 24 milioi euro erabiliko dira ekintzaile-tza sustatzeko. Dirutza horri esker, datozen bi urteetan 1.600 mikroenpresa inguru eta 2.700 bat lanpostu zuzen sortu eta finkatuko dira. Hego Euskal Herrian eta Espainian finantza entitate batekin EIFek inoiz egindako hitzarmen garrantzitsuenak da.

Hitzarmena Europako Progress Mikrofinantzaketa Programaren barruan dago. Laboral Kutxak Bilbon duen egoitzan aurkeztu zuten hitzarmena. Sinatzaileek azpimarratu dutenez, Europako Progress Pro-

gramak "Estatuan emango duen finantzaketa-lerrorik handiena eta Europako bigarrena" emango du.

## Helburu sozialak

Maileguen onuradun nagusiak 36 urtetik beherako profesional autonomoak eta 10 lanpostu baino gutxiago eta 2.000.000 eurotik beherako urteko fakturazioa duten enpresa txikiak izango dira. Pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke, ohiko banku-finantzaketara jotzeko zailtasunak dituztenak.

Finkaturiko gehieneko mailegu-zenbatekoa 25.000 eurokoa da, eta itzultzeko epea, 3 eta 60 hilabete bitartekoa. Maileguok bermatzeko ez da inondik ere hipoteka-bermerik eskatuko.



Txekea entregatu zen unea. | JON MOÑUX

## 10.980 euro batu ditu Harremanek Filipinetarako

Alboan GKEari entregatu zion txekea, egunean

I.G. | ARRASATE


2013ko azaroan gogor jo zuen Yolanda tifoia Filipinetan: herriak suntsitu zituen eta milaka herritar etxebizitza gabe gelditu ziren. Arrasateko Harreman Gobernu Kanpoko Erakundeak

kanpaina bat abiarazi zuen dirua biltzeko. "Filipinetan beharrezkoa dute laguntza berreraikuntzarako", adierazi dute erakundetik.


Bada, 10.980 euro batu dituzte. "Arrasateko herriak, beste behin, eskuzabaltasunez erantzun

dio gure deialdiari", diote. Egunean eman zioten txekea Harremaneko kideek Alboan Gobernu Kanpoko Erakundekoei. Harremanekoek gaineratu zuten ohi duten bezala, eta laguntza bere helmugara iristen dela ziurtatzeko, gertuko erakunde batengan ezarri dutela euren konfiantza. "Gertuko pertsona, instituzio eta GKEez lan egiten dugu, diruaren kudeaketa egokia egiten dela bermatzeko eta jarraipena egiteko aukera izan dezagun". Dirua batzeko kontu korronte zenbakiak irekita jarraitzen du oraindik, norbaitek dohaintzaren bat egin nahi izanez gero. Bestalde, Harremaneko zuzendari Francisco Jabier Ruiz de Munainek eta Alboan GKEko kide den Octavio Romanok hitzaldia ere eskaini zuten Filipinetan Yolanda tifoia izan zuten eraginaren inguruan.

Batutako dirua Cullion isla birgaitzera bideratuko da. Helburuak dira: arrantza berpiztea, etxebizitzak berreraikitzea, komunitate indigenentzako ebakuazio zentro bat eraikitzea, ikasleentzako barnetegi bat eraikitzea eta ingurumenaren berreskuratzea.



**BASERRI BATEN SALMENTA** Salmenta eskritura da eta ondoan baserriaren irudia azaltzen da. "Oso plano deskriptiboa da. Lotuta doa jendearen irakurtzeko gaitasunarekin", zehazten du Ramon Martin artxibozainak. Marrakian bereizten da zein lur diren basoak eta zeintzuk ortuak. Elgetako Sustaiza baserriaren agiria da, 1798. urtekoa. Iturricastillo notarioak idatzitakoa.



**SANTA AGEDA BAINUETXEKO INBENTARIOA** Bainuetxearen deskribapena egiten da dokumentu horretan. Hala, gela bakoitzean dauden ondareak jasotzen dira. Adibidez, medikuaren gelan zein objektu dauden zehazten da. "Agiri hauek egiten dira jabetza eskualdatzea dagoenean, inbentario gisa", azaldu du Ramon Martin artxibozainak. XIX. mende amaierakoa da idatzia.

**PASAPORTEA** Eskoriatzako alkateak soldadu frantses baten heriotzaren inguruan idatzitako informazioa jasotzen da protokolo horretan. Dirudenez, soldaduak bere buruaz beste egin zuen Marulandan, eta hori jasotzen da. Rodolfo Mayer soldaduak berak soinean zeraman pasaportea ere bilduta dago [argazkia azaltzen da]. 1807ko dokumentua da.

#### IRATI GOITIA | OÑATI

Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatea bera harribitxi bat da, baina eraikinak barruan gordetzen du bestelako altxorrik ere: bertan dago Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa.

#### Artxiboaren sorrera

1942an sortu zen artxiboa. "Berez, Estatuak eratu beharko litzuke horrelako estrukturak. Kasu honetan, baina, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zuen artxiboa sortzearen eta Gipuzkoako notarioek sortutako dokumentuak zaintzearen ardura", azaldu du Ramon Martin artxibozainak.

Horrenbestez, Gipuzkoako dokumentuak daude artxiboan. Gipuzkoa lau barrutitan banatzen da. Lau horietatik, hirutakoak gordetzen dira Oñatin. Zehazki, Donostiako, Azpeitiko eta Bergarako barrutietakoak. Tolosakoa da laugarren barrutia, baina hangoak Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorrean daude.

Artxiboko apaletan gordetzen diren altxorrek hiru multzotan sailkatu daitezke: notarioek Gipuzkoan sortutako idatziak, Oñatiko Unibertsitateak sortutako dokumentuak eta haren liburutegia eta Hipoteka Kontularitza deritzotenak (egungo jabetza erregistroaren hastapenean sortutako dokumentuak).

#### Protokoloak

Milaka liburukiren artean, protokoloak aurkitu ditzakegu artxiboan. Notario batek urtebetean jasotako eskrituren bildumak dira horiek. 200 eskritura inguru izan ditzake urtebeteko bilduma batek. "Bizitzako edozein esparrutako informazioa aurki daiteke haietan: ezkontzera doan bikote baten hitzarmena, testamentuak, salmentak, betekizunak... Protokoloetan esparru askotariko informazioa jasotzen zen. Garai haietan, jendea notarioengana gaur egun baino askoz sarriago joaten zen. Izan ere, idazkerarekiko hartu-eman gaur egungoa baino txikiagoa zen, eta, hala, gauza asko egiten ziren idazten zekien notarioaren aurrean", azaldu du Martin artxibozainak.

# Altxorrez betetako artxiboa, Oñatin

- ▶ Sancti Spiritus unibertsitatean dago 1942an sortutako Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, Foru Aldundiaren babesarekin
- ▶ Milaka agiri daude bertan: notarioen idatziak, Oñatiko Unibertsitateko dokumentuak eta Hipoteka Kontularitzako idatziak, besteren artean



Ramon Martin artxibozaina, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, eta mahaian hainbat agiri. | I.G.

#### Unibertsitate garaikoak

Bestalde, artxiboaren funtsean Oñatiko Unibertsitatearen dokumentuak ere badaude, eta baita unibertsitateko liburutegikoak ere, ia 4.000 inguru. Horien artean, ikaragarriko balioa duten inkunabileak daude. 1500. urtea baino lehenagoko liburu editatuak –inprimatuak– dira. "Oso funts aberatsa da, munduan milaka besterik ez dago-eta. Hemen 49

inkunabile ditugu. Liburu hauek ikasketa liburu bezala baloratu behar dira. Izan ere, haietan ikusten da ikasleek nola egiten zituzten euren notak liburuko testuaren alboetan. Beraz, alde horretatik, oso interesgarriak dira", dio Martinek. Hain zuzen, horien garrantzia ikusita, dagoeneko digitalizatuta dituzte 49 dokumentu horiek eta laster izango dira ikusgai Koldo Mitxelena

liburutegiaren webgunean: [www.kmliburutegia.net](http://www.kmliburutegia.net).

#### Datazioa

"Dokumentu zaharrenak ezin ditugu zehaztasunez datatu. Izan ere, ditugun zaharrenak protokoloak biltzeko erabilitakoak dira. Hau da, beranduago idatzitako dokumentuentzako tapa bezala erabiltzen ziren lehenagoko kodizeak", argitu du Mar-



tinek [ikus QRko bideoan]. Adibide bat ere erakutsi du artxibozainak: 1560. urte inguruan idatzitako agiria, zehazki, unibertsitateko liburuaren inbentarioa, babesteko Biblia zahar bat erabili zuten. "Haiek ez zuten Biblia horretako letra irakurtzen. Beraz, apurtu egin zuten, eta bertako orrialde bat bilgarri bezala erabili. Dokumentu horiek ezin ditugu datatu. Badakigu, baina, idazkerarengatik, XIII-XIV. mendeakok direla".

Horrenbestez, dokumentu zaharrenak tapa bezala erabilitako horiek dira. Martinek dio, baina, oso garrantzitsua dela bereizketa egitea agiri horien eta protokoloen artean. Artxibozainak idatzien jarraikortasuna azpimarratzen du. Izan ere, besteak dokumentu solteak dira. "Serie bezala, gure dokumentuak XVI. mende hasierakoak dira. Adibidez, Oñatiren kasuan, 1501ean hasten dira. Antzuolakoak pixka bat lehenagokoak dira, baditugu 1498an idatzitako eskritura guztiakin eginiko tomoak. Beraz, guk esaten dugu XVI. mendetik gaur egunera arteko dokumentazioa gordetzen dugula".

#### Ikerketetarako oinarri

Ikertzaile askok izan dituzte artxiboan gordetako agiriak euren ikerketetarako oinarri. Esaterako, Selma Huxleyk eta Jose Antonio Aspiazuk. "Bizitzako edozein eremu aztertzeke balio dute dokumentuek: sineskerak, ekonomia, familia erlazioak, jana, janzkera, bidaia... Bizitzarekin erkazionatutako edozer", zehazten du Martinek. Baita hizkuntza ere. "Nahiz eta dokumentu guztiak gaztelaraz idatzita dauden (derri-gorrezkoa zen balio legala izateko), antzematen da euskararen presentzia. Izan ere, notarioek euskarazko hitz solteak erabiltzen zituzten, eurek ere ez zekitelako zein zen hitzaren itzulpena; adibidez, zuhaitz baten izena edo baserriaren erabiltzen zen lanabes batena".

Edonork kontsulta ditzake agiriok. "Gure erabiltzaileen profila ez da zehatza. Historialariak etortzen dira, baina baita afizionatuak ere. Adibidez, genealogia edo historia lokaletan interesa




**ANTZUOLAKO ARRIAGA ETXEA** Antzuolan zegoen Arriaga etxearen kanpoaldean, fatxada atontzeko, egin behar zuten korridorearen inguruko xehetasunak jaso ziren dokumentu horretan. Korridorearen beraren irudia ere egin zen, nolakoa izan behar zuten zehazteko. 1614koa da protokoloa. Antzuolakoak dira gordetzen diren bailarako protokolo zaharrenetakoa, 1498koa.

**ITURRIA** Aretxabaletan iturria egin behar zuteneko dokumentua da eskuineko irudian ikusten dugun hori. Iturri egiteko, egin beharreko lan guztien datuak, harginarekin egindako kontratua eta iturriak berak nolakoa izan behar zuten zehazten ziren irudiek osatzen dute notarioaren agiria. 1756koa dela zehaztu du Ramon Martin artxibozainak.

duinak etorri ohi dira". Martinek, baina, honakoa gaineratu du: "Agiriek idazkera propio bat dutela kontuan izan behar da eta garai bateko kontzeptu eta terminoak agertzen direla. Beraz, edozein ikerketa hemendik has-teak ez du logika handirik. Horretarako daude, esate baterako, udal artxiboak. Gainera, Deba-goian oso udal artxibo aberatsak ditugu".

**Digitalizazioa**

Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean, beraz, garai bateko altxorrek gordetzen dira. Egungo euskarrian ere badaude ikusgai,



Dokumentuak digitalizatzeko gunea: argazki kamera eta ordenagailua. | I.G.

ordea. Izan ere, bertan lan egiten duten artxibozainak guztia digitalizatzeaz ere arduratzen dira. Martinek nola egiten duten azaldu du: "Guretzako lehentasuna da dokumentuak ondo zaintzea. Eta noski, fotokopiagailu batek ez du hori bermatzen. Beraz, erabiltzen dugu argazki kamera bat [ikus ezkerreko argazkia]. Ondoren, ikerlariei irudi horiek ematen dizkiegu".

Artxiboaren %8 dago digitalizatuta gaur egun. Martinek kalkulatu du 5 milioi orri dituztela digitalizatzeko eta gaineratu hori guztia egiteko 50 urte beharoko lituzketeela. Horregatik pro-

zesua ez da modu linealean egiten. "Eskatu ahala egiten dira digitalizazioak. Hau da, jendeak eskatzen dituen kopiak egiten ditugu", zehazten du artxibozainak.

Horrenbestez, garai bateko altxorrek gure eskura ditugu Oñatiko Sancti Spiritus unibertsitatean bertan eta baita Interneten ere klik gutxitan (<http://oinati.gipuzkoakultura.net/eu.html>).

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



**Artxiboa datutan**

**SORRERA** 1942an sortu zen Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa, Foru Aldundiaren babesarekin.

**14.000** Gipuzkoako hiru barrutitan sortutako ia 14.000 protokolo gordetzen dira artxiboan.

**49 INKUNABLE** Oñatiko Unibertsitateko ikasketa liburuak dira, balio handikoak.

**MUNDUAN BI** Aragoiko foruen bilduma ere badago artxiboan. Munduan halako bi ale bakarrik daude.

**%8** Artxiboan gordetzen dituzten dokumentuen %8 daude digitalizatuta gaur egun. Kalkuluen arabera, bost milioi orri daude digitalizatzeko.

**BALDINTZA BEREZIAK** Dokumentuak ondo mantentzeko beharrezkoak dira baldintza bereziak. Temperatura 18 eta 22 gradu artean mantendu behar da eta hezetasunak %45 eta %65 bitartekoa izan behar du.

**SELMA HUXLEY | HISTORIALARIA**

**"Milaka eta milaka dokumentu zeuden artxiboan, katalogatu gabe"**

Selma Huxley ikerlariak Lagun Onari saria jaso berri du bere lanagatik. Oñatiko artxiboa izan zuen bere azterketetan oinarri.

**Pozik Lagun Onari saria?** Poz handiarekin. Ohorea da horren berezia den aitortza jasotzea. Gainera, oso ekitaldi hunkigarria izan zen.

**Bizi guztiko lanari emanikoa da. Zenbat urtez aztertu duzu Kanadarajandako euskal arrantzaleen inguruan?**

1972an iritsi nintzen Euskal Herrira, Kanadan XVI- XVII. mendeetan bakailao eta bale arrantzaren inguruko artxibo iker-

ketez hasteko. Ordura arte ezer gutxi ezagutzen zen gaiaz.

**Nondik zetorkizun interesa?** Nire gizonak euskal baserrien inguruko tesia egin zuen 1950ean. 1956an bere euskal lagunak bisitatzera joan ginen horra. Orduan sortu zitzaigun Kanadan euskaldunek izandako presentziaren inguruko interesa. Hala ere, bere heriotzaren ostean (1964) erabaki nuen itzultzea arrantzaleen inguruko ikerketa egiteko.

**Oñatiko protokoloen artxiboa izan zenuen oinarri, zati handi batean. Zer aurkitu zenuen bertan?**

1973an izan nuen Oñatiko artxiboaren berri. Oso ezezaguna zen. Giltza Jose Maria Agirrebaltzategi apaiz jatorrak zuen. Notarioek idatzitako milaka dokumentu zeuden bertan, katalogatu gabe. Era guztietako agiriak daude, tartean, portuetako gizarte eta ekonomiari buruzko informazioa, Ternuarako espedizioak barne. Horiek ziren gehien interesatzen zitzaidanak. 20 urtez egon nintzen bertan.

**Nola baloratzen duzu artxiboa?** Sekulako balioa du Gipuzkoako historian eta Euskal Herrikoan.

**Asko ezagutu dugu zure lanaz...** Bildutako informazioaren harira ezagutu ahal izan nuen balearen industria euskaldun bat zegoela XVI. mendean, Labrador eta Quebec inguruko kostaldean, 12 porturekin. Tartean, Buttes -egun Red Bay-. Ondoratutako euskal galeoiak ere aurkitu nituen. Oraindik, baina, asko dago aztertze-



WWW.IREKIA.EUSKADI.NET

**JOSE ANTONIO AZPIAZU | HISTORIALARIA**

**"Nire ikerketa nagusiak protokoloen artxiboan daude oinarrituta"**

Jose Antonio Azpiazu historialariak Oñatin dagoen Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa izan du oinarri bere hainbat lan eta liburutarako.

**Zein da Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa dauten agiriak?**

Izango dira 40 urte protokolo artxiboan nabilela eta nire ikerketa nagusiak bertan daude oinarrituta. Bertan gure historiako eguneroko bizitzako aztarnak agertzen dira, gure arbasoen presentzia.

**Zure zein lan oinarritu dituzue bertako agiritan?**

Historiarekin lotutako nire ikerketak protokoloetatik hasi izan ditut. Epaitegi eta beste artxibategi batzuk ere erabili izan ditudan arren, nire ikerketen muina hortik abiatu izan da. Esaterako, Gipuzkoako merkataritzaren inguruan egindako nire tesia, euskal emakumeen liburuak, esklaboena, korsarioen bi liburuak, balearen inguruko beste beste biak... Horiek, batez ere, protokoloetan daude oinarrituta.

**Zure azken lanerako (1813-Cronicas donostiarras) ere protokoloen artxiboa erabili al zenuen?**

Harrigarria badirudi ere, Donostiako suntsiketaren historia, hein handi batean, Oñatiko artxibategian dago. Nire harridurarako dokumentu hauek aztertu gabe zeuden, eta neurri handi batean, horrela dirauten. Protokoloak aztertzea ez da lan erreza, baina aberatsa, oso aberatsa.

**Izurriteen gaineko libururako -Esa enfermedad tan negra-La peste que**

**asolo Euskal Herria (1597-1600)- bertako agiriak erabili zenituen. Ze informazioa aurkitu zenuen?**

Agiri oso aberatsak. Izan ere, herriak jasan izan duen momentu lazgarrienetako bat izan zen eta hori artxiboan islatuta dago, batez ere testamentuetan: hil zorian zeudenak, izurriteak erasoko zituen beldurrez zeudenak... Dokumentu horietan eszenatoki lazgarriak agertzen dira.



I.G.

Joxe Arregi | Teologoa eta irakaslea

# "Barne askatasunak sor dezake serotonina eta alda dezake ekonomia"

- ▶ Apirilaren 3an Bergaran izango da Joxe Arregi
- ▶ Mariaren Lagundia ikastolan hitzaldia egingo du

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Joxe Arregi 1952an jaio zen Azpeitian. Parisen egin zen teologian doktore, eta arlo horretako irakasle izan zen 22 urtez, Gasteizko eta Deustuko fakultateetan. 2010ean, Munilla gotzainak teologia irakasteko, predikatzeko eta idazteko baimena kendu zion. Frantziskotar ordena eta apaizgoa utzi behar izan zituen, eta Arantzazutik Arroa Behera joan zen bizi izatera. Deustuko Unibertsitatean jarraitzen du irakasle, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean. Erljio gogoetarako *Hemen* aldizkariaren sortzaile eta zuzendaria izan zen, eta hainbat libururen egilea da.

**Bergarako Mariaren Lagundian hitzaldia egingo duzu: *Barrurako begirada, kanpo-aldaketan motore. Laburtu diezagukezu hitzaldia-ren puntu garrantzitsuenak?***

Izenburu hori proposatu zidaten, baina alderantzizkoa ere izan zitekeen: *Kanpo-aldaketatik barne-begirada berrira...* Kanpoak (familiak, harremanak, osasunak, hezkuntzak, ekonomiak, politikak, informazioak, hitz batean: *kulturak*) egituratzen du gure barrua, eta barruak egituratzen du kanpoa. Etxebizitzaren prezioek, lan-baldintzek, hormonek, serotoninak... aldatzen dute gure barnekotasuna, eta gure barne askatasunak sor dezake serotonina edo alda dezake ekonomia. Dena dago denarekin lotua. Izaki guztiok izadi bat egiten dugu. Kanpoak barrua behar du, eta barruak kanpoa. Egia esan, *kanpoa* eta *barrua* bat dira, errealtate beraren alderdi bi.

Dena den, proposatu didaten ikuspegiari jarraituko diot nik, eta azpimarratuko dut zein beharrezkoa dugun barne-begirada, barne-lana, barne-arnasa edo espiritualtasuna... gizarte humanoago, baketsuago, harmoniatsuagoa egiteko. Kanpo-aldaketarik gabeko espiritualtasuna alienatzailea da, eta espiritualtasunik gabeko kanpo-aldaketa, azalekoa.

Zertan dabil, egun, Joxe Arregi?

Deustuko Unibertsitatean klaseak emanez irabazten dut ogia. Jakina, orain ez dut Teologia Fakultatean irakasten, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean baizik. Erljioaren fenomenologia eta historiaren inguruko gaiak ematen ditut batik bat. Idazten ere saiatzen naiz. Euskaraz *Hemen* aldizkarian, *Uztarría*-n...; gaztelaniaz, Noticias taldeko egunkarietan hamabostean behin; katalanez *Dialogal*, erlijioen elkarrizketarako aldizkarian.

Eta libururen bat noizean behin. Erljio handietako oinarritzko idazki sakratuen (Korana, Bhagavad Gita, Dao De Jing...) euskal itzulpena bideratzen eta argitalpena prestatzen ere denbora asko eman dut azken urteetan (15 liburu badira dagoeneko *Erljioen jakinduria* deitzen den bilduman, Ibaizabal eta Deustuk elkarrekin argitaratuak). Eta han-hemen hitzaldiak, erretiroak...

**Interneten hainbat jarraitzaile dituzu eta aldiro-aldiro debateak sortzen dira zure artikuluen harira... Nola bizi duzu hori?**

Duela hamar urte hasi nintzen asteroko gogoeta batzuk e-mailez bidaltzen eskatzen zidatenei. Gero, web orri batzuk (*Humus*, *Atrio*, *Religi3n Digital*, *Feadulta...*) hasi ziren idazki horiek jasotzen, eta hala jarraitzen dute. Baina blogetako eztabaidetan ez naiz sartzen. Hasieratik erabaki nuen

**"Dena dago denarekin lotua; 'kanpoa' eta 'barrua' bat dira"**

**"Espiritualtasunik gabeko kanpo-aldaketa azalekoa da"**

komentario guztietatik erabat kanpo geratzea.

**Nola hartzen dituzu zuk diozunarekiko desadostasun mezuak, kritikak...?**

Jendearen kritikak, betiere, pentsarazi egiten dizu, ikuspegi berriak erakusten dizkizu, zabalago edo apalago izatera behartzen zaitu. Eta libreago izatera ere bai, aldi berean. Inor ez da egia-aren jabe, inork ez du dena ikusten, elkarri entzunez egin behar da bidea, baina, horretarako, ezinbestekoa da nor bere buruarekin fedea izatea ere, besteekin bezalaxe.


**Atrio webgunean, politikaren gaineko artikulua ere argitaratzen dira. Elizako ordezkariak agente politiko izan behar dira, zilegi ikusten duzu?**

*Atrio* erlijioari buruzko elkarrizketa-gune laikoa, anitza eta kritikoa da, eliza-erakundearekiko inolako mendekotasunik gabea. Eliza-ordezkariei dagokienez, agente politikoak izatea zilegi ote den? Mugak ezartzea oso zaila da. Agente politiko izan, denok gara era batera edo bestera, geure hautu eta hitz guztietan. Baita Eliza ere. Hori bai, Eliza ez daiteke inoiz alderdi politiko batekin lerrotu eta, Jesusen jarraitzaile bada, are gutxiago alderdi eskuindarrekin, gertatzen denez.

**Nola bizi duzu euskal gizarteak, gazteek batez ere, erlijioarekiko duten indiferentzia edo, kasu batzuetan, aurkakotasuna?**

Kultur aldaketa sakon batean murgilduak gaude, eta erlijio-erakunde tradizionalak ez dira jada sinesgarri. Gero eta nabarmenagoa da barnekotasun edo espiritualtasunaren egarria, bilaketa, baina duela milaka urte sortutako forma, sineskizun eta egiturek ezin dute ase egarri eta bilaketa hori.

Kristautasuneko dogmak eta erakundeak errotik berri behar dira, gure gizartearentzat inspirazio-iturri, arnas emale izango badira. Munduaz aparte dagoen *Jaun Goiko*-aren, Izaki



Joxe Arregi Arroa Behean bizi da gaur egun. | JOXE ARREGI

Goren baten irudia, esate baterako, eta horrekin dena. Zer esanik ez, eliza patriarkal, klerikal, hierarkikoa... Bihotzera bidea egin behar da. Jainkoa errealtatearen bihotza da.

**Berriki, abortuaren gaineko gogoeak plazaratu dituzu. Abortu libre eta doakoa da jende askok eskatzen duena. Ados zaude?**

Bizidun oro sakratua da, eta errespetu handia zor zaio. Baina kasu zail asko gerta daitezke, eta arazoa ez da konpontzen debekatuz eta zigortuz, edo eskumikua ezarriz. Gainera, iruditzen zait ezin direla berdindu egun bateko zigotoa, hilabeteko enbrioia eta lau hila-

**"Kristautasuneko dogmak eta erakundeak errotik berri behar dira"**

**"Frantzisko I.ak Eliza-eredua aldatu ezean, lehenera itzul gaitzke"**

beteko umekia. Beraz, dagoen legea egokiago iruditzen zait, PPK ezarri nahi duena baino. Nolanahi ere, haurdun ez geratzeko hainbat medio erraz izanik, ez dakit jendeak nolatan ez duen ardura handiagoz jokatzeko.

**Ze hartu-eman (baldin baduzu) duzu gaur egun Munilla gotzainarekin?**

Ez dut harremanik, baina ez arrazoi berezi batengatik, neure bizimoduak egokierarik eskaintzen ez didalako baizik, Arroa Beheko edozein kristauri bezalaxe.

**Zer iritzi duzu Frantzisko I. Aita Santuaz?**

Bere izaerak eta mezuak Ebanjelioaren arnasa itzuli digute. Eliza-giroa asko aldatu da, baina teologia, Eliza-eredua eta aginpide absolutua aldatzen ez badi-tu –eta zalantza handiak ditut aldatu ote ditzakeen–, lehenera itzul gaitzke.

**Eliza katolikoak buru bat izanda, oso jarrera kontrajarriak daude. Nori egin beharko lioke kasu gaur egungo sinestun katolikoak?**

Fededunak, gainerako elkarte eta arloetan bezala, Elizan ere pentsatzeko, esateko eta hautatzeko heldutasuna behar du: askatasuna, ardura eta tolerantzia.



## ZABALIK



IÑAKI CASAS  
goiena.net/komunitatea/

## Errespetua, balioak...

Zer ari da gertatzen? Hiru gaztek Gasteizko monumentu bati pintura bota diote, atxilotu egin dituzte, barrez lehertu dira eta haien gurasoek 23.000 euroko fakturatxo bati aurre egin beharko diote.

Normala da neska gazte batek mundu hau uztea, eta, hori gertatzen denean, perbertitu batek argazki bat ateratzea gorpuari eta Whatsapp bidez zabaltzea, mezua birbidali zutenen laguntza higuigarriarekin?

Zergatik itxaron norbait hil arte hura omentzeko eta egin dituen ekarpenak onartzeko? Bi kasu, gertatu berri: Iñaki Azkuna eta Adolfo Suarez. Lehenak, bizirik zela, bere hiria XXI. mendera eroan zuela esaten zen, eta despotia eta harroputza zela, besteak beste. Bigarrenari dagokionez, guztiek zioten maite zutela, baina Suarezek berak onartzen zuen gero "kabroiek" ez ziotela botorik ematen. Orain, guztiek txalo egiten diete bie; batari, munduko alkate onena zela esanda; eta besteari, Espainiako demokraziaren pertsona garrantzitsuena. Bide batez, gasteiztar batek Azkuna zenari aurpegiatzen zion gaur egun Bilbo den modukoa dela euskal gobernuak Gasteizetik daukan ahazte sistematikoa. Tira...

Madriilen manifestazio bat amaitu zen Pekingo 55 egunak bezala, polizia segika adokin-kolpeka eta gazte batek barrabil bat galduta. Zer ari da gertatzen?

Ba gertatzen ari da inpunitate legal handia dagoela eta gizarte kokoteraino dagoela. Gertatzen ari da hurkoarenganako eta arauganako errespetua hutsaren hurrengo dela. Gertatzen ari da harrotasunak eta inbidia galarazi egiten dutela ondokoaren lorpenak onartzea. Eta gertatzen ari da balioek (sakarifikioa, esfortzua, zintotasuna...) ez dutelako burtsan kotizatzen, ez direlako emaitzen kontuan agertzen, ez dituztelako soldadak gizontzen. Hala segituz gero, eta nahiz eta ardura sozialak aldarrikatzen ibili, herririk globaletik oihan madarikatura joango gara.

## USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

## Seme-alabak sare sozialetan

Seme-alaben bizitzako parte garrantzitsua dira sare sozialak, eta gero eta adin txikiagoarekin. Egiten duten erabilarekin euren arrastoa uzten doaz Interneten, eta eraikitzen doa euren identitate digitala. Atzean gelditu dira ordenagailua eta Tuenti. Gazteen pantaila kuttuna, gaur egun, mugikorra da, eta sare sozial hegemonikoa, Whatsapp. Formazio saioa egin berri dugu gurasoek Elgetan, eta erabilera arduratsua sustatzearren garrantziaz jabetu gaituzte. Ez da gai berria, baina bai gero eta garapen handiagokoa. Kanean ibiltzen erakusten diegun moduan, Interneten nola ibili ere erakutsi behar diegu. Pena lau guraso bakarrik gerturatu izana!


## KALE INKESTA

## Ordu aldaketa aldaketa handia da zuretzat?



MIKEL  
ELKOROBEREZIBAR  
BERGARA

"Arratsaldeak luzeagoak dira, eta, beranduago iluntzen duenez, kirola egiteko edo hurrekin jolasteko denbora luzeagoa daukagu".



JOSE RAMON  
EGUREN  
BERGARA

"Oso ondo iruditzen zait ordutegia aldatzea. Horri esker, argitasun handiagoa izango dugu eta denbora luzeagoan egon ahalko gara kanean".



GORKA  
IÑURRIETA  
BERGARA

"Gaua motzagoa izango da eta argia gehiago aprobetxatu ahalko dugu, baina nire egunerokoa ez du aldaketa handirik ekarriko".



MIGUEL  
LARRAÑAGA  
BERGARA

"Niri gustatu egiten zait ordua aldatzea. Horrela, argi orduak luzatu egiten dira eta paseatzeko eta kanean ibiltzeko askoz hobeto dago".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Zubernoako hegadarrak

Mikel Asurmendi  
argia.com/blogak/mikel-asurmendi/

Martxoak 8 zituen. Usaian baino aste bat berantago ospatu ditugu Inauteriak, astearte inauterearen ondoko ebiakoitzean. Hendaian hori da usaia 1977z geroz.

Karrikan, desfilean, usaian legez.

Usaiak usaia, Akelarre elkarteak -izena eta izanari atxikia- Lantz, Altsasu edota Mundakako inauteriak ekarri ditu gurera iragan berrian.

Aurtengoa berezia izan da. 2014. urtea iraganaren eta geroaren arteko mugarria da: Zubernoako hegadarrak sortu dute Akelarreko kideek.

Inauteria tradizioetik heldu den espresioa da.

Iturri zaharretik heldu eta iturri berrietik isurtzen den emana.

Sorkuntza berria da Zubernoako hegadarrak.

Akelarreko lagunek euren lagunak laguntzaz sortua.

Dantza zaharretik heldu zaizkigun urratsei urrats berriak gehitu dizkiete Claude eta Jon Iruretagoyena dantzari-koreografoek.

## Zubernoako hegadarrak

Aitor Furundarena musikariak zortziko, biribilketa edota baltsaren nota berriak ere ondu ditu.

Inauteria berritzen doan emana eta ikusgarria da.

Hendaia, behiala, Zubernoak deitua omen zen.

Zubernoak Arrizabaleta auzoan dago -egun Bas-quartier deitua-, Ansoberlo eta Agorreta alderdietatik beherako ezpondan. Halatsu dut nik entzun. Baliteke nik asmatu izana. Zer besterik da, baina, inauteria?

Hegadarrak izena ez da nik asmatua, Akelarreko kideok baizik.

Euskaldun bizitzeko asmatu beharra baitago.

Gure karriketan ibilitako Artza Agorretakoa da.

Karrika batek Agorreta etxaldea izan zenari hartu dio izena egun.

Dantzari bihurriak Ansoberlo karrikan jaiok dira.

Etxalde horrek ere karrika bati eman dio izena.

Zubernoak-tik Hendaia kaskora heldu gara Akelarreko kideok.

Ansoberloko Bihurri hegaldun makiladunak Agorretako Artzaren inguruan ibilki dira.

Puskabezteiek, Adardunek eta Buruhandiek bide ertzeko ikusleak inarrosi dituzte.

50 arizale ibilki gara Iruñeko Muthiko Alaiak fanfarreko musikari nekazinen erritmora, Peio Belaskoain tronpetajole prestua aitzindari.

Kaosa eraman dugu herriko plaza nagusira.

Inauteria kaosa baita, edo hala beharko inauteria izanen bada.

Inauteria kaosa da, eta bazar gisakoa ere bada, organizatua nolabait.

Festa komiteko kide batzuek badakite zerbait horretaz.

Omen, aurten, inauteriak herriko boz garaian izanda, ez zuten politika egiterik nahi: "San Pantzarti jujamendurik ez", erran omen dute.

Zubernoako hegadarrak ez da izan inauteriko agerraldi bakarra, bistan da.

Beste taldeen artean, gu beste bat ginen.

Edonola ere, San Pantzart goait genuen denok.

Eta Akelarrekook, hari so, ele andana hauxe erran diogu: "Bozen garaia izanagatik, hautagai guztiak euskararen alde omen dira. Hara San Pantzart, ez gaitzazu tronparazi. Zoaz sutara!".

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire  
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal  
Zuzendaria Eneko Azkarate  
Erredaktore burua Urbane Madera  
Sailkatu arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria  
Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
Argazkilaria Imanol Soriano  
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martin, Imanol Elortza  
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate  
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia  
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER  
ARRASATE 20500:  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

Legu Cordailua: SS-0088/04  
ISSN: 2173-707X  
Tirada: 5.000 ale  
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



## Amaia DJ

**Gazteendako bideoklipak**  
Amaia Txintxurretak aurkeztuta

- ▶ Eguena, 19:30, 22:00 eta 00:20
- ▶ Parte hartzeko:
  - Twitter: @amaiadj
  - Tuenti: DJ Amaia Txintxurreta
  - Whatsapp: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
  - Telegram: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)



# HERRIAK

ARAMAIO

## Egindako lanarekin pozik

- ▶ Aramailur kontsumo elkarteak herriko produktuen alde egindako apustua sendotu du
- ▶ Gaur egun, herriko 16 ekoizleren produktuak jasotzen dituzten 80 familia-bazkide ditu

MIKEL ARREGI | ARAMAIO

Bidea egiten dabil Aramailur kontsumo taldea. Hasiera baten baserriko produktuz osatutako saskiak jasotzeko asmoa zuen erosle talde izatetik, egun 80 familia-bazkide dituen kontsumo elkarte izatera pasa da. Bidean, mugarriz izan zen 2012ko irailean elkarteak Aramaioko hiltegi zaharrean ireki zuen ekonomatua.

Jokin Orobengoa taldearen sorreratik egon da Aramailurren, eta hark ondo gogoratzen ditu hasiera haiek: "Bi ekoizle eta zortzi familia ginen hasiera baten Udaleko arkupean biltzen hasi ginenak". Lehenengo asmo horrek berehalako arrakasta izan zuen, eta, egoera hartan, Aramaioko Udalak hiltegi zaharreko lokala eskaini zien. "Ozaetan zegoen ekonomatua eredu moduan hartu, eta Aramaion antzeko zerbait egiteko erabakia hartu genuen", dio Orobengoak.

Esan eta egin. Elkarteak herriko ekoizleen produktuei irteera eman, eta Euskal Herrian egiten diren bestelako produktu ekologikoak eskaintzeko ekonomatua zabaldu zuen.

### Etengabe haziz

Urte eta erdi bete du lokalak, eta denbora tarte honetan bazkide kopurua etengabe haziz joan da. "Bazkideak ez dira pertsonalak, familia-bazkideak baizik", gogoratzen du Jokin. Ekonomatuko produktuak erosteko bazkide izan behar da derrigorrez, eta momentutan, 80 familia dira Aramailurreko bazkide. Orobengoak dioenez, eskaerak goranzko joeran jarraitzen dute azkenaldian, eta joera berari eustea espero dute.

Bazkideek martitzen arratsaldeetan eta zapatu goizetan daukate ekonomatuko produktuak

erosteko aukera. Bi eratako elikagaiak dituzte bertan: alde batek, kanpotik ekarritako produktu ekologikoen eskaintza dago. Arabako Errioxako oliba-olioa, Nafarroako ardoa eta arroz integrala soltean erosteko aukera daukate bazkideek. Bestetik, Aramaioko baserriarrek produzitutako produktuak daude. Ortuko sasoiako barazkiez gain, inguruko baserrietan landutako produktuak, hain zuzen.

Jokin Orobengoak hauxe dio: "Proiektua martxan jarri genuenetik, Aramaioko 16 ekoizleren produktuak saldu ditugu". Urteko sasoiaren arabera, momentuan saltzen dabilen ekoizleen kopurua ere desberdina da. "Oraingoz, herriko hiru ekoizle etorri dira guregana; bi txorizo-ekoizle, hiru baserriarrek sagar-zukua izan dugu... Izan ere, sasoiak dauden



Jokin Orobengoa, hiltegi zaharreko ekonomatua. | JOKIN BEREZIARTUA

produktuak eskaintzen saiatzen gara", dio hark.

### Ekoizle gehiagoren bila

Aramailur elkarteak, baina, gaztea da oraindik, eta herriko ekoizle

askok ez dute garbi ikusten haren funtzionamendua. "Baserriar askok uste dute denda normalen arauarekin jokatzeko dugula, eta hori ez da horrela", dio. Aramailurrek irteera eskaini nahi die

soberakin txikiak dituzten baserriarrei, konpromisorik ezarri barik. "Baserriar batek, esaterako, 15 kilo intxaur ekarri zituen. Kopuru hori salduta, ez da gehiago itzuli, baina etxean zeukan soberakin horri irteera ematea lortu genuen", dio Orobengoak.

Ekoizleek izan ditzaketen beldur horiek apurtzea eta duela urte eta erdi hasitako bidea sendotzea dira orain Aramailurren helburu nagusiak. Datozen hila-beteetan urteroko batzar nagusia egingo dute bazkideek, eta bertan jarriko dira elkarteak izango dituen helburu estrategikoak.

Orain arteko lanari begira, elkarteak bere helburuak bete dituela uste du Jokin Orobengoak. "Elkarteak bere bidea egiteko aukera eman die herriko baserriarrei, eta horrekin bakarrik bere helburuak bete ditu", dio.

Horrek ez du esan nahi, baina, Aramailurrek geldirik egoteko arrazoiak dituenik. "Orain, ekoizle gehiagoren parte-hartzea bilatuko dugu", aurreratu du Orobengoak. Asmo horrekin, hiltegi zaharreko ekonomatua zabalik jarraituko du martitzen eta zapatuetan, interesa duten aramailoarentzat.

IBAI ORMAETXEA | EKOIZLEA

### "Postuan zaudela ortuari buruzko berriketaldi politikak sortzen dira"

Joan den uda ezker bere baserriko produktuak ekonomatuan saltzen dabil Ibai Ormaetxea gaztea.

#### Zergatik sartu zinen baserriko produktuen ekoizpenean?

Lanik gabe gelditu ostean, nekazaritza ikastaro baten apuntatu nintzen. Nik neuk lurra neuzkan baserrian, eta iaz, uztail aldera, barazki ekoizpenari ekin nion. Produktuei irteera emateko ekonomatua zegoen, eta, mugimendua zegoela ikusita, bertara



jaitsi nintzen.

#### Ze hartu-eman daukazu bezeroekin?

Berezia da oso saltzen zaudenean saltzailearen eta bezeroaren artean sortzen den hartu-eman. Aramaion, gainera, jende guztiak daki ortuez, eta, hain zuzen, postuan zaudela berriketaldi politikak sortzen dira.

#### Martitzen eta zapatuetan etortzen zara ekonomatua...

Bai. Orain, ekoizpena igotzea da nire helburu nagusia.

ROMAN MARTINEZ | KONTSUMITZAILEA

### "Eredu iraunkor baten aldeko apustua egiten ari garela uste dut"

2012ko irailean zabaldu zutenetik, ekonomatua egiten dituzten erostekak Roman Martinezek.

#### Zergatik daukazu ekonomatua etortzeko ohitura?

Bertako produktuak saltzen dira hemen, horietako asko Aramaion bertan produzitutakoak. Hemengo produktuak erosita, baserriarrei aukerak ematen ari gara eta hori oso garrantzitsua da guretzako. Eredu ekologiko eta iraunkor baten aldeko apustua



egiten ari garela uste dut, gainera. Gazteek fabrikatik baserriariko buelta egin dute berri, eta eredu hau gorantz doala uste dut.

#### Zeproduktu klaserren bila etortzen zara?

Ba, batez ere, baserriarrei aukerak ematen ari gara. Hori ere erosten dituzte. Hemengo produktuak garestiagoak dira, baina balio erantsia daukate. Euskal produktuei, esate baterako, lehentasuna ematen zaie hemen.

UGARTE  
AROSZEGIA - ALTZARIAK

ALTZARI DENDA  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

AROSZEGIA  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

BERGARA  
aroztegia@ugartearoztegia.com



Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak · Leihoak ·  
Tarimak · Egur lanak





Arkuak eta geziak nola erabili ikasteko aukera izan zuten atzo. | TXOMIN MADINA

## BERGARA

# Gorla ezagutu eta naturaz gozatzeko aukera paregabea

Familia giroan, ehun pertsona inguruk hartu zuten parte atzo Bergaran egin zuten Natura Egunean

TXOMIN MADINA | BERGARA

Domeka izanda ere, goiz jo zuen atzo iratzargailuak bergarar askorentzat. Natura Eguna egin zuten atzo Gorlan, eta hainbatek oinez egin zuten harako bidea, Pol-Pol Mendi taldeak gidatuta; beste batzuk autobusez igo ziren.

## Ipuinez betetako ibilaldia

Zuhaitzak landatzea izan zen Natura Eguneko lehen ekintza, eta ondoren Gorlako Igoera ikusteko etenaldia egin zuten. Horren ostean, egon zen bestelakorik.

Batetik, batzuek ibilaldia egin zuten Gorla inguruetan. Bidea ez zen bereziki luzea izan, baina bai entretenigarria. Amaia Arriaran ipuin kontalariak gidatu zuen paseoa eta hainbat geldialdi egin zituzten: Arriaranek, zeuden tokia- ren inguruko historia kontatzeko aprobetxatzen zituen geldialdiok, baita ipuinak kontatzeko.

Bien bitartean, gaztetxoak arkuarekin eta lantzekin ibili ziren *Historiaurreko Olinpiadak* izeneko jokoetan. Ez ziren dieran

jotzeko gai izan, baina ederki pasatu zuten jolasean. Paseoa eman zutenek eta jolasean ibili zirenek, denek mokadutxo eginaz borobildu zuten goiza.

Egunak emandakoarekin pozik zegoen Iñaki Irizar Bergarako

Ingurumen teknikaria: "Ehun lagun inguruk hartu dute parte Natura Egunean. Familian egiteko eguna bihurtzen dabil, eta pozik gaude: natura balore bezala erabili eta transmititzea pozgarria da".

## 120 zuhaitz berri gehiago

Pagola-Loidiko pagadian egun lursailak diren pare bat hektarea berriz ere baso bihurtzeko lanetan dabil azkenaldion Bergarako Udala, eta hor landatu zituzten atzo zuhaitzak.

Gune horretan denera 600 zuhaitz landatzea da asmoa, eta atzo askotariko 120 zuhaitz inguru landatu zituzten. "Azkenean, aurrerago landatzeko gordeta zeuden zuhaitzak ere sartu ditugu", zioen Iñaki Irizar Ingurumen teknikariak



Zuhaitzak landatzen. | T.M.

**NAROA INZA  
ETA JON  
ARANBURU**  
BERGARA



"Lehenengo zuhaitzak landatu ditugu, eta orain arkuarekin dieran jotzen saiatzen gabilta. Oso zaila da!".

**MARKEL ETA  
AITOR ARZELUS**  
BERGARA



"Autoan etorri gara. Gu ere arkuarekin gabilta, eta aurpegia margotuta daukagu ehiztariaren ikurra delako".

**JOSE RAMON  
ITURBE**  
BERGARA



"Ibilaldi gidatua oso ondo egon da. Entreenigarria izan da eta umei eta helduei, denoi balio izan digu gehiago jakieko".

## ONATI

## Ia 33 urteren ostean, jabe aldaketa bihartik Oñatiko Izarraitz tabernan

Igor Biaini pasatuko diote lekukoa taberna ireki zuten Margari Bastarririk eta Xabier Ibarzabalek

T.M. | OÑATI

1981eko irailaren 8an zabaldu zuten Xabier Ibarzabalek eta Margari Bastarririk Kale Zaharreko Izarraitz taberna, eta azken urteetan bertako langile izan den Igor Biaini pasatuko diote lekukoa bihar. Hori horrela, asteburu hunkigarria izan da, asko izan dira-eta egunotan tabernatik pasatu diren bezeroak.

"Ez da lan faltagatik, atsedeen hartzeko ordua heldu zaigulako baizik. Pena handiarekin, hori bai!", dio hunkituta Margarik

taberna uzteko arrazoiak azaltzeko. "Guretzako taberna gauza oso polita izan da, bizipoza; ez dugu inolako kezarik" gaineratzen du, eta egun berezirik gogoratzen duen galdetuta, ezin da bakarrarekin geratu: "Jaietako egunak alaiak izan dira, lanean ere gazte jendea eta giro ona egon delako. Baina egunean eguneko lana ere polita izan da, betiko bezeroekin lortutako harremana". Hori bai, bi iloba izanda, taberna utzi arren entretenimendua izango dutela dio.



Xabier Ibarzabal eta Margari Bastarririk euren seme Zigor eta Garirekin. | M.A.

## ANTZUOLA

## Independentzia Eguna ospatu zuten antzuolarrek zapatuan

T.M. | ANTZUOLA

Tortila lehiaketak eman zion hasiera antzuolarrek zapatuan ospatu zuten Independentzia Egunari. Jende dezente hartu zuen parte bertan, eta txokolatearekin egindako tortilarik ere aurkeztu zuten.

Triki-poteoa egin ondoren, Gaztetxean bazkaldu zuten 60 pertsona inguruk, eta bazkalostea animatua izan zuten, hainbat jolas egin zituzten-eta.

## Eguna amaitzeko, musika

19:00etan, Oñatiko Trikitxarangaekin poteoan irten ziren, eta gauean, bi taldek kontzertua eskaini zuten: Iparraldetik etorritako Geroaak eta Antzuolako Eikasiak.

Bazkarian akaso iaz baino jende gutxiago elkartu arren, Antzuolako Gazte Asanbladatik aurtengoaren balorazio positiboa egin dute, batez ere, iluntzeko eta gaueko ekintzena.



Zapatu gauean Geroa taldeak kontzertua eskaini zuten. | IMANOL SORIANO

## ARRASATE

# Zapatuan Kurtzetxikin eginiko auzolana arrakastatsua izan zen

40 lagunek hartu zuten parte eta uste baino lan gehiago egin zuten

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Bagarak eta Arrasateko Udalak antolatuta auzolana egin zuten zapatuan Kurtzetxikin eta 40 lagun inguru bertaratu ziren. Hiru orduz aritu ziren askotariko lanak egiten eta lehen sektoreari bultzada ematen.

## Hiru eginkizun

Azaroan egitekoak ziren auzolana eraman zuten aurrera zapatuan. "Alerta laranja behartuta atze-

ratu behar izan zen, eta gaurkoan primeran joan da guztia, eta uste genuena baino lan gehiago egiteko aukera izan dugu". Hala eman zuen aditzera Bagarako kide Onintze Guridik Kurtzetxikitik bueltan. "Batetik, egurrezko egiturak eta hesi metalikoak baliatuz zuhaitzak babestu ditugu ganaduak jan ez ditzan. Bestetik, umeekin artelan bat egin duen taldea osatu da. Naturako elementuak baliatu dira eta pin-

tura biodegradagarria erabilita eskuen markak egin dituzte egurrean eta tximeleta erraldoi bat sortu da horrela. Kurtzetxikin geratu da obra".

Hirugarrenik, Naturtzaindia taldekoek Kurtzetxikin aurretik eginda zeuden itxitura batzuk moldatu zituzten: "Ganaduak ihes ez egiteko sortu ziren, baina konturatu dira oso itxiak zirela eta naturako gainerako animaliek -azkonarrek, azeriek eta beste- ez zutela igarobide naturalik. Hala, itxituretan zulotxoak eta beste egin dituzte arazoari irtenbidea emateko".

Lan horiek eginda lehenengo sektoreari lagundu zieten herriarrek auzolan bidez. "Etorkizunean beharra balego ez dugu bazterten beste deialdi bat egitea", diote antolatzaileek.

Hiru orduko lanaren ostean, Bedoñako elkartearen zain zeukaten luntzak gozatu zuten.



Gaztetxoek artelan bat egin zuten. | BAGARA



Zuhaitzak babesteko hesiak ipini zituzten. | BAGARA



Hiru orduz egin zuten lan gogotsu zapatuan. | BAGARA

## DATUA

# 40

LAGUN

Gazte zein heldu, guztira 40 lagunek hartu zuten parte zapatuko auzolanean.

# 3

LANTALDE

Hainbat lan egin zituzten eta horiek aurrera eramateko 3 lantalde osatu ziren.

# 1

ARTELAN

Haurrekin aritu zen lantaldeak artelan bat osatu zuen naturako materiala baliatuz.

## BERGARA

# Angiozarko Elizamendira itzuli da aspaldiko partez umen bedeinkapen festa

Z.V.D.M. | BERGARA

Angiozarko Mainddao auzoko Elizamendi inguruak jendez bete ziren atzo, domeka. Urte askoan San Migel elizan ospatu izan den festa jatorrizko tokira itzuli baita oster: umeen eta haurdun dauden emakumeen ohiko bedeinkapena egin zuten atzokoan. "Bi hamar-kadaz itxita egon da. Iaz bikote

bat ezkondu zela-eta txukundu egin genuen auzolanean. Erabilerarekin jarraituz, berriz ekarri dugu antzina toki berean egiten zen festa", eman du aditzera Mila Eguren auzotarrak. Eta Mainddaora bertaraturakoak gustura egon ziren.

"Dena dela, aldarrikapen bat egin gura dugu. Orain arte auzo-

lanean aritu gara, eta hala jarraituko dugu; baina badira hainbat lan diruz lagundu beharrekoak, tartean euste-horma bat: eliza eta errepidera bitarteko zelaia mugitzen ari da; lehen laua zena, orain aldapan dago", gaineratu du Jose Angel Mikeo auzo-alkateak.

## Udaberriko III. Jaialdia

Ez da izan asteburuko ekintza bakarra Angiozarren. Udaberriko III. Jaialdia egin zen egubakoitzean. Trikitiak, pianoa zein biolontxelo erabilia askotariko piezak interpretatu zituzten ikasleek: *Txoriak txori, Itsasontzi baten zein Maitia nun zira*, esaterako.



Umeek bedeinkapena jaso zuten meza amaieran. | Z.V.D.M.



Ezohiko irudia dute Manddaon: Amabirijina bularra ematen. | Z.V.D.M.



Festa borobiltzeko luntxa egin zuten. | Z.V.D.M.



Egubakoitzean Udaberriko III. Festa egin zuten. | IMANOL SORIANO

# Asteartean hasiko dira Polmetasa eraisteko lanak

## 18.000 euro bideratuko ditu Udalak lan hauetarako

MIKEL ARREGI | ARRASATE

Bihar goizean hasiko dituzte Polmetasa zaharra botatzeko lanak. Gerentearen etxea eta bulegoak izango dira eraitsiko diren lehengo eraikinak, eta hauen ostean, lantegia zegoen lekutik uralita piezak kenduko dituzte.

Polmetasak 2008an utzi zuen lantegia, eta San Andres Berri SL etxegintza enpresari saldu zion lursaila. Krisiak baina, hondoa jotzera eraman zuen San Andres Berri; eta orain eremuaren jabetza epaitegi batek eraba-

kiko du, etxegintza enpresaren likidazioa amaitutakoan.

Lursailaren jabetza epaitegitan izan den denboran, kalte handiak jasan ditu lantegi zaharrak. Egoera ikusita, Udalak aurri izendapena eman zion pasa den urtarrilaren 27an Polmetasa zaharrari; eta "herritarrentzako arriskua" argudiatuta, eraiste lanak hasteko agindua eman zuen.

### Amiantoa kendu

Lan hauek bi esparrutan egingo dira. Alde batetik, Amianto y

Gestión enpresak, lantegia zegoen lekuan aurkitzen diren uralita piezak kenduko ditu. Teilatu zati hauek amiantoa daukate, eta horregatik pieza guztiak banaka batu eta kudeatuko dira.

Excavaciones Besaide enpresak bestalde, eraiste lanak egingo ditu. Pasa den astean sei kamioikada zabor atera zituen enpresa honek Polmetasa zaharretik, eta lan hauek bukatuta, eraikinak botatzen hasiko dira orain. Lan hauek 18.000 euroko aurrekontua izango dute.



Egoera kaskarrean izan da Polmetasa azkeneko urte hauetan. | MIKEL ARREGI

Ane Gorosabel eta Asier Garai | AGAKOko kideak

## "Autogestiorako borrokan gabiltzala azpimarratu gura dugu"

AGAKOk 23 urte beteko ditu apirilean, eta urteurrena ospatzeko ekintzak egingo dituzte

M.A | ARRASATE

Apirila urteko hilabete bereziena izan ohi da gaztetxekoentzako. Aurtengoa ez da salbuespena izango, eta bide horretan haimaika ekintzez betetako egitaraua aurkeztu dute.

### Ze egitarau prestatu duzue aurtengo urteurrenerako?

**Asier Garai:** Denetik egongo da. Kooltur ostegunetakoez gain, asteburuetan kontzertuak izango dira. Besteak beste, Porco Bravo, Estricalla eta The Capaces taldeek joko dute.

**Ane Gorosabel:** Bestelako ekintzak ere egingo ditugu gainera. Hilaren 22tik 24era irteera egingo dugu inguruko mendietatik. Arrasatetik irten eta Otxandio eta Alabitan egingo dugu lo hiru egunez luzatuko den irteeran. Gerra Zibilean izan ziren gorabeherak ere ezagutuko ditugu irteeran zehar. **Ildo horretatik formakuntzarako hitzorduak ere izango dira**

**An:** Hori da. Apirilaren 17tik 20ra, Iruñean egin behar diren Gazte Burutakzio Topaketetara joango gara esaterako.

**As:** Aipatu baita, ekintza kultural ugari izango direla. Film laburrak emango dira, Jabier Lertxundik "Autogestioa eta kooperatiba" hitzaldia emango du... Aipatu baita, gaztetxean dabilzan erizain pare batek



Ane Gorosabel eta Asier Garai. | M.A

lehen sorospen ikastaroa ere emango duela.

### Apirilaren 26an berriz Gazte Eguna egingo duzue...

**As:** Bai, ekintza piloa izango da goizetik gauera. Eguna indarrez hasteko entzierroa egingo dugu alde zaharreko kaleetan. Gero, eguerdi partera herri bazkaria izango da Seberon. Bazkalostean, bakarrizketalari bat etorriko da; eta horren ostean, "karropoteoa" eta olinpiadak izango dira gaueko kontzertuen aurretik.

### Ze esan nahi diezue herriko gazteei urteurren honen harira?

**An:** Guk autogestiorako borrokan gabiltzala azpimarratu gura dugu. Abiapuntu horretatik, gazte eta nagusiei bertarako etortzeko deia egiten diegu.

## NIRE USTEZ

JOSUNE MURGOITIO



## Shock kulturala Istanbulen

Turkian bizitzea oso gogorra da", ezagutu ditudan lagun guztiek gauza bera diote. Egia da. Istanbul, turkoek diotenez, hiri mistikoa da, eraikin zoragarriak dituena, "askatasunaren hiria". Esperimentzia ezberdin bat bizi izateko asmoz etorri nintzen hiri turkiar honetara denboraldi batez Arrasate nire begien bistatik kentzeko, nire lehen liburua bukatu ondoren, oporrak behar nituen. Turkian ez dut oporrik aurkitu, giza eskubideen zapalkuntza latza baizik.

Arrasateko kaleak gogoratzen ditut; mendiak, isiltasuna, bizimodua... Istanbulen, ordea,

gizartearen kontrasteak sentitu daitezke leku guztietan. Kaleetan, emakume ezberdinak ikus daitezke: minigona batekin doazenak, europarren estiloa dutenak, buruan estalki bat daramatenak zein gorputza erabat estalita dutenak, begiak eta sudurra salbu. Beraien arteko harremanari buruz hausnartzen dut hemen nagoenetik. Orokorrean ez da oso ona. Tayyip Erdogan (Turkiako lehengo ministroa), estatua islamizatzen saiatzen ari dela diote (azkenengoa, twitter sarea isteko saiakera), herritarren arteko begirada usteltzen, batzuk ados, beste batzuk kontra, gorrotoa areagotuz, baina guztiek nekatuta dirudite. Euskadin ondo asko ezagutzen ditugu gorrotoaren ondorioak. Turkian ere badaude, baina ez dira ikusten.

**"Egia da. Istanbul, turkoek diotenez, hiri mistikoa da"**



## Debagoieneko zikloturistek denboraldia hasi dute

Joan den martxoaren 2an hasi zuten denboraldia Debagoiena TXKko zikloturistek. Sasoi berriari hasiera emateko, taldeko mailota eskaini zioten Dorletako Amari. Aurtengoa bi mila kilometro egiteko asmoa daukate taldea osatzen duten 75 lagunek. Martxo eta urria artean 30 irteera egingo dituzte inguruko errepideetatik, eta ekaina aldera urtero kanpora egin ohi duten txangoa egingo dute.

### Laburbira film laburren zirkuituak emanaldia etzi

AEDk jakinarazi duenez, Topaguneak antolatzen duen Laburbira film laburren zirkuituak geldialdia egingo du etzi Kulturateko areto nagusian (19:00). Aurten zazpi film labur ikus-terko aukera egongo da, doan; euskal sortzaileek egindakoak guztiak: *Abuztua, Aio, Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa, Marilyn, Plaza bakarra, Sormenaren bide ezkutak* eta Kepa Errasti aretxabaletarrak zuzendutako *Euskaldun berriaren esketxa*. Film luzeenak 17 minutu irauten du.

### Emakume artistekin bilera egingo du Ekinek egubakoitzean

Emakumea ardatz izanik, hainbat arte formaren eszenaratzeko antolatzaile nahi du Ekin Emakumeak Elkarteak. Oraindik "labean" dagoen proiektuari forma eman gura diote: "Guztion artean aurrera ateratzeko, askotariko diziplinetan artistak diren ekarpenak beharrezkoak ditugu". Horretarako, bilera antolatuko da apirilaren 4rako. Ekin elkarteak Pablo Urangan duen egoitzan egingo dute bilera, 18:00etan. Argibide gehiago: 943 79 83 70.



Aragoiko Oswaldo Pai kontalaria Munduko Kontu Kontalariak jaialdiaren barruan etorriko da apirilaren 11n. | NAVARRA.ES

# Askotariko ekintzak antolatu dituzte Liburuaren Egunerako

- ▶ Munduko Kontu Kontalariak jaialdiko saio bat Kulturaten apirilaren 11n
- ▶ Literatura Solasaldien barruan, gaztelerazko eta euskarazko saio bana

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Apirilaren 23an ospatuko da Liburuaren Eguna mundu osoan, eta, urteroko moduan, Arrasaten ez da oharkabean pasako. Izan ere, apiril osorako ekitaldiak antolatu ditu Udal Bibliotekak.

Gainera, Aste Santua tartean dagoenez, hil hasieran eta amaieran izango dira ekintza nagusiak. Lehen ekintza apirilaren 10ean izango da Santa Marina auzoko haur liburutegian (18:00): Izaskun Muxika ipuin kontalariak 4 eta

6 urte arteko umeendako saioa eskainiko du.

**Goi mailako kontalariak gurean** Hurrengo ekintza, aurtengo egitarautik nabarmendu beharra dagoena, apirilaren 11n izango

da: Munduko Kontu Kontalariak jaialdiak geldialdia egingo du Arrasaten. Goizean, 11:00etan, Aragoiko Oswaldo Pai kontalariak saioa eskainiko du Kulturaten Arizmendiko ikasleendako.

Egun berean, baina arratsaldean, herritar guztiendako saioa eskainiko dute Bego Alabazan, Clara Haddad eta Alekos kontalariak. 19:00etan izango da, Kulturateko areto nagusian. Literatura-zaleendako ekintza interesgarria izango dela nabarmendu dute antolatzaileek, goi mailako kontalariak dira-eta. Jaialdian, Kolonbia, Brasil, Venezuela, Aragoi eta Euskal Herriko kontalariak hartuko dute parte, eta, Arrasateko saioez gain, Elorriin, Basaurin, Durangon eta Berriren egongo dira apirilaren 9tik 12ra.

### Literatura solasaldiak

Bestalde, literatura solasaldiek ere ez dute etenik izango. Komiki zikloa amaitu ostean, *Literatura eta homosexualitatea* berbagai dituzten solasaldiak izango dira apirilaren 29an. Juanjo Olasagarre arituko da koordinatzaile lanetan eta Michael Cunningham-en *Las Horas* obra izango dute berbagai. Hilaren 29ko saio hori gazteleraz izango da, 18:30etik 20:00etara.

Euskarazko solasaldiak, berriz, egun bat geroago izango dira, hilaren 30ean. Koldo Izagirreren *Parisen bizi naiz* poema liburua hizpide hartuta, Garazi Arrula koordinatzaileak gidatuko du saioa.

# Izaki Gardenak apirileko Kooltur egitarauko lehena

Inoren Ero Ni eta Luther Russelek osatuko dute apiril honetarako Kooltur osteguneko egitaraua

**M.A** | ARRASATE

Izaki Gardenak taldeak irekiko du aste honetan apirileko Kooltur osteguneko egitaraua. Talde hau 2012an sortu zuen Jon Basaguren bakarlaririk. Urte berean Inaki Larenaren estudioan bost abesti grabatu zituzten Izaki Gardenak taldekoek, gerora Oihuka disketxeak argitaratutako "Itsasargiak" diskoan agertu zirenak.

Iaz berriz, beraien lehenengo diskoa kaleratu zuten, "Amaieratik hasi", eta ordutik lan hone-

tan bildutako abestiak zuzenean aurkezten dabilta.

### Estatu Batuetatik

Izaki Gardenaken ostean, Inoren Ero Ni eta Luther Russelek joko dute apirilaren 10 eta 24ean. Azken emanaldi honetan bi hamarkadetakoa ibilbidea daukan bakarlarikaren musikaz gozatzeko aukera izango da Arrasateko gazteterxan. Luther Russelek, *The Invisible Audience* bere azkeneko lana aurkeztuko du.



Izaki Gardenak taldeko kideak. | KOOLTUR EKINTZA

## NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | [blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/](http://blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/) | [twitter.com/arrasatepress](https://twitter.com/arrasatepress)

### "Niretzat atseginagoa da Oñatin kantatzea Kalifornian baino"

Benito Lertxundik gureu euen hamen kantau kanpuen baiño: "Hori da naturala, ekologikoa. Kalifornian, berriz, gauzarik ximpleena ere esplikatu egin beharko nukeen, guztia itzuli".

Ez Dok Amairu gogora ekarri euen; oso aldeko eta oso kontrako jarrerak egon zela: "Hasieran, aurrerakoak ginen, progresistak, gure aldekoentzat; besteentzat, berriz, ginen progresista beldurgarriak, deabruarekin paktatu egiten genuenak...".

Gaiñera, Zuberoakin daukan harreman estue nundik datorren kontau euen: "*Baga, biga* Britainian ematera joan ginenean, hausnartu nuen lehen aldiz, hango musikak bazuela gurearekin antzik, eta hasi nintzen kantutegi zaharrak aztertzen. Orduan deskubritu nuen Zuberoa...".

Musika bete-betien industria bihurtute euen, baiñe Lertxundik beranari eusten eutzen: "Musika kontsumoko pitxi preziatu bihurtu da. *Zenbat* da helburu nagusia: zenbat diska, zenbat emanaldi... Niretzat, berriz, *nola*-k du garrantzia, gauzak nola egiten diren, zenbat egiten den baino gehiago".

### 'Aretxagazeta' jaixo zan

1989ko martxuan 21ien atara euen lehenengo zenbakixe hiruhillebetekarixek. Hogei orrialde euen, eta hainbat atal: editoriala, Udalaren funtzionamenduen gaiñien artikulue, gutunek, Karnabalak, Aitor Sarasuakin entrebistie...

*Press*-ek kritikatzko bat egin eutzen: "Maila ona da. Diseinuari dagokionez... orrialde batzuetan argazkiak eta testua gehiegi nahasten dira".

17. zenbakixe 1989-04-07





San Joxepe elkarteak, egunean egin zuen bere urteko batzarra. | IMANOL GALLEGU

# San Joxepe, erretiratuen aisialdi aktibo baten alde

Urteko batzarrean zuzendaritzako hiru kideren aldaketa onartu zuten

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Bergarako San Joxepe erretiratuen elkarteak hiru kide berriak aukeratu zituen urteko batzarrean. Aurreko bilerako akta onartuz hasi zuten bilera, eta horren ostean, zuzendaritzak 2013. urteko balantzea egin zuen. "Pozik", azaldu ziren zuzendaritzako kideak eta euren ustez, aisialdi aktibo baterantz egindako apustua indartuz doa. "Aisialdi eta kulturari garrantzi handia eman diogu eta jendeak oso ongi erantzun du", azaldu du Iñaki Zabala San Joxepe elkartearen presidentea.

tsaldean, erretiratuen egoitzan. Bertan pasa den urteari erreparazioa emateaz gain, aurten egingo dituzten ekintzen berri eman

zieten bertaratu ziren bazkideei. Zuzendaritzako hiru kide berri onartzeko ere balio izan zuen batzarra. Aurreko bilerako akta

Datuak arrazoia ematen diote, pasa den urtean, 9.078 pertsonen hartu zuten parte, elkarteak egindako ekintzaren batean, horietatik 6.014 aisialdi ekintzak izan ziren.

Egitarau zabal hau aurrera ateratzeko 16.337 euro bideratu dira, eta yoga edo bigoa bezalako ekintzetatik dirua ateratzea lortu arren, urteko balantze ekonomikoa 1.137 euroko galerarekin bukatu da. "Balantzea normala da, eta saldo negatibo hori kontrolpean dugu", azpimarratu du presidentea, hala ere, 2014ra begira sarrera eta gastuak zorrotzago zaindu beharko direla ere aipatu du Zabalak.

**2014a bide beretik**  
Aurten ere, antzerako egutegi bat prestatu duten arren, murrizketak medio, irudimena erabili beharko dutela azaldu dute, "dirulaguntzak jaitzi egin dira, hala ere, ekintza kopurua mantentzeko buruari eragin, eta irudimena erabili beharko dugu" dio Zabalak. Hala ere, 2014rako aurkeztu zuten programa askotariko ekin-

tzez betea dago, eta aurreko urteetan arrakasta gehien izandako ekintza eta ekimenak mantendu egingo dituzte.

## Hiru kide berri

Batzar berean gainera, zuzendaritzako batzordeko hiru kide berri zituzten. Egindako lana esker-tzeko txalo artean agurtu zituzten Rosamari Larrañaga, Begoña Garitano eta Jose Ramon Lozano. Horren ostean, txalo artean ere, Mariasun Gardoki eta Iñaki Arrieta zuzendaritzako kide berriei ongi etorria egin zioten.

Zuzendaritzako kideek azaldu zuten moduan, hiru kide berriak topatzea ez da lan erraza izan, hala ere, kide berriei pozik daude. "Ezagutzen ditut, eta badaikit lan ona egingo dutela", argitu du Zabalak.

Zuzendaritzako kideek 2013. urteko memoria eta 2014. urteko programa aurkeztu eta gero, bileran zegoen Jaione Isazelaia alkateak hartu zuen hitza, bere ustez, San Joxepe oso lan ona egiten du, eta bide beretik jarraitzeko eskaera ere egin zuten zuzendaritzako kide nahiz gainontzeko bazkideei.

## Pentsioak eta kopagoa

Batzarra bukatzean zegoela, erre-gu eta galderen tartean, kide batek, aisialdi ekintzez gain, aldarrikapen ekintzak egiteko proposamena helarazi zuen. Zuzendaritzako kideek erantzun zioten, elkarteak ez dela politika egiteko toki bat.

## Azoka eta aisialdi gunea definitzeko bilera bana

I.G. | BERGARA

Pasa den astean, guraso eta hezitzaile asko gerturatu ziren Irizar Jauregian egindako saiora. Haur eta gurasoentzat aisialdi gunearen antolaketa definitzea izan zen saio honen helburua. Horretarako, Bergarako aisialdiak izan beharko lituzkeen ezaugarriak batu, eta hauek aisialdi gunean islatzeko espazioa nolakoa izan beharko lukeen eztabai-datu zen.

Ekonomia lokaleko lantaldea ere, hasi da euren proiektua definitzen. Horretarako eguaztena aukeratu da ekintza desberdinen erakusketa eta salmenta egiteko egun apropos moduan. Asteburuetan ekonomia eta kontsumo eredu berriak bultzatzeko bigarren eskuko produktuen azoka eta truke azoka egitea ere proposatu da.

Bihar, lehen sektoreko lantaldeak bilera egingo du 18:30etan. Hezitzaileen kolektiboko ordezkariak hala eskatuta, hauekin saio berezia egingo da apirilaren 2an, goizeko 10.00etan.

## Abian da Pentekoste jaietako kartel lehiaketa

I.G. | BERGARA

Pentekoste jaiak ate joka datoz eta aurten, ekainaren 6an hasiko dira. Hala, Kultura Sailak, kaleratu ditu Pentekoste jaietako programaren azala egiteko lehiaketaren oinarriak.

Lehiaketan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelak 24 x 34 zentimetroko neurria izan beharko dute, eta formatu bertikala. Kartelak paperean inprimatuta eta kartoizko oinarri baten gainean aurkeztuko dira. Era berean, kartelaren kopia digitala CD batean ere aurkeztu beharko da. Kartelak gainera, 'Pentekoste jaiak 2014 Bergara', esaldia eroan beharko du. Lehiaketako irabazleak 400 euro balio duten bonoak eskuratuko ditu, Bergarako komertzio-guneetan trukatzeko.

Atzealdean lelo bat dutela aurkeztuko dira kartelak. Gutun azal itxi batean leloa kanpoan eta egilearen datuak barruan jarriko dira. Intereza dutenek argibide guztiak [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean aurkituko dituzte.

Karlos Etxaniz | Bergarako Orfeoiko presidentea

## "Datozen urteetarako gure asmoetako bat, neguko kontzertua egonkortzea da"

Orfeoiarentzat 2013a urte borobila izan ostean, 2014a ere antzerakoa izan dadin lanean dihardute

I.G. | BERGARA

Martitzenean egin zuen Bergarako Orfeoiak bere urteko batzarra. Abeslari faltagatik, aurreko urteetan igarotako estatusun uneak atzean utzi eta gero, gaur egun, bertako presidentea den Karlos Etxaniz, abesbatzaren ibilbide eta etorkizunarekin, oso gustura dagoela dio.

### Nolakoa izan da 2013a?

Urte borobila izan da, oso oparua. Lazkaoko abesbatzarekin lortu genuen elkartrukeari esker, urte hasiera polit bat izan genuen. Dena den, 2013ko errokan nagusia Mozarten *Requiem*-a izan zen. Egia da historikoki Orfeoiak beti abestu izan dituela obra handiak baina azken urteetan albo batera utzitako generoa zen hau. Zorionez Oñati abesbatzarekin bat egin, eta hura herrian eskaintzeko aukera izan genuen. Emanaldia izugarria izan zen, San Pedro elizaren irekieran abestu genuen -eta. Lan handia eskatu zigun *Requiem*-ak, baina emaitzak mere-



Karlos Etxaniz. | MONIKA BELASTEGI

zi izan zuen. Horrez gain, herriko beste musika taldeekin egin ohi den Gabonetako kontzertuan ere parte hartu genuen.

### Horrez gain, 2014 honetan neguko kontzertu berri bat ere eskaini duzue.

Lehen Gabonetan egiten genuen emanaldiagatik ordezkatu dugu, eta jendea zerbait originala eskaintzeko asmoarekin sortu genuen Gospel emanaldia. Etxean

izandako arrakasta ez ezik, kanpoan ere gure esfortzuak emaitzak eman ditu. Gure asmoa neguko kontzertu hau egonkortzea da. Udazken honetan, adibidez Gospel emanaldia Zumarragan errepikatuko dugu.

### Orfeoi gaztearen urtea ere horren borobila izan zen?

Esfortzu askoren ostean, Orfeoi gaztea egonkortzea lortu dugu, 2012an Bergarako Musika Eskolarekin lortutako akordio bati esker. Lehen, gaztetxoek Musika eskolako abesbatza utzi eta gero ez zuten jarraitzeko aukera argirik ikusten, orain Orfeoi gaztera saltoa hurbilago ikusten dute. Horrez gain, zuzendari aldaketa bat ere egon da, Alaitz Urkiak ikasturte hasieran zuzendari kargua utzi ostean Nagore Sanzek hartu zuen gure harrobiaren ardura. Hauek ere kontzertu interesgarriak egin dituzte.

### Abeslari kopurua egonkortu da?

Baietz esango nuke, nagusien taldea 40 bat pertsonen osatzen dugu, orfeoi gaztean aldiz, 20 kide ditugu, hala ere, gure ateak zabalik daude. Parte hartu gura duen edozeinek [bergarakoorfeoia@gmail.com](mailto:bergarakoorfeoia@gmail.com) helbidea edo 639 47 18 63 telefonoa erabil dezake.

### Jendeari beldurra kentzeko, ahots bikain bat izatea beharrezkoa da?

Beldur arrunta da hori. Gurea talde bat da, eta abesteko presuntasuna izatearekin nahikoa da. Orfeoiaren taldeen parte izateko, gogoia eta asmoa besterik ez dugu eskatzen.



# Apirila Erramu zapatuaz, musikaz eta antzerki beteta dator

Gure Esku Dago dinamikaren eskutik castellers talde bat ekarriko dute

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Labetik atera berri du apirileko kultura agenda Udalak eta oraingoan ere ekitaldiz gainezka dator. Hala, musika eskolako eskutik *Apirilean musika* egitarauak emango dio hasiera hilabeteari, tartean direla kontzertuak: instrumentu herrikoiak eta klarinete eta saxofoienak bihar; *Basajaun eta Mozolo* ipuina etzi; eta *Musika kalera!* ekimena eguenean. Domekan, ostera, Mikel Markez bakar-lariak *Indar bat dabil hor* diskoa aurkeztuko du.

## Antzerkiak eta ipuinak

Antzerkiari dagokionez hiru ekitaldi izango dira: Ipintza institutuko ikasleek *Litus* lana eskainiko dute zapatuan; Gabriel Aresti eta Zenbat Gara elkarten eskutik *Gabrielen lekua sentikaria* emanaldia izango da apirilaren 25ean; eta Ate Joka teatro taldearekin *Biolin magikoa* 6 eta 12 urte artekoendako, apirilaren 27an.

Ikus-entzunezkoak ere izango dira; Maite Garmendiak eta Beñatek esaterako, *BiziAbentura Hegoamerikan* eskainiko dute eguaztean, udaletzeko pleno aretoan eta Markel Uriartek *Orbea Endu-*



Castellers taldeek egiten dituzten dorre ikusgarrietako bat. | CASTELLERS DE SAN CUGAT

ro Crew bideo emanaldia apirilaren 9an, Zabalotegin.

Ipuin kontaketen tartean, Haur liburuaren nazioarteko eguna dela eta, Maite Franco kontalariarekin solasaldia izango dute gaztetxoek umeen liburutegian. Hileroko kontaketen artean daude *Printzesak*, *munstroak* eta *sorginen bat* Rakel Imazen eskutik apirilaren 25ean; eta *Juicio a los 50* helduendako kontaketa Ines Grimland kontalariarekin hilaren 29an, osoko bilkuren aretoan.

## Erramu zapatuko ekitaldiak

Erramu zapatua ere ate joka dago, eta apirilaren 11n, bezperan, bertsolarien saioa izango da pilotalekuan. Bertan elkartuko dira: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Iker Zubeldia, Amaia Agirre eta Nerea Elustondo. Sarre-rak [www.bergara.net](http://www.bergara.net) eta eta kultur etxean eskura daitezke.

Egunean bertan, apirilak 12, Sant Cugat del Valles herriko Castellers taldeak girotuko ditu kaleak joaldunen laguntzarekin (11:15-12:00). Ondoren emanaldia egingo dute Martinez de Irala eta Irizar Pasealekua elkarten diren plazatxoan; euria eginez gero emanaldi hori pilotalekuan izango da (20:00). Domeka eguerdian ere errepikatuko dute emanaldia Castellers-ek. Zapatu goizean, gainera, Gure Esku Dago gunea ongongo da Martinez de Irala eta Irizar Pasealekua elkarten diren plazatxoan. Ekimenari buruzko informazioa, metroen salmenta eta ezusteko ugari izango dira.

## NIRE USTEZ



MIREN MAIZTEGI

## Udaberria ate joka...

**B**ada urtean, hogeita hiru ordu dituen eguna, atzokoa hain zuzen. Gaur goizean loti xamar esnatuko ginen gutariko asko, baina, kontentutaldi berean. *Equinoccio* delakoa.

Emeki-emeki Marte distiratsu azalduko da ilunabarrean, zuhaitzak loratuko dira, kukua ku-kuka... Energia higikorraz beteriko urtaroa dugu udaberria. Haize, euri, kolore eta usai aldaketek lurrazalaren gainean dagoenaren jaiotza eta berrikuntza dakarte. Gutxi ez balitz, eguzki izpi eta ordu aldaketarekin, gorputzak koska txiki bat jasan dezake Udaberriko Astenia deritzona. Nekea, insomnia, ahultasun fisiko eta emozionala...

Naturari erreparatzen badiogu adibide bitxi bat aurki genezake. Hartz familia batzuek, neguko hibernazioa egin ostean, sustrai jakin batzuk jaten dituzte toxinak kanporatzeko, beraien metabolismoa motela izanik, esnatze prozesua soseguz egiteko.

Guk ere, gure gorputzari bultzadatxo bat eman beharko genioke egokitzapen onuragarria edukitzeko; elikadura osasuntsu, hidratazio eta aire libreko jarduerak egiteko garaia dela baliatuz, geuretzat probetxuzko tarte bat ateratzea ondo legoke.

Negu grisaren ostean udaberri koloretsua eduki degun.

## "Gure gorputzak aldaketa txiki bat jasan dezake; Udaberriko Astenia"

## Mendiko eskiko azken irteera egingo du Pol-Pol Mendi Taldeak

Apiriaren 5-6ko asteburuan egingo dute. Panticosa-Wallon refugioa-Panticosa itzulia egiteko asmoa dute - zapatuko gaua refujioan igarota-. Interesatuek elkarteak pilotalekuan duen egoitzan eman dezakete izena, apirilaren 2a aurretik. Interesa dutenek informazio gehiago <http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=324296> webgunean topatuko dute.

# Bertako euskara ikastaroak izango dira maiatzean

Bestalde, 2013/14 ikasturtean euskara ikasi zutenendako dirulaguntzak deitu ditu Udalak

I.G. | BERGARA

Berba egiterakoan umeek eta helduek egiten dituzten akatsik ohikoenak lantzeko bertako euskara ikastaroak izango dira maiatzean, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Udal Euskaltegiak antolatuta, Jardunekin elkar-lanean. Ikastaroek bi helburu nagusi dituzte: alde batetik, guraso, zaintzaile, begirale, entrenatzaile eta abarri euren hizkuntza-akatsak zuzentzen laguntzea; eta, bestetik, umeen akatsak zuzentzeko helduak erabil ditzaketen estrategia eta lagungarriak eskaintzea.

Ikastaroa maiatzean izango da eta 10 ordukoa izango da, ordu eta erdiko saioetan banatuta. Aurretik ere halako ikastaroak egin izan direnez, oraingoan hasierako edo jarraipene-ko ikastaroa egin ahal izango da, betiere, gutxienez, zortzi lagunek taldeak osatzen badira. Informazio gehiagorako edo izena emateko, Udal Euskalte-

gira deitu (943 76 44 53) edo [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunean ipini duten Word fitxa bete eta Udal Euskaltegiara eraman. Ikastaroan parte hartzeko matrakula 10 eurokoa izango da, eta izenemate epea apirilaren 11an bukatzen da.

**Hiru motatako dirulaguntzak** 2013/14 ikasturtean edo 2014ko udan egindako euskara ikastaroengatik dirulaguntzak jasotzeko aukera dago. Horretarako eskaerak irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Udaleko erregistro orokorrean.

Hiru motatako dirulaguntzak daude: Bergarako Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasten dutenentzako dirulaguntza; Udako Euskal Unibertsitatean (UEUn) parte hartzen dutenentzako; eta, azkenik, UNEDeko Idazle Eskolak antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzen duten bergararrendako dirulaguntzak.

# "Inposatutakoari men" egin dio Bilduk, EAJren arabera

Espainiako bandera "helegiterik aurkeztu gabe" ipini izana leporatu dio EAJk udal gobernari

I.G. | BERGARA

Epailearen aginduz eta legeak hala behartuta, Espainiako bandera txiki bat udaletxean ipini zuen Udalak. Horri erantzun dio EAJk prentsa ohar baten; "helegiterik aurkeztu gabe eta inposatutakoari men eginez" hala egin izana aurrepigaritu dio Bilduri, eta Udaleko ordezkari politikoen gehien-goak Espainiako bandera arbuia-tu eta "gurea ikurrina dela" agerian jartzeko plaka bat ipintzeko mozioa jarriko duela esan du.

EAJk dioenez, "Espainiar estatuak Bergarako Udala espainiar bandera jartzera behartu du eta Bildu-Aralarrek inposaketa hau onartu dute naturaltasun osoz inolako protestarik egin gabe". Gaineratzen du EAJren "bandera bakarria ikurrina izan dela eta hala izaten jarraituko duela".

## "Non dago desobedientzia?"

Honela jarraitzen du oharrak: "Gerra zibilean gudari askok eman zuten bizia ikurrinaren eta Euskal

Herriaren alde eta tartean bergarar asko zeuden. Familia ugari jasan zituen mehatxuak, bortxaketak, gabeziak, nekeak eta espetxea ikurrina eta askatasuna defendatzeagatik eta espainiar bandera arbuia-tzeagatik. Zenbaitek perspektiba historikoa galdu egiten duenez, Bergarako EAJ-PNVk, belaunaldietan gure ikurrinaren inguruan gertatutakoak gogora arazi nahi ditu, gogoan baititugu oso urrun ez dauden urte haiek, non ezker abertzaleak *PNV español* esaten zigun epaitegietatik zetozen erabakiak onartzeagatik, orain beraiek egingo duten bezalaxe. Non dago orain ezker abertzalearen desobedientzia zibila? Orain ezker abertzalea gure udalaren gobernuan dagoelako ez al da tokatzen?"

Gogora ekartzen du orain hilabete batzuk bandera jartzeko agindua jaso zuela Udalak -orduan 55 herrialdeetako banderak ipini zituen- eta "helegiterik aurkeztu gabe" bete zuela epaia.

# Lana eta lanpostuak sortzeko laguntzak

## Formazio eta lokalez gain, diru laguntzak ere jasotzen ditu udalbatzak onartu duen arautegiak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Enpresa berrien sustatzaileei eta mikroenpresa eta enpresa txikiei herriko langabetuak kontratatzeagatik Udalak emango dituen laguntzak arautzen dituen araudia onartu zuen, aho batez, osoko bilkurak egunean egindako osoko bilkuran. Laguntza horiek jaso ahal izango dute, batez ere, Oñatin egoitza eta jardun eremua duten pertsonak eta enpresek.

Laguntza horiek jasotzeko bete beharreko baldintzak ere jasotzen ditu araudi horrek. Esaterako, 50 langile baino gutxiago dituzten herriko enpresak izango dute diru laguntza Oñatiko langabetu bat kontratatzeagatik.

1.000 euroko laguntza izango da hori eta langabetuaren ezaugarriak kontuan hartuta, laguntza gehigarriak izango dira. Emakumea bada, esaterako, laguntza 1.300 eurokoa izango da.

Bestalde, enpresa berrien proiektuak egiteko ere egongo da diru laguntza; 300 euro eta 900 euro arteko laguntza, hain zuzen ere, enpresa motaren arabera. Enpresa sortu ostean, 1.000 euroko laguntza jasoko dute sortzen duten lanpostu bakoitzeko. Aktibitatea lehen sektorekoa bada, 3.000 eurokoa izango da laguntza ekonomiko hori.

Laguntzak eskatzeko epea abenduaren 15 Enplegu bulegoan

eskatu daiteke honi buruzko informazioa.

### Auzo alkate berriak

Lezesarri eta Uribarri auzoetako alkate berriak ere onartu zituen udalbatzak eguneneko osokoan. Baita herriko bederatzi eragilek Eteoko lokalak erabiltzeko hitzarmena ere. Bestalde, Guardia Zibilak Ceutan izandako jarrera ere gaitzetsi zuen udalbatzak, mozio bidez. Mungiako hilketaren eta dispersioaren aurka ere egin zuten udal ordezkariak. Horri lotuta, elkartasuna adierazi zioten preso bat bisitatzera zihoala istripua izan zuen Susana Uribeberria herritarrari.



Olaburu zentroan daude zerbitzu eta tailerretarako lokalak. | O.E.

## NIRE USTEZ

GORETTI  
MADINA



## Bitartekaritzaren aukera

Oraindik berria dugun arlo zibil eta merkataritzako bitartekaritza legeak, arazoaren konponbide bidean murgilduak bizi garen asko, bitartekari trebakuntzan konprometituaz gaitu. Bitartekaritza prozeduran, arazo bate-

tan nahasia dagoen orok, gatazkaren alderdien erabaki aske batez, partekatu dezakete beraien eztabaida, menpekotasunik gabeko bitartekari inpartzial baten laguntzaz, arazoa duten partaideek beraiek proposatuko duten aukerak aztertu eta beraiek ontzat emango duten akordio betearazlea hautatuz, arazoaren irtenbide gisa.

Bitartekaritza, arazoaren konponbide alternatibo bezala, erakargarria da oso, arlo ezberdinetan: enpresagintzan, familian, bizilagun edo auzo elkartetan, arlo penalean, hezkuntza arloan, lan esparruan...

Egungo gizartea geroz eta pluralagoa da. Eta egia bada ere ezberdintasunaren errespetuan hezten ari garela, era berean, arazoak ukaezinak eta neurri batean naturalak direla esan dezakegu.

Baina, "gizartearen osasuna" edo elkarbizitza oreka, gatazken kopuruan baino, berauek konpontzeko gaitasunean dihardu.

Eman dezakedan iritzi apaletan, ziur nago gure gizartea elkarbizitzan helduagoa den neurrian, heziketa medio, bitartekaritzak izango duela garrantzizko esparrua.

## Udaleku irekietako izenematea, zabalik

O.E. | OÑATI

Ekainaren 30etik uztailaren 24ra izango dira aurtengo udaleku irekiak, Txatxilipurdik antolatuta, eta izenematea zabalik dago. Egubakoitzera arte, apirilak 4, egongo da zabalik. 2004tik 2010era bitartean jaiotako neska mutikoei zuzendutako udalekuak izango dira. Matrikula da 70 euro umeko.

### Eguerdian ere zaintza

Aurtengo udalekuetako berri-kuntzetako bat da eguerdian

ere egongo dela zaintza zerbitzua. Udalekuak 10:00etatik 13:00etara izango dira Eteon eta bi zaintza zerbitzu egongo dira: 08:30etik 10:00etara eta 13:00etatik 14:00etara. Zaintza bat aukeratuz gero, 45 euro ordaindu behar dira, eta biak behar izanez gero, 75 euro.

### Begiraleak

Bestalde, apirilaren 7tik 16ra egongo da zabalik aurtengo udalekuetan begirale izateko izenematea.



Azken udalekuetan egindako lanak. | O.E.

## Udaberri Gorria aurkeztu du Oñatiko Ernaik

O.E. | OÑATI

Apirilaren 17tik 20ra egingo diren Gazte Burutakzio topaketetan parte hartzeko deia egin du Oñatiko Ernaik. "Gazteok burujabe bihurtzeko bidean, bestelako ekintza eredu baten alde lan egin nahi dugu. Horretarako, Oñatiko gazteri osoari topaketa horretan joateko deialdia egiten diegu", adierazi zuen Oñatiko Ernaik egubakoitzean kale Zaharreko plazatxoan egin zuen prentsa aurrekoan. Bi bideo ere proiektatu zituzten bertan.

### Burujabe

Oñatiko Ernaik orain arte egindako ibilbidea aipatuz hasi zuten prentsa aurrekoa: "Urte honetan, Euskal Herri mailan zein Oñatin, Euskal Herri aske, sozia-

lista eta feminista eraikitzeko bidean gazte boterea sortzen aritu gara. Orain, gazteok gure bizitzaren jabe bihurtzea helburu duen kanpaina aurkezte- ra gatoz". Ernaiko kideek adierazi zuten, "sistema kapitalista eta patriarkalak gazte burujabeak nahi ditu". Horren aurrean euskal gazterik alternatibak eraikitzeko gai izan direla esan dute, eta "burujabe bihurtzeko bidean bestelako bizitza baten alde lan egin gura" dutela gaineratu.

Topeketara joateaz gain, maiatzaren 3an Bilbon egingo den mobilizazioan ere parte hartzeko deia egin dute. Autobusak eta sarrerak batzen dituen txartelak Arranon daude salgai 30 eurotan.



Egubakoitz iluntzean eman zuten prentsa aurrekoa. | O.E.

## ARETXABALETA

## Ikurrina omenduko dute espainiarra badatorrelako

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaleto udalaxean ere Espainiako bandera jarri beharko dute. Hala jakinarazi diote Espainiako Gobernuaren ordezkariak egindako errekerimenduen eta 696/2013 epaiaren ondoren. Hala, apirilaren 14rako bandera jarrita izan beharko du.

Epai horren aurrean, Udalak ondorengo adierazpena helarazi gura die herritarrei: "Herriak aukeratu dituzte bere ikurrak, bereak egiten ditu, eta horregatik dira herriaren ikur. Aldiz, legearen indarrez inposatuak badira, orduan inposizioaren ikur bihurtzen dira. Aretxabaletan ikurrina gure banderatzat dugu". Eta gaineratu dute neurri horrek aretxabaletarren borondatearekiko "errespetu falta" adierazten duela, eta "askatasunez erabakitze eskubidearen ukapena". Eta jakinarazi dute: "Ez ditugu banderak eta koloreak gutxienesten. Are gehiago, ordezkatzeko dituzten lurraldeetako ikur

izatea zilegi dela deritzogu argi eta garbi. Baina, era berean, argi dugu nongoak garen eta zerk ordezkatzeko gaituen".

"Gure nortasuna eta gure izatea ukatu nahi dutenen aurrean", herri gisa erantzutea "ezinbestekoa" dela jakinarazi dute, eta herritar guztiei dei egin die etxeetako leiho eta balkoietan ikurrina zintzilikatzeko apirilaren 3tik 13ra bitartean (Arkupen jarriko dituzte salgai) eta ikurrina omentzeko ekitaldietan parte hartzeko.

### Apirilaren 11n omenaldia

Ekitaldiak apirilaren 3an hasiko dituzte, zinegotzi direnek eta aurretik izan direnek prentsaurrekoa eginda.

Eta ikurrinari omenaldia apirilaren 11n egingo diote: udalaxeko fatxadaren plaka bat jarriko da eta ondoren ikurrina berria altxatu; ikurrinari dantzaren egingo diote gero, eta bukatzeko mosaikeko bat osatuko dute.

## Gogotsu jardun dute karta jokoan aste bukaeran

M.A. | ARETXABALETA

Debagoieneko erretiratuen elkarte arteko mahai-joko txapelketa jokatu zuten Basotxon egubakoitzean. Bederatzi elkartetako ordezkariak elkartu ziren eta hona norgehiagoka gogorren ostean txapeldunak: billarrean, Arrasateko Anton Herrarte; puntotan, Antzuolako Juanita Zabalo eta Pilar Agirrezabal; briskan, Bergarako Asun Fernandez eta Elisa Garmendia; tutean, Arrasateko Irene Prieto eta Margarita Perrino; eta musean, Aretxabaleto Agustin Aginagalde eta Manolo Lopez.

Bestalde, zapatuan Aretxabaleto elkarte arteko mus txapelketa jokatu zuten Muru Alden. Txapeldunak izan ziren Iturbe eta Errasti (Uratz-Alde) eta txapeldun-ordeak Lazaro eta Gonzalo (Basotxo).



Erretiratuak jokoan Basotxoko egoitzan. | M.A.



Elkarte arteko finaleko txapeldunak txapeldun-ordeen artean. | UNAI BENGOA

## ESKORIATZA

## Ikastaro asko egingo dituzte Osasun Astean

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Hitzaldiak, mendi irteerak, dantza saioak, antzerkiak eta beste hainbat ekitaldi izango dira datorren astean hasita Osasun Astearen barruan. Baita ikastaroak ere, eta horietarako izen-emate epeak zabalik daude.

Apirilaren 8an, martitzena, desfibriladorea erabiltzen irakatsiko dute DYAKO ordezkariak. Kirol elkarteetako kideei eta kirolari zuzenduta dago eta bi orduko saioa izango da kultur etxean. Izen-ematea zabalik dago apirilaren 4a arte kiroldegian: [kirolak@eskoriatza.net](mailto:kirolak@eskoriatza.net) edo 943 71 53 28. Eta apirilaren 10ean, lehen sorospen ikastaroa izango

da; goizean teoria eta arratsaldean praktikak. Izena emateko Huhezira idatzi: [kirolak.huhezi@mondragon.edu](mailto:kirolak.huhezi@mondragon.edu).

### Barreterapia eta sukaldaritza

Eguaztenean, apirilak 9, barreterapia tailerra egingo du (gaztelaraz) Pánico escénico taldeak Huhezira.

Eta apirilaren 10ean zelan antolatu afori natural eta energetikoak aste guztirako tailerra egingo dute Olazar erretiratuen elkarte sukaldetan (gaztelaraz); prezioa, 15 euro. Izena kiroldegian eman behar da bietarako: [kirolak@eskoriatza.net](mailto:kirolak@eskoriatza.net) edo 943 71 53 28; azken eguna apirilaren 8a.

## Hasi dira 'Bat ekarri, bat eroan' azoka gertatzen

M.A. | ESKORIATZA

Azken urteotan legez *Bat ekarri, bat eroan* liburu azoka antolatu du Udalak irakurzaletasuna bultzatzeko asmoarekin. Apirilaren 11n, egubakoitzean, izango da, eta hasi dira ordurako liburuak jasotzen. Ohi legez liburuok bibliotekara eramane behar dira eta bakoitzarengatik txartel bat jasoko dute eramaileek, gero azokan beste liburu bategatik trukatzeko. Testuliburuak izan ezik, edozein eraman daiteke, hala nola, ipuinak, eleberriak, olerkiak edo sukaldaritza liburuak. Hona bibliotekako ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-20:00 Azken eguna apirilaren 9a da.

### 'Zu be irakurle!'

Apirilaren 11n, gainera, *Zu be irakurle!* irakurraldi publikoa egingo dute. Edonork izango du aukera gustuko duen liburu pasarteren bat irakurtzeko; irakurketa hori euskaraz, gaztelaraz edo nahi den hizkuntzan egin ahal izango da. Horretarako aurrez eman behar da izena bibliotekara: [biblioteka@eskoriatza.net](mailto:biblioteka@eskoriatza.net) edo 943 71 31 35.

Egun horretan, gainera, *Ezagutuz ulertu eta ulertuz maitatu* lehiaketaren sariak banatuko dituzte. LHko 6. mailako ikasleentzat antolatu da, eta aitona-amonon bizitzak ezagutzeko lanak aurkeztuko dituzte bibliotekara. Azken eguna apirilaren 5a da.

## ARETXABALETA

## OHARRAK

### AUTOBUS ZERBITZUAREN GAINEKO BILERA GAUR

Autobus zerbitzua hobetzeko bilera egingo dute gaur, Arkupen (18:30).

### PODOLOGIAREN GAINEKO BERBALDIA BASOTXON

Done Larrea aretxabaleto podologiaren gaineko argibideak emango dizkie Basotxoko erretiratuei bihar, apirilak 1, egoitzan bertan (17:30).

### TXERTOEN GAINEKO BERBALDIA EGUAZTENEAN

*Txertoei buruz zientziatik hitz egin dezagun* hitzaldia eskainiko dute Arantza Landaluze erizainak eta Rosa Sancho osasun publikoko ordezkariak eguaztenean, apirilak 2, Arkupen (17:30).

### 1972AN JAIOTAKOEN KINTO BAZKARIA

1972an jaiotakoek bazkaria egingo dute apirilaren 5ean, Apotzagako elkartearen. Izena emateko Urbaltz tabernara joan behar dute eta 10 euro ordaindu; azken eguna, eguaztena.

## NIRE USTEZ

NESTOR ARANA



## Barne produktu gordina

Gaur egun historian egon den momentu berezi batean gaudela esaten da. Historian aurretik egon izan dira momentu berezirik. Orain dela 12.000 urte, neolitikoan gertatu zen. Aurretik, milaka urtetan, gizakia ehiztaria izan zen, naturak ematen zionarekin bizi zen. Neolitikoan aldiz, lurra eta animaliak kudeatzeko gaitasuna garatu zuen. Ondorioz, naturatik janari eta baliabide gehiago eskuratzeko ahalmena lortu zuen. Naturan zuen eragina ere handitu egin zuen.

Petrolioia egiptiarrek era-

biltzen zuten arren, joan zen gizaldiaren hasieran, industria aroarekin bat, kontsumoa handitu zen. Urte gutxitan, aldiz, dauden eta daudela estimatzen diren erreserben erdiak kontsumitu ditugu. Horretaz gain, naturari gehiago eskatu eta gehiago eragiten diogu.

Munduko Barne Produktu Gordina (BPG) petrolioaren ekoizpenarekin loturik dagoela esaten da. Honek badu bere zentzua, azken finean, lur azpian metatuta zegoen energia beltzaren ondorioz baliabide gehiago lortzeko gaitasuna handitu dugu.

Beraz, BPG handitzeak, naturari gehiago eskatzea esan nahi du, natura eta gizakiaren arteko harremanean tentsioa handitzea. Ikuspegi historiko hau edukita, nire ustez naturarekin dugun harremana modu orekatuago batean antolatzeko eredu berriak aurkitu eta garatu beharra dugu.



MARIMAR AREVALO

## Aspaldiko partez elkartu dira

Bazkaria egin zuten 1972an jaiotakoek Txalaparta jatetxean, martxoaren 22an. 27 lagun elkartu ziren eta jakinarazi dute kinto izan zirenetik lehenengoz elkartu direla; neskak nagusi izan ziren, gainera, 22 guztira. Aspaldian elkartu barik gustura jardun zuten kontu kontari.



Elgetako udalbatza martxoko osoko bilkuran. | LZ

**ELGETA**

## Herritarrak informatzeko batzarrak, bihartik aurrera

Bost bilera deitu dituzte aste honetarako; deituta daude 66 atariko bizilagunak eta baserritarrak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

"Orain herritarrekin batzarrak egitea eta informatzea tokatzen da", esan zuen martxoko osoko bilkuran EH-Bilduko Janire Lazkanok. Eta zabaldua dago herrian batzar horien egutegia. Aste honetarako, bost bilera deitu dituzte, eta 66 atariko zein baserrietan bizi diren elgetarrak konbokatuta dituzte.

Batzarrak lotuta daude ekainaren 22rako Udalak deitu duen herri kontsultarekin. 18 urtetik gorako elgetarrak deituta daude hondakinak biltzeko talde politikoek adostu duten sistemarekin ados dauden edo ez esatera. "Batzar horietan azalduko dugu herritar bakoitzari, eta bizi den lekuaren arabera, zein ekarpen gunetan tokatzen zaion bere hondakinak sailkatuta botatzea", aurreratu du Oxel Erostarbe alkateak. Egun-

go bilketa datuak eta sistema berriaren inguruko azalpenak ere emango dituzte. Kontsultaren inguruan ere informatuko dute.

**Ekarpenak egiteko aukera**

Udaletxetik adierazi dutenez Aste Santu aurretik lehenengo bilera batera deituko dituzte herritar guztiak. Planteamendua aurkeztuko zaie, eta herritarrek ekarpenak egiteko aukera izango dute. Ekarpene horiek aztertuko ditu ondoren Udalak, eta bigarren bilera batera deituko dituzte herritarrak maiatza eta ekaina artean. "Denon artean, elkarri lagunduz eta denon iritzia eta ekarpenak kontuan hartuz sistema honek ahalik eta emaitza txukunena ematea daukagu helburu", esan zuen udalbatzan EH-Bilduko ordezkariak.

**LEINTZ GATZAGA**

## Datorren astean bisita gehiago izango ditu Leintz Gatzagak

Museoa, Jakion eta herria bera ikustera joango dira, besteak beste, elgoibartar neska-mutikoak

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udaberriarekin batera, Eugenio Otsoa Gatz Museoa eta oro har, Leintz Gatzagak dituen gainontzeko altxorrek ikusteko bisitak ugaritzen hasi dira. Orain bi aste, esaterako, Arrasateko eskola publikoko ikasleak izan ziren Gatzagan; joan den astean, berriz, Bergarako San Martin Eskolako

10-11 urteko neska-mutikoak; eta oraingo astean, berriz, Elgoibarko ikastolako 9-10 urteko bi ikasle taldek dute hitzordua: bihar, martitzena, bata eta eguenean, besteak. Haien museoa bera, Jakion eta udalerria ikusteko ibilbidetxoak egingo dute. Eta haien gidari jardungo du Debagoieneko Mendi Nekazaritza elkartearen

### INFORMAZIO BILERAK ATARIKA

**APIRILAK 1**

**18:00** Salbador kaleko 11, 13, 15, 17, 17Bis, 19; Gudarien bideko 6 eta 7; eta San Roke kaleko 2, 4, 6, 8, eta 10. Euskaraz.

**19:30** Salbador kaleko 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 16, 20, 21, 22, 24, 26, 28; Torrealdeako 1, 2, 4, 5; Salbador zeharbideko 1, 2, 4, 5; eta Lasao kaleko 1, 2, 4, 6. Euskaraz.

**APIRILAK 2**

**18:30** Andra Mari plazako 1, 2, 3; Artekaleko 1, 4, 5, 6; Mendizaleen plazako 2, 3, 4; eta San Roke kaleko 1, 3, 5, 6, 7, 9, 11, 14, 16, 18, 20. Euskaraz.

**19:30** Auzo guztietako baserritarrak. Euskaraz.

**APIRILAK 5**

**10:30** Gaztelera, herritar guztiendako.

bitartez joango den Landatur zerbitzuko langile batek, eta baita Udaleko beste batek ere.

**Bake epailea, barikutan**

Bisita horien abiapuntu, normalean, Eugenio Otsoa Gatz Museoa izaten da. Aste barruan talde-bisitak egiten dituzte bakarrik, aldez aurretik abisatuta. Interesa duenak honako telefonora deitu beharra dauka txanda hartzeko: 943 71 47 92. Asteburuan, berriz, interesa duen edozeini zabaltzen die aukera, aldez aurretik abisatu barik, eta gainera, bi hitzordu eskaintzen ditu: 12:00etan bisita euskaraz egiteko, eta 13:00etan, berriz, gaztelera.

**ARAMAIO**

## Apirilaren 4a baino lehen eman behar da izena Sarriako barnetegirako

LHko ikasleek bertso abentura ederra bizi izateko aukera izango dute apirilaren 22tik 24ra

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako Bertsozale Elkartearen proposamenarekin bat eginez, Zuiako Koadrilako ikasleendako bertso barnetegia egingo da aurten ere, apirilaren 22tik 24ra. Aurten, Murgian (Araba) dagoen Sarriako Goikuria aterpetxera joango dira Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleak -3. mailatik 6. mailara arte.

Argia da helburua, antolatzailerik diotenez: "Barnetegiko begiraleak modu ludiko baten saiatzen dira bertsolariak haurrengana hurbiltzen. Hau da, helburua ez da aterpetxetik bertsolariak ateratzea, baizik eta bertso-zalatasuna zabaldu eta umeek ondo pasatzea, bertsolariaren teknikarik oinarritzkoenekin".

**Euskara normalizatu guran**

Horrez gain, antolatzailerik diote euskararen normalizaziorako "ekimen interesgarria" dela: "Euskararen normalizaziorako eta eskualdeko herri ezberdinetako haurrak gunen jakin baten elkartzeko ekimen interesgarria da. Haurrak elkartzen dira beste arrazoi batzuk direla-eta, baina ahozko euskara eta bertsolariak elkartzeko aitzakia izatea oso interesgarria da".

Izena emateko azken eguna egubakoitza izango da, apirilak 4. Zuiako Koadrilaren bulegoetan edo Udalean eska daiteke izena emateko orria. Informazio gehiagorako, 945 43 01 67 telefonora deitu edo [euskara@cuadrillazuia.com](mailto:euskara@cuadrillazuia.com) helbidera idatzi. Prezioa 45 euro da.

## Txirritola euskara elkartearen ipuin lehiaketan 92 lan aurkeztu dituzte, eskolako ikasleek gehienak

Txirritolaren ipuin lehiaketarako izen-ematea itxi ostean, antolatzailerik jasotako lanen berri eman dute: 92 dira, guztira, ikasleek gehienak -helduen artean lau ipuin besterik ez da jasotako ipuin kopuruarekin pozik daude Txirritola elkarteak, baina helduen artean jende gehiago erakartzea gustatuko litzaieke. Sariak maiatzaren 9an banatuko dira, kultura etxean (18:30); Zirika Zirkus antzerki taldekoen emanaldi batekin hasiko da ekitaldia. Gero, irabazleei banan-banan banatuko zaizkie sariak, eta, amaitzeko, talde argazkia aterako dute.

**ANTZUOLA**

## Udalak positiboki baloratu du 'Torturaren asteak' izandako harrera

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

"Urte askoan ezkutuan mantendu da torturaren errealitatea eta hau antzularrei helaraztea garrantzitsua izan da", azaldu digute Udaletik.

"Kontuan izanda antzular batzuek ere tortura beraiekin haragietan bizi zutela, bada garaia egia osoa jakinarazi eta honen aitortzari bidea egiteko", azpimarratu dute.

**Parte-hartze ona**

Amaia Esnalek egindako hitzaldian hogeitaz hamar inguru batu zen. Izan ere, *Oso latza izan da. Tortura Euskal Herrian* liburuaren aurkezpena ezin izan zuen egin Julen Artzuagak Legebiltzarrean batzordea zuelako. Esan beharra dago oñatiarrek eginiko dokumentaleko testigantzek bati baino gehiagori zirrara eragin ziotela.



Amaia Esnal, Olanaren egindako solasaldian. | PATXI OLABARRIA

# Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko martxoko zozketetako irabazleak



**HARREMAN DEND**ari esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra

**Miren Abarisketa Arriaran (Arrasate)**



**Bizi Birzi eta Badakit** umeentzako joko pack bat

**Jose Antonio Auzmendi Aierbe (Arrasate)**



ARRASATEKO  
HIPERMERKATUA

**EROSKI**  
zurekin

**Arrasateko Eroski Hipermerkatuak emandako telebista**

**M. Eugenia Aranburu Arregi (Oñati)**

#### SARIAK JASOTZEKO:

**Harreman dendako otarra.** Harreman Dendak Arrasateko Eroski Hipermerkatuan dagoen dendan jaso behar da.

**Beste sariak.** Jaso itzazu GOIENAREN Aretxabaletako bulegoan.

Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman behar da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05

Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 17:30. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# KIROLA

GORLAKO 40. IGOERA

## Gorlako azken zuzenean eraso gogorra jota, Arnau Solerendako txapela

- Kataluniarra bigarren izan zen iazko lasterketan
- Bailarako hiru ziklista azkarrenen taldean

XABIER URZELAI | BERGARA

Lasterketa hasi zutenetik, Arnau Sole-k (Caja Rural) begi bakarra izan zuen errepidea zaintzeko. Beste begiak nahikoa lan zuen garaipenerako favorito zen Marc Sole (Lizarte) jarraitzen. Kataluniarrak obsesio horrekin egin zituen lasterketako 89 kilometro, baina Gorlako azken kilometroan (90 kilometro dira), paella atzean utzi eta zuzen gogorrean Sole-k makal ikusi zuen Soler: "Ez doa eroso", pentsatzeaz batera jabetu zen indartsuago zeudela beste batzuk, tartean, igoera osoan lan handia egin zuen Imanol Estevez (Zirauna) arabarra.

Orduan hasi ziren tropeleko oilarrak mokoka, azken kilometro horretan indartsu nor zegoen ikusteko eraso saiakerak egin. Etxafuegoak, azken batean, irabazleak Gorlako gaineratik 600 metrora benetako tiroa jo zuen arte. Alvaro Trueba (Baque Campos) berehala itsatsi zitzaion gurpilera, eta biek lortu zituzten 30 metro: "Hor Alvaro ostera erasotzea erabaki dut, indarririk ba ote zuen ikusteko. Ahalegin betean nindoala atzean geratzen zela ikusi dut, eta hor psikologikoki hondoa jo du, seguru; hortik aurrera ez dut burua altxa ere egin, helmugara arte".

Egia esan, atzokoa ez zen izan begi bakarraz lehiatzeko lasterketa, inoiz baino eroriko gehiago

izan zirelako, haize gogorraren eraginez baino, hasieratik tropelean egon zen urduritasunagatik. Urduri egote horrek, baina, ez zuen egin azkarrago joatea, eta lehenengo igoera iaz baino mantsago egin zuten ziklistek.

Aipatu moduan, Soler zen favoritoa, eta haren taldekide Lizartekoek lan egin behar izan zuten Gorla hasi baino lehenago, ihes egindako taldetxoak tarte txikia izan zezan. Mendate erdi inguruan harrapatu zituzten ihes egindako horiek, eta 25 laguneko

taldetxoak ia batera egin zuen igoera guztia. Hala, erritmoari eutsi zioten, azken paellaraino, bailarako Jokin Etxabek (Debarrena), Eneko Lizarralde (Gipuzkoa) eta Iker Eskibelek (Zirauna), baina, ez zuten azken kilometroko borroka erabakigarrian sartzeko aukerarik izan. 51 segundora helmugaratu ziren hirurak.

Ordurako, Sole garaipenaz gozatzen zegoen, abizen ia berdina duen ziklistari protagonismo guztia kendu ostean.



Indartsuenen artean, Lizarralde (127) eta haren aurrean Eskibel. | X.U.



Ziklistak Gorlako gaineratik egindako lehenengo itzulian; iaz baino lasaiago joan zirela aitortzen da. | X.U.



Imanol Estevez (Zirauna), metro erabakigarrietan lanean. | X.U.

ARNAU SOLE | CAJA RURAL TALDEKO TXIRRINDULARIA

## "Marc Soler bestetan baino makalago ikusi dudanean..."

lazko Gorlako Igoeran bigarren sailkatu zen Caja Rural taldeko Arnau Sole (Agramunt, 1992). Orduan Cristian Cañada gailendu zitzaion, baina ziklista kataluniarrak atzo ez zuen langan jo, denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuen (2:25:35). Eta bide batez, aurrekoan Urretxun gertatutakoaren ostean arantza atara ahal izan zuen. Amets bakarra du, datorren denboraldian Caja Ruraleko talde profesionalera salto egitea. Eta duda barik, atzoko lorpena bultzada handia izango da.

### Bazen garaia irabazteko.

Ordua zen, bai! Urretxuko lasterketan bakarrik geratu nintzen kilometro baten faltan, eta errotonda batean nahastu egin nintzen, eta harrapatu egin ninduten. Orduan Marc Solerrek irabazi zuen esprintean, eta ni bosgarren izan nintzen. Gaur, berriz, Soler zen favorito nagusia, eta beste askok moduan, gertutik jarraitu dut kontrario gogor hori. Azken

**"Caja Ruralek badu profesionaletan taldea, eta hori da helburua"**

kilometroan, baina, ez dut bestetan bezain indartsu ikusi, ez zihoan fin, eta haren eraso baten zain egon beharrean, erasotzea erabaki dut.

**Taldean igo zarete goraino, eta azken kilometro horretan gutxi batzuk geratu zarete talde-buruan.**

Sei bat lagun geratu gara, eta nik taldekide bat nuenez (Cristian Rodriguez), haren atzetik joan naiz metro batzuetan. Kilometro

baten faltan hainbat eraso saiakera izan dira, tartean nik ere jo dut batenbat, eta hor, Soler ez dut baten ondo ikusi. Eraso gogorra jo dut, baina Alvaro [Trueba] nirekin etorri da; zorionez, hura ere atzean utzi dut.

**Garaipen garrantzitsua, iaz bigarren egin zenuen, aurten lehenengo izan zara.**

Bai, garaipen garrantzitsua da, zalantza barik. Gure taldeak badu gorago maila profesionalen dagoen taldea, eta datorren denboraldira



begira bertara saltoa ematea da helburu nagusia. Horretarako, gaurkoa moduko garaipenak garrantzitsuak dira.

## 26 | SASKIBALOIA | MUK esku-eskura du EBArako igoera fasea



tu zigiten protagonistek. | JOSETXO ARANTZABAL



**BOLINTXO OKI**  
www.lokatza.co



Sole, helmugara sartzen. | J.A.



Sari banaketa ekitaldian Lokatzakoak eguneko protagonistekin. | T.MADINA

## ESANAK

**"Ziklista gutxirekin etorri gara, baina lan ona egin dugu"**

JON ODRIOZOLA | ZUZENDARIA

**"Gorla hasieran erasotu dut, baina azkarregi zen oraindik"**

ENEKO LIZARRALDE | GIPUZKOA

**"Iazkoaz alderatuta, sentsazio hobekak izan ditut gaur"**

IKER ESKIBEL | ZIRAUNA

**"Gazte mailatik hona salto handia dago, gogorra izan da"**

JULEN IRIZAR | DEBABARRENA

**"Ererikotik banabil sentsazio onak erreperatzen"**

BEÑAT ETXABE | DEBABARRENA

**"Indarrez nindoan, baina azken kilometroan..."**

JOKIN ETXABE | DEBABARRENA

## SAILKAPENA

1. Arnau Sole (02.25.35)
2. Alvaro Trueba (6 segundora)
3. Imanol Estevez (13ra)
4. Marc Soler (13ra)
5. Txomin Juaristi (13ra)
6. Cristian Rodriguez (13ra)
7. Alain Santamaria (27ra)
8. Jorge Arcas (27ra)
9. Eduardo Armengol (27ra)
10. Cristian Rios (37ra)
11. Egoitz Fernandez (48ra)
12. Alain Gonzalez (51ra)
13. Jokin Etxabe (51ra)
14. Adrian Gonzalez (51ra)
15. Eneko Lizarralde (51ra)
16. Carlos Jimenez (51ra)
17. Elias Vega (51ra)
18. Conzalez de Campo (51ra)
19. Iker Eskibel (51ra)
20. Albert Ruiz (51ra)
21. Joseba Medina (1.04ra)
22. Ander Plazaola (1.04ra)
23. Josu Angoitia (1.12ra)
24. Diego Noriega (1.30era)
25. Imanol Lafuente (1.46ra)
26. Xabier Goikoetxea (1.49ra)
27. Alberto Lucas (1.55era)
28. Javier Martin (1.55era)
29. Ruben Sanchez (2.00ra)
30. Odei Juanjo (2.16ra)
31. Iker Azkarate (2.16ra)
32. Aitor Morales (2.16ra)
33. Beñat Etxabe (2.30)
34. Marcos Rojo (2.30)
35. Julen Amezketa (2.44ra)
36. Xabier Bengoetx. (2.56ra)
37. Iban Gartzia (2.56ra)
38. Cesar Cruz (2.56ra)
39. Ander Barrenetx. (2.56ra)
40. Francesc Zurita (2.56ra)
41. Pablo Noriega (2.56ra)
42. David Cuervo (2.56ra)
43. Julian Barrientos (2.56ra)
44. Josu Urrestarazu (2.56ra)
45. Josep Maria Arna. (3.03ra)
46. Jose Cobos (3.34ra)
47. Pello Olabarria (3.34ra)
48. Alex Garcia (3.34ra)



Cyril Barthe, helmugan, Alonso atzean utzita. | X.U.

## UZARRAGAKO 40. IGOERA

## Uzarragako txapela Frantziara eramandu Cyril Barthe ziklistak, azken esprintean nagusitu ostean


X.U. | ANTZUOLA

Uzarragako malden jabe berria frantziarra da, Orthez herritik etorritako Cyril Barthe izan zen eta zapatuan azkarrena. Antzuolatik hasita, 90 kilometro etapan zehar ihesaldi saiakera mordoia izan ziren, nahiz eta haizete gogorrek, printzipioz, tropelari abantaila ematen zion: "Lasterketa motza izan da, baina etengabe egon dira ihesaldi saiakerak", adierazi zigitu irabazleak.

Frantziatik etorritako ziklista ez zen borrokaldi gutzietan egon, ondo neurtu zituen indarrak, eta Zubillagatik Antzuolara bidean, aurrean kokatu zen. Tropelak ez zuen batera hasi igoera, gutxi batzuek abantaila txiki bat hartu zuten, eta tartean zen Barthe. Hala, behetik gorako bidean, Orthez taldeko ziklistak erakutsi zuen joan den astean Bordelen lasterketa irabazi izana ez zela kasualitatea izan, alegia, gortuzaldi onean zegoela.

## Esprintean nagusitu zen

Uzarragako Igoera ez da luzea, baina bi kilometro eta erdi nahikoa dira tarte handiak lortzeko. Barthe ez zuen halakorik egin, igoeran zehar ondo-ondoan izan zituen helmugan segundo gutxi batzuek atera zituzten Xabier Contreras (Cartonajes Limousin) eta Mikel Alonso (Andoain). Contreras lehengo eman zuen amore, baina Alonsok azken esprinter arte eutsi zion. Helmuga begibistan zutenean, baina, ahoa zabal-zabalik, mingaina aterata, arnasa sakon hartu eta



Cyril Barthe. | X.U.

## ESANAK

**"Eraso saiakera mordoia egon dira"**

CYRIL BARTHE | IRABAZLEA

igoeran zehar zuhurtiaz gordetako indar apurra atera zuen Barthe, bizikleta bateko alde lortzeko.

## Umerez bosgarren

Antzuolar onenaren saria, berriz, Jon Fernandezdako (Lokatza) izan zen -34.a helmugan, baina bailarakoen artean nabarmen-tzeko moduko lana egin zuena Julen Umerez (Ulma) oñatiarra izan zen, igotzaile onenekin batera egon zelako -helmugan bosgarren, 40 segundora.

## OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

# Hamabigarrena ere irabazi egin du Aretxabaletak eta bigarren jarraitzen du

Partidu eroso jokatu zuen, aparteko lanik egin barik

## EMAITZA

ARETXABALETA

# 2-0

AURRERA

## FITXA TEKNIKOA

**Aretxabaleta:** Caste, Gorka, Amutxastegi, Arriaran, Beñat, Haritz, Julen Eraña, Imanol, Zaitegi, Iker Sanchez eta Urtzi.

**Ondarroako Aurrera:** Adrian Larrinaga, Jon Sarasua, Asier Kortazar, Jon Burgoa, Xabier Barrenetxea, Aritz Garate, Iraitz Larrañaga, Unai Urkiri, Alain Urkiri, Jesus Ojeda eta Ander Laka.

**Epailea:** Kevin Vazquez; epaile-laguntzaileak: Urko Garzo eta Oscar Luque.

## MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hamabigarren partida ere irabazi egin zuen, atzo, Aretxabaletak. Eta dagoeneko 14 partidudaramatza galdu barik, abenduaren 22az geroztik, hain zuzen. Atzo ere argi utzi zuen martxa horretan jarraitu gura duela sailkapeneko bigarren postua ziurtatu eta promozioa jokatzeko. Hala jarraituz gero ez da urruti ibiliko, nahiz eta 51 punturekin berdinduta eta borroka estuan hiru talde egon: Tolosa, Anaitasuna eta Aretxabaleta.

## Bi golak lehen zatian

Aretxabaletarrek aurkari indartsua espero zuten aurrez aurre, partiduren bat galdu arren ondo dabilelako Ondarroako taldea. Hala ere, ez zien burukomin handirik eman lehenengo zatian. Partidua hasi orduko min hartu zuen Gorkak, orkatilan, eta Gillemek ordezkatu zuen. Behin aldaketa eginda taldea eroso kokatu zen zelai erdian eta hainbat aukera izan zituzten hasi orduko; hala nola, Gillemek zelai erditik pase luzea jaurti Imanoli eta honek zutoin albotik kanpora bidali zuen. 20. minutuan iritsi zen gola; kornerra atera Imanolek eta Urtzik, buruz, barrura.

Lasai zebilen jokatzen UDA; baloiak samur eskuratu eta aukerak behin eta berriz sortzen. Aurrerakoek, ostera, ez zuten arriskurik sortzen, eta Castek ez zuen batere lanik izan. Bigarren gola lehen zatiaren luzapenean iritsi zen, Aurrerako defentsak egindako huts baten ondorioz. Defentsak behar bezala aldendu ez baloia, Urtzik eskuratu zelai erdian, eta atezainaren aurreraino bakarrik eroan ondoren sare-ratu zuen.

## Penaltia geratu zuen Castek

Bi goleko abantailak lasaitasuna eman zien etxekoei, eta erdi lo atera ziren zelaia bigarren zatian. Aurrerak, ostera, hiru aldaketa egin zituen eta indarrak berreskuratuta emaitzari buelta eman gura zion. Bigarren zatia hasi orduko, gainera, Urtzik min hartu zuen eta horren ordez Piru

zelairatu zuen Gorka Valle entrenatzaileak. Ondarroarrak sarriago hasi ziren iristen Casteren atera, baita arriskua sortu ere, kornere baten ondoren baloia ezin harrapatu ibilita. Jokalarien artean sortutako nahas-mahas horretan Beñat Etxabek zauria egin zuen buruan eta bendarekin jokatu behar izan zuen gero.

20. minutuan Arizmendi zelairatu zen Zaitegiren ordez. Baloia jokoan jarri orduko penaltia adierazi zuen epaileak eta txartel horia erakutsi Gillemi, baloia zuen azken jokalaria falta egi-teagatik. Caste, baina, argi ibili zen, eta baloia urruntzea lortu zuen. Penalti horrek berritortiduan sartu zituen Valleren mutilak, eta behin erritmoa berreskuratuta, Aurrerakoak geratu eta aukerak sortzen hasi ziren berritortiduan. Hala, Arriaranek luze pasatutako baloi bat sareratzeko aukera polita izan zuen Sanchezek, baina zutoin albotik kanpora joan zitzaion. Behin bigarren zatia aurrera kanpokoek ez zuten aparteko ezer egin, eta UDakoek emaitzari eusteko lanean jardun zuten. Bukaeran jokalaria gustura eta zaleak ere bai.

## Hurrengoan Vasconia

Denboraldia bukatzeko sei jardunaldi geratzen direnean irabazten jarraitzeko asmoa dute aretxabaletarrek. Datorren astean, Vasconiaren etxera joango dira eta ez da izango partidua samurra, atzeko postuetatik aldentzeko puntuak eskuratu beharra duelako horrek.



Sanchez baloiari buruarekin eman nahian. | JOSETXO ARANTZABAL

## HARITZ IGARTUA | UDAKO KAPITAINA

## "Bigarren postuaren bila joango gara promozioa jokatu ahal izateko"

Gustura zegoen UDako kapitaina partidua bukaeran.

## Gustura, ezta?

Bai, nik uste partidua ona jokatu dugula. Lehenengo zatian aukera batzuk izan ditugu, bi gol ere bai, eta Aurrerakoek ez gaituzte estutu, hortaz, lasai joan gara atsedenaldira.

## Eta bigarren zatian estuago...

Bai, golen abantailarekin lasaiago atera gara eta hasieran sufritu egin dugu apur bat; penaltia ere adierazi digute eta. Horren ondo-



ren, berritortidua hartu diogu partiduari eta ondo bukatu dugu.

## Min hartuta joan dira bi jokalaria...

Bai, biak orkatila handituta. Ikusi egin behar astean zelan errekupekatzen diren.

## Eta galdu barik jarraitzen duzue.

Bai, hamalagarren partidua galdu barik eta hamabigarrena irabazita. Lehenengo ez dugu harrapatuko baina bigarrenaren bila goaz promozioa jokatzeko.

## OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

# Txarto jokatu baina irabaziz gero lasai egoteko moduan

Aloñak 3 eta 1 irabazi zion azken postuan dagoen Lagun Onak taldeari, partidua oso txarra jokatu

## M.A. | OÑATI

Sailkapenean azken postuan dagoen Lagun Onak hartu zuen Aloñak atzo, etxean eta irabazi (3-1). Emaitzari erreparatuz gero aise irabazi ziola iruditu arren ez zen hala izan. Andoni Azkargorta entrenatzaileari esaterako "urteko partidurik txarrena" irudi zitzaion atzokoa. Hala ere, bolada onean sartuta dago Aloña, eta partidua txarra jokatu ere golak egiten badakiela erakutsi zuen.

## Huts asko defentsan

Lehenengo zatian oso parekatuta ibili ziren bi taldeak. Oñatiarrak ez ziren oso fin ibili, eta ez zuten jokatu batere eroso. Baloiarekin ezin asmatu ibili ziren eta defentsa lanetan ere huts asko egin zituzten; hala, aurkariari erraztasunak eman eta eman jardun zuten. Dena den, azpeitarrak ez zuten jakin horri etekina ateratzen. Eta Aloñakoek, txarto jokatu ere golak sartzen



Lagun Onakeko eta Aloñako jokalaria baloia eskuratu nahian. | JOSETXO ARANTZABAL

dakitela erakutsiz bi egin zituzten lehenengo zatian. Lasaitu ederra hartuta joan ziren atsedenaldira etxeko jokalaria.

Bigarren zatian, ostera, partiduari buelta eman guran zelairatu ziren Lagun Onakeko mutilak, eta saiakera horretan baita gola sartu ere. Hala, estu hartu zituzten oñatiarrak, eta emaitzari eusteko lanean jardun behar izan zuten horiek. Azkenean, partiduen luzapenean, hirugarren gola iritsi zen.

## Gozatzeko partidua

Aloñak ez du partidurik galdu azken bederatz jardunaldietan eta sailkapeneko bosgarren postuan dago. "Behin helburuak lortuta denboraldiko azken partidua lasai hartu eta gozatzeko izango dira", jakinarazi du Azkargorta entrenatzaileak.



## OHOREZKO ERREGIONALA

# Etxean ezin irabazita dabil Bergara eta denboraldi bukaera zailtzen hasi zaio

Azken asteotako bolada txarra gainditu ezinka, Ostadarrek hiru puntuak batu zituen Agorrosinen

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Nahi eta ezin, horrek laburtzen du Bergarak zapatuan, etxean, jokatuak partidua; ezin eta galdu, gainera (0-1). Ostadarrek baino aukera gehiago izan zituen, aukera paregabeak hiru bat, baina gola Ostadarrek egin zuen.

Ez zuten partidu txarra jokatu bergarrek, baina azken asteotan asmatu ezinka dabilta. Hasi eta segituan bi aukera paregabe izan zituen Enekok, atezainaren aurrean bakar-bakarrak geratuta. Bietan, baina, kanpora joan zitzaion baloia.

Bigarren zatian berriro ere atezainaren aurrean bakar-bakarrak izan zen, baina orduan ere baloia gora. Ondoren Baltzategi kaleratu zuen epaileak bigarren txartel horia erakutsi-

ta. Ostadarrekoak atzean sartuta zeuden ordurako, eta berdinketarekin etxeratze gertu, baina area kanpotiko jaurtiketa batean Bergarako defentsak ukitu aldentzeko, Ostadarreko aurrelariarengana iritsi eta gola (0-1). Partidu bukaera beste aukera bat izan zuten bergarrek, baina ordurako argi zegoen ezinean zebiltzala.

## Argi ibili behar

Etxean partidurik ezin irabazita dabil Bergara azken asteotan, eta argi ibili behar dago. Izan ere, jaitsiera postuak bost puntura dituzte bukatzeko sei jardunaldi geratzen direnean, eta hurrengo asteko partidua ere ez du batere samurra; sailkapenean hirugarren dagoen Tolosaren etxera doa.



Bergarako jokalaria baloiari eutsi nahian. | IMANOL SORIANO



ERREGIONAL PREFERENTEA

JOSETXO ARANTZABAL

## Puntu bakarra Mondrarendako

Mondra hasi da finalak jokatzeko goiko postuetan jarraitu gura badu. Atzo, baina, puntu bakararekin konformatu behar izan zuen, ez ziolako golik egin Oriokori. Lehen zatian oso parekatuta ibili ziren. Bigarren zatian hasieran jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen Orioko, baina Mondrakoek ez zuten jakin etekin ateratzen (0-0).



Ford-Mugarrik Zarauzko Bigara Pulpo izan zuten atzo aurrez aurre. | JOSETXO ARANTZABAL

## ESKUBALOA

# Ford-Mugarrik aise irabazi zuen etxean

Gartziaren mutilek "erlaxatuegi" jokatu zuten 2. zatia

EMAITZA
FORD-MUGARRI
<b>27-17</b>
BIGARA PULPO

Z.V.D.M. | ARRASATE

Erraz irabazi zuen Ford Mugarrik atzo etxean jokatuak norgehiagoka eta erraza izanagatik ere, ez zen partidu ona izan, Pablo Gartzia entrenatzailearen iritziz.

Zumaiko Bigara Pulpo taldea izan zuten aurrez aurre arrasatearrek.

Lehenengo zatian amaieran "17-9" erakusten zuen markagailuak. Atsedendititik bueltan erlaxatuta irten gara bi taldeak eta bigarren zati txarra jokatu dugu".

Etxeko goleatzaileei dagokienez, Andoni Bernal (8), Pello Olabarria (4), Unai Rodriguez (4), Mikel Zuloaga (3), Josu Herrero (3), Kepa Gruzeta (2), Iker Zubiaurre (2) eta Jorge Santos (1) izan ziren.

## Bi partidu aurretik

Dagoeneko liga erabakita dago eta mantentzea lortu dutenen artean dago Ford Mugarri. Hala, partiduei

beste pizgarri edo interes-puntu bat bilatu beharko diete aurrerantzean arrasatearrek. "Bi partidu bakarrik geratzen zaizkigu aurretik; ea horietan joko ona eginez irabazterik dugun eta txapelketa ondo amaitzen dugun".

Ligako azken norgehiagokak Egiaren eta Erromoren aurka izango direla ekarri du gogora Gartziak: "Egiaren kontrakoa zapatuan da, eta polita izango dela iruditzen zait. Gurekin batera egon ziren lehenengo itzulian, eta ikusiko dugu oraingoan zer gertatzen den".

## KARATEA

## 118 karateka lehiatu ziren Oñatin zapatuan

Oñatiko XIX. Shotokan lehiaketa egin zuten zapatuan. 118 karateka gaztetxo aritu ziren eta Bergarako, Antzuolako, Elgetako eta Aloña Mendiko neska-mutilek primeran pasatu zuten.



ALOÑA MENDI KARATE SAILA

## FUTBOLA

## Neskentzako futbol topaketak antolatu dituzte apirilaren 14 eta 15erako

Arizmendik, Mondrak eta UDAk nesken futbol topaketa antolatu dute apirilaren 14rako eta 15erako. Arrasateko Mojategin izango da doakoa da, eta 2002 eta 2005 urteen artean jaiotako neska guztiei zuzenduta dago. Egitarau oparoa antolatu dute: jolas kooperatiboak, futbol entrenamenduak, bideo-emanaldiak...

## ERRUGBIA

## Bertan behera geratu zen Kanpanzar ARTk jokatzeko zuen partidua

Zapatuan arratsaldeko bostetan zuen hitzordua Arrasateko Kanpanzar ART taldeak Hernaniko Landaren, baina epailea agertu ez eta bertan behera geratu zen norgehiagoka. Arrasateko taldeak adizteraz eman dutenez, ez dakite zer gertatuko den 2. faseko 10. jardunaldiko partiduekin.

## ATLETISMOA

## 4.576 euro emango dituzte pobreziaen aurka korrika eginez

Apirilaren 26an Txus Iglesias, Jon Ander Garitano, Juantxo Aranes bergarrek eta Gorka Manso antzuolarrak apirilaren 26rako Intermon Oxfam GKEK antolatu duen Trailwalker lasterketan hartuko dute parte Gironan, eta bertan aurrez lortu dituzten 4.576 euroak emango dituzte pobreziaen aurka.

## GIMNASIA ERRITMIKOA

# Gipuzkoako gimnasta gazteek Bergara izan zuten topagune

Zapatuan Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa jokatu zen eta baita Benjaminen Topaketa ere

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Badirudi etorkizuna duela gimnasia erritmikoa gurean; hain zuzen ere, Gipuzkoa osotik 30 talde bertaratu ziren zapatuan Bergarako Labegaraietako kiroldegira. Goizean Gipuzkoako Eskolarteko B mailako Txapelketa jokatu zuten eta arratsaldean, ostera, Gipuzkoako Benjaminen Topaketa egin zuten.

Eta ibarreko ordezkariak dagoenez, Bergarako, Arrasateko, Antzuolako, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Oñatiko ordezkariak hartu zuten parte. "Azken hauek bertan egotea, gainera, nobedadea izan da", eman zuten aditzera Bergarako Ariznoa gimnasia erritmiko elkarteko Lore Alberdik.

## Erakustaldi politik

Goizeko saioan parte hartu zutenek norgehiagoka polita eskaini zieten bertaratutako ikusleei eta txapelketako finalerako txartela lortzea zuten helburu denek. "Taldeetatik lehenengo bostak igaro dira txapelketaren finalera, eta bakarka aritu direnetatik, ostera, lehenengo zortziak".

Goizeko lehiaren ostean, arratsaldean erakustaldiaren txanda izan zen eta gimnasta gazteenek txapelketa mundua hobeto eza-gutzeko aukera izan zuten.

Egun osoan zehar harmailak bete-beteta egon ziren eta talde edo bakarlari bakoitzaren lanaren amaieran, txalo zaparradak nagusitu ziren, gustura egon ziren seinale.



Goizeko txapelketako une bat. | IMANOL SORIANO



Neska taldea, erakustaldiaren aurretik. | IMANOL SORIANO



Arratsaldean gaztetxoaren txanda izan zen. | ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



MAIDER ETA ARRATE BERGARA

"Benjaminen Topaketara etorri gara. Nahiz eta lesionatuta egon, taldeko kide gara eta besteek egiten dutena ikusiko dugu".



MIREN AZKOITIA

"Gimnasia erritmikoa egiten dut eta hori da gehien gustatzen zaidana. Jendaurrean ikasitako dena erakutsi dut gaur".



LAURA ETA JUNE AZKOITIA

"Dantza bat ekarri dugu prestatuta. Gimnasiatik gehien gustatzen zaiguna dantza egitea, modu berezian jantzea eta ongi pasatzea da".

## LEHEN NAZIONAL MAILA

## Durangon irabazita, igoera fasea jokatzeko postua ziurtatu du MUK

Aurreneko unetik hartu zuten Larreategiren mutilek Tabirako menpean; 64 eta 83 amaitu zen partidua

Z.V.D.M. | ARRASATE

Igoera fasea jokatzeko postua ziurtatuta, gustura bueltatu ziren atzo Durangotik MUKo mutilek Tabirako menpean hartuta. Josu Larreategi entrentzaileak aditzera eman duenez, "aurreneko unetik menperatu" zuten norgehiagoka, eta hala, 64-83 irabazita egin zuten itzulerako bidaia.

"Oso partidu ona jokatu dugu. Gainera, kanpo arrazoiak medio, bestetan ez bezala, toki berri batetan neurtu ditugu indarrak, eta horrek hein batetan, bi taldeak parekatu gaituela esango nuke".

### Hasieratik aurretik

Oso hasiera ona izan zuen Durangoko partiduak arrasatearrentzat. Aurretik joan ziren lehenengo unetik eta nahiz eta aurkaria markagailuan gerturatzen joan,

jokaldi hobeak egin zituzten eta baita saskiratze gehiago ere: "Oso ondo mugitu dugu baloia, joko orekatua egin dugu, bai kanpotik eta baita barrutik ere lehia menperatuz". Bi taldeen arteko aldea handitzen joan zen partiduak aurrera egin ahala, eta une batean 22ko aldea eskuratu zuten arrasatearrek. "Arerioak urduritzen joan dira orduan, gogor jokatzen hasi dira eta jokalaria bat ere bota dute epaileek".

### Lehenengo postua helburu

Sei partidu geratzen dira denboraldia amaitzeko eta Tolosako (lehenengoak) oraindik MUK baino garaipen bat gehiago dauka. "Azken aurreko partidua jokatzerara etorriko dira Arrasatera eta gure helburua da ordurako lehenengo postua borrokatzeko moduan egotea".



SENIOR BIGARREN MAILA

JOSETXO ARANTZABAL

## Aurkari bikaina izan zen Bergara

Nahiz eta amaieran markagailuak 53-60koa erakutsi, Soraluze BKE taldeko kideak pozik zeuden Tecnumen aurka, hau da, sailkapeneko bigarrenaren aurka jokatuak partiduarekin; bai norgehiagokaren mailarekin zein etxean bertan emandako itxura onarekin. Bergararrek zapatuan sailkapeneko azkeneko taldearen aurka Donostian jokatu duten partidua prestatzeko ordua dute orain.

## SENIOR EMAKUMEZKOAK

## Denboraldiko partidu onena jokatu irabazi zuten eskoriatzarrek

Zortzi puntuko aldeaz irabazi zion zapatuan Eskoriatzako Tolosako Aralar Kirolak taldeari (40-48). Akatsak egin arren, hobetzen joan ziren eta azken bi laurdenak oso ondo jokatu zituzten eskoriatzarrek. Hiru partidu dituzte aurretik, eta emaitzen arabera, Lauko Finala jokatzeko aukera izango lukete.

## MAILA AUTONOMIKOA

## Garaipena erdietsi zuten Natra Oñatik Irunen zapatuan

Etiket kanpo irabazi zuen zapatuan Natra Oñatik Errobide Irun taldearen aurka eta 60 eta 71 erakusten zuen markagailuak amaieran. Hori horrela, zazpigarren postuan daude orain oñatiarrak, 11 punturekin. Hurrengo norgehiagoka etxean jokatu dute, Astigarragako Mundarro-La Salleren kontra.

Endika Donnay | Atleta

# "Ikusten nuen helmugako zuzena, ikusten nuen zinta, eta ez nuen sinisten hura niretzako zenik"

- ▶ Azkoitia-Azpeitia lasterketa –ibilbide motza, 7,5 km– irabazi zuen aurreko astean
- ▶ Atzo, ostera, hirugarren sailkatu zen Murgian egindako lasterketan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Endika Donnayk (Arrasate, 1987) urte erdi darama berriz ere atletismoan buru-belarri. Bizikletan ondo moldatzen ez zelako utzi zuen duatloia, eta mendi lasterketetan gustura zebilen arren, berriz ere asfaltoan hasteko gomendatu zioten. Urte erdi darama orain, serio; Atletico San Sebastian taldean dabil, eta hilaren 22an irabazi zuen lehen aldiz lasterketa bat –maila batekoa–.

## Ze espektatibarekin joan zinen Azkoitia-Azpeitiara?

Banekien ondo nengoela, eta dena ematera joan nintzen. Hasieratik jarri nuen nire erritmoa, ikusten nuen ondo nindoala.

## Bazenuen aurreko lasterketaren baten erreferentziarik, jakiteko nola zeuden zu eta nola egon zitezkeen kontrarioak?

Gutxi gorabehera ezagutzen dugu elkar. Nik banekien ondo nengoela, eta hirugarren, bigarren... egin nezakeela, hor ibiliko nintzela. Eta ondo atera zen.

## Aurkari asko ikusten zenituen garaipena lortzeko lehian?

Arrasateko Gaizka Romero, nagusia. Bera zen niretzako erreferentzia. Gero beste bi korrikalari sartu ziren tartean; horiek ez nituen espero. Gaizka beti ibili izan da ondo.

## Nolakoa izan zen lasterketa?

Aurreneko 500 metroetan edo kontrolatzen egon nintzen. Bost gindoazen aurrean. Gero neuk jarri nuen erritmoa, eta Gaizka etorri zen nire atzetik, eta gero aurrera jo nuen. Kilometro eta erdi egin nuen Gaizka atzetik nuela, baina bakarrik geratu nintzen ondoren.

## Garaipena arriskuan ikusi al zenuen uneren batean?

Ez. Ez nuen sinisten irabaztera nindoanik. Batzuetan atzera begiratzen nuen, baina jendeak esaten zidan lasai egoteko, bigarrena urrun zetorrela.

## Nola kontrolatzen da horrelakoetan egoera?

Oin-hotsekin kontrolatzen dut nik, entzumenaren bitartez. Oin-hotsak eta arnasa entzuten dira. Ez nuen arnasarik entzuten, eta banekien, hortaz, bakarrik nindoala. Eta jendearen txaloekin ere bai: niri egiten zidaten, eta gero isildu egiten ziren.

## Ondo zetorkizun lasterketa? Nola lasterketak komeni izaten zaizkizu?

Bai, bikain zetorkidan. Lauak komeni izaten zaizkit, malda txikiren batekin. Azpeitian igo egiten da apur bat. Nik nola mendia egin nuen lehen, badut indarra

hanketan. Eta horregatik, aldapa apur bat baldin badago, ondo joaten naiz.

## Lehenago ere egina zenuen lasterketa?

Ez. Beno, aurreko urtean luzea egin nuen. Eta esan zidaten niretzako aproposagoa zela motza, hobeto egin izango nuela. Ze oso gaizki egin nuen luzea. Esan zidaten hurrengo urtean motza egiteko, eta egia, niretzako ego-kiagoa da.

## Jarraituko duzu joaten Azkoitia-Azpeitiara?

Bai. Gainera, Arrasatek nahikotxo jende joaten gara. Zortzi edo joan ginen oraingoan. Lasterketa polita da. Giro ona egoten da. Azkoitian eta Azpeitian, herrietan, ondo, nahiz eta Loiolako zuzenean jende gutxi egoten den, hori bai; hor ez da animo askorik egoten.

## Ze sentsazio helmugan sartzean?

Ez nuen sinisten. Ikusten nuen helmugako zuzena, eta ikusten nuen zinta, eta nire buruari esaten nion: "Hau ezin daiteke niretzat izan!". Helmugan amari deitu eta... Oso pozik.

## Azkoitia-Azpeitia albo batera utzita, zer moduz Espainiako Txapelketan [hil hasieran izan zen, Castellon]?

Ondo. Kros motza eta kros luzea egoten da, eta gure taldea sailkatu zen kros motza egiteko, 4 kilometrokoa. Oso azkarra izan zen.

## Zure lehenengo Espainiako Txapelketa izanda, ze inpresio egin zizun kirol arloari dagokionez eta kirolaz bestekoari dagokionez?

Kirola ez denari dagokionez, jende ona ezagutu nuen. Eta kirol arloan, ba elite guztia han zegoen. Zapatu arratsaldez iritsi ginen eta joan ginen ibilbidea ikustera, eta han zeuden denak korrika, eta denak Europako Txapelketara, Mundukoetara... joaten direnak. Eta esaten duzu: "Neu ere hemen!". Pasada bat!

## Eta zer moduz atera zen txapelketa?

Neu erdi inguruan geratu nintzen, 300 korrikalaritik. Klubean sailkapenean, berriz, 22. geratu ginen, 60 ingurutik. Maila handia zegoen.

## Ze abantaila du zuretzat talde baten korritzeak?

Nik gaztetan krosa egiten nuen, eta Ritxar Fernandezekin hasi nintzenean esan nion nire ametsa zela berriz ere krosak egitea, eta pistan lehiaztea ere bai. Eta horretarako federatuta egon behar zara, eta honi esker bete egin dut



Endika Donnay, aurreko astean Arrasaten. | J. I.

**"Niri mendia asko gustatzen zait, eta hasieran zalantzak izan nituen"**

**"Ez dut helbururik jartzen; nahiago dut lasterketaz lasterketa joatea"**

nire ametsa. Eta Euskadiko eta Espainiako txapelketara joan naiteke, bestela ezingo nintzatekeen joan. Orain arte beti ibili naiz nire aldetik, baina aurten hasi naiz taldearekin eta nahikotxo aldatu dira gauzak.

## Gustura berriz ere korrika hasteko erabakia hartu izanaz?

Niri mendia asko gustatzen zait, eta hasieran zalantzak izan nituen: "Merezi du arriskatzea, mendia utzi eta asfatora pasatzea?". Nik beste helburu batzuk nituen buruan, baina azkenean merezi

izan du. Gomendatu zidaten asfalta egiteko, eta aldatu egin nuen. Eta oso pozik nago erabakiarekin.

## Eta bateragarria da mendian ibiltzea zuek duzuen prestaketarekin?

Hasieran nik ezetz pentsatzen nuen, baina baiezkoan nago. Gure krosetan egiten du korrika mendian ibiltzen den jendeak, eta aurrean ibiltzen dira orokorrean. Dena dela, nik ez dut mendirik egiten. Gustatuko litzaidake aurrerago berriz ere mendia egitea.

## Eta ze helburu dituzu atletismoan?

Ez dakit. Nahiago dut lasterketaz lasterketa joatea. Ez dut gustuko helburu bat jartzea, ze gero agian ez dut betetzerik. Lasterketaz lasterketa dena ematera.

## Oso sakrifikatua da 26 urteko gazte batentzat atletismoan aritzea?

Bai. Larunbatetan ia ezin irten... Eta gero, noski, ia egunero entrenatu behar duzu, elurra edo euria izanda ere bai. Atzo [eguaztenean] gogotik egin zuen euria, eta han egon nintzen Mojategin, serieak egiten. Baina hori egin ezean, ez dira emaitzak heltzen, eta hortxe dago motibazioa.

## Berriz ere atletismoan ari zaren urte erdi honetan, bilakaera ona izan duzu?

Bai. Aurreko batean esan zidaten, ikusita krosetan nola hasi nintzen eta nola ari naizen orain, asko igo dela nire maila. Eta neuk ere ikusten dut. Entrenatzeak egiten du hori. Konstantea izan behar da, eta iristen dira emaitzak.

## Eta ze emaitza izan zenituen Azkoitia-Azpeitia irabazi arteko lasterketetan?

Beti ibili naiz aurrean: seigarren, bosgarren... lehenengo hamarren artean. Azkeneko urratsa falta zitzaidan, eta hori iritsi da entrenamenduetan konstantea izanda.

## Eta horrela jarraitzeko asmotan, irabazteko borrokan?

Bai. Dena dela, badago jende bat maila altuagokoa; Oñatin, adibidez, Yera Varela. Baina hemendik denbora batera... Oraingo bilakaerarekin jarraitzen badut... Ikusten dut nire burua hor, borrokan.

## Horrek emango du jarraitzeko indarra, ez?

Bai. Kontua da denbora askoan lasterketa bat prestatu baina emaitzarik ez bada ateratzen, zalantzan jartzen hasten zarela entrenatzeak merezi ote duen. Baina emaitzak ateratzen badira are gehiago entrenatzeko motibatzen zara.

## Haur bati diagnostiko baten etiketa jartzen badiogu estereotipatu egiten dugu

Maidar Eginogin logopedak uste du haurra estimulatutako egin behar dela beti

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Askotan entzun ditzakegu hone-lako esaldiak: idazterako eta irakurtzerako orduan "zera"... da, edo ... "zera" duten haurrak honelakoak dira... Maidar Eginogin logopedak argi dauka: "Haur baten ikasketak, genetika, ingurunea... inguratzen duten pertsonak markatzen dute (...). Beraiek kontziente dira besteekiko desberdintasunak dituztela, baita ikasteko zailtasun handiagoak ere, eta hau nabarmenagoa da haurra nagusitzen doan heinean. Haur bati diagnostiko baten etiketa jartzen badiogu, estereotipatu egiten dugu; ondorioz bere indibidualtasuna ahaztuz, eta gainera haurra bera honen jabe bada orduan eta min handiagoa egiten diogu".

### Haurra estimulatutako

Haurra estimulatutako egin behar dela uste du Eginok. "Daukan arazoak kontziente bada, motibazioa murrizten zaio, eta aitzakia bihur daiteke, kostatzen zaion



Mutikoa tximeleta batekin jolasean. | AQUIC

gauzen aurrean arrazoi gisa erabiliz, errendimendua eta ikasteko gogo gutxi araziz".

Garrantzitsua da, estrategia, errekurso eta ekintza desberdinak bilatu eta aurkitzea, haurra gustura senti dadin. Gainera, gaizki egiten badu zuzentzeko aukera eman behar zaio, sari positiboen bitartez bere auto-estima indartuz.

Adituak gomendatzen du haurrari bere buruarekiko irudi positibo bat erakusteko, ondo egiten dituen jarduerak kostatzen zaizkion jarduerekin nahasteko eta errefortzu positiboa lantzeko. "Gogoratu behar dugu haur baten zatzat zein garrantzitsua den nagusiaren onarpena. Lortu dituen gauza positiboei erreferentziak egin behar zaizkie".

## Argi izan behar dugu nola jokatu kontrako eztarrian zerbait trabatzen denean

Egoera larria izanik ere ez utzi inoiz umea bakarrik, eta ezkutatu norberaren urduritasuna

L.Z. | ARRASATE

Haurtzaroko arrisku garrantzitsuenetako bat zerbait kontrako eztarrian trabatzea da. Umeek edozer gauza sartzen dute ahoan, eta oxigenorik gabeko lau minutu nahikoa dira garunean kalte larriak eragiteko.

Egoera larri horietan nola jokatu jakin beharko genuke gurasook. Umea oso txikia denean —jaioberria— buruz behera ipini, burua eta sorbaldak eskumako besoarekin heldu eta ezkerreko eskuarekin bost zaplada txiki emango dizkiogu bizkarrean traba sortzen duen objektu edo janaria bota arte. Ez badugu lortzen laguntza profesionala eskatu dugu, eta azkar.

Haurra apur bat nagusitoxagoa bada bizkarrean zapladak

eman, eta kontziente badago ez tula egiteko eskatuko diogu. Ez bada nahikoa atzetik heldu eta eskuekin presio egingo dugu bularraren eta sabelaren arteko mugan.

### Larrialdi egoeratan

Argi izan behar dugu prebentzioa dela neurririk eraginkorrena. Kontuz mahatsarekin, fruitu lehorrekin, okela edo gazta zatiekin, goxoki txikiekin eta txikleekin. Baita ere txanponekin, kanikekin, pila eta jostailu txikiekin, tapoiekin zein puztu bako puzgarriekin.

Ez dugu inoiz umea bakarrik utziko, saihestu galdera zailak eta ezkutatu norberaren beldurrak eta segurtasun ezak. Beharrezkoa bada deitu larrialdi zerbitzuetara.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**



**guraso.com**

## JAKINGAI

# Segurtasuna mendian, gure esku

Iraitz Berastegi

TAFYDeko bigarren mailako ikaslea

Euskal Herrian mendizaleak suna ia berezkoa dugula esan daiteke; bertako mendien xarmak erakarritako, ziurrenik. Mendira joateko ohitura sustraituta dugu. Gure izaeraren eta kulturaren parte bilakatu dela esango nuke. Baina egin dugun hautu hori bat al dator gure prestakuntzarekin? Benetan prestaturik al gaude fisikoki zein teknikoki mendirako?

### Hasiberrien ezustekoak

Duela lau urte hasi nintzen mendiarren mundu zoragarrian murgiltzen; hasieran, oinez ibiltzera joaten nintzen. Baina berehala ikusi nuen mendiak oinez igotzeaz gain eskalatzu igotzea ere gustuko nuela. Hori dela eta, herriko rokodromoan apuntatu eta bertan hasi nintzen eskalatzeko.

Autodidakta gisa oinarritzeko segurtasun teknikak ikasi nituen,

lagunekin batera. Denbora joan ahala, gure ezagutzak motz gelditu ziren, eta, hasiberriei gertatzen zaien pare bat ezustekoren ostean, formazioa hobetzea erabaki genuen, gure segurtasuna arriskuan ikusi eta gero.

### Formazioa ezinbestekoa

Alpinismoaren hastapeneko kurtso batean izena eman genuen, eta aurrerantzean erakutsi zigutena praktikan jartzen hasi ginen: irteera ongi planifikatu, eguraldia aztertu, irteeraren iraupena zehaztu —akatsarako margena utziz—, behar izango genuen materiala aukeratu, progresio motak eta segurtasun teknikak kontuan hartu...

Azkenaldian, jende asko hasi da murgiltzen mendiak eskaintzen dituen kirolean, eta guri pasatu izan zaigun bezala, hasiberrien ezuste dezente ikusi ditugu.

Hedabideetan ere sarritan entzuten ditugu halakoak: "Mendizale talde bat erreskatatu dute...", edo "Bi mendizalek istri-

pua izan dute...". Horrelakoetan buruari eragiten diot, eta hainbat kezka edo ulertezinezko galderak etortzen zaizkit burura: Zer egin ote dute gaizki? Bidea ez zuten ongi ezagutuko? Nola ote zegoen elurra?

### Mendi Federazioa

Beraz, mendizaleok, formazio kurtsoetan izena ematera animatzen zaituztet. Mendian segurtasunez gozatu ahal izateko eta suertatzen diren egoerei aurre egiten jakiteko. Horrek gizarteak mendiari dion beldurra murrizten lagunduko du, izan ere, bizitzako arlo guztietan bezala, kirolean ere gauzak ongi eginez gero, ia arriskurik ez dago.

Eguraldi iragarpena, ibilbidearen zailtasun maila, iraupena... guztia hartu behar da kontuan irteera bat planifikatzerakoan.

Horretaz gain, mendian asko bazabiltzate mendiko federazioan izena ematea gomendatzen dizuet, abantaila ugari eskaintzen dituelako.



Neguan, mendian. | GALAXIA 9000

## Irteera baten planifikazio egokia

Eguraldiari eta medioaren egoerari dagokionez ondo informatu behar dugu, esaterako, [www.lameteoquieviene.blogspot.com](http://www.lameteoquieviene.blogspot.com) es atarian. Arropa eta materiala horren arabera aukeratu ditugu. Ibilbidearen zailtasuna eta nondik norakoa erraza den begiratu dugu; tekniko den, gure prestakuntzaren gainetik dagoen... Mapa edo GPSan track-a eramatea aholkatzen dizuet. Ibilbidearen iraupena ere zehaztu behar da. Horren arabera jarriko dugu irteera ordua. Hala ere, goiz irtetea komeni da, zerbait gertatuz gero denbora luzeagoa izateko.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**

**ai** arizmendi  
ikastola **PRO**

# KULTURA



2012ko Eskola Antzerkiaren Jardunaldien barruan ikasleak Amaia antzokian antzetzten. | GOIENA

## Antzerkigintza, neska-mutikoen garapenean laguntzen duen tresna

Datorren astean hasiko dira Arrasateko XXIV. Eskola-Antzerkiaren Jardunaldiak

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Apirilaren 8an abiatuko dira Arrasateko XXIV. Eskola-Antzerkiaren Jardunaldiak. Udaleko Hezkuntza sailak Kultura sailarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean antolatzen ditu, eta berauetan, hainbat ikuspuntutatik lantzen dute antzerkigintza: ikasleek antzerkia egiten dute, antzezlanak ikusten dituzte eta antzokia barrutik ezagutzen dute. Izan ere, jardunaldi hauetan parte hartzen duten eragile ezberdinen iritziak, antzerkiak hainbat onura dakartzaz hezkuntza ikuspegi batetik.

### Antzerkia, zertarako?

Arrasateko Udaleko Hezkuntza teknikaria den Juanito Barberanen esanetan, antzerkia, besteak beste adierazpena eta komunikazioa lantzeko tresna pedagogiko aproposa da; baita gorputz adierazpena eta irudimena landu eta beste baten paperean sartuz, empatia garatzeko ere.

Arizmendi Ikastolako Gaztelupe gunean antzerkigintzako irakasleak diren Beatriz Garaik eta Mariasun Garaik ere uste dute antzerkia lantzea onuragarria

dela ikasleentzat: "Besteak beste jendaurrera azaltzen ikasten dute eta ahozotasunean trebatzen dira".

"Gure kasuan, hizkuntza lantzeko, hau da, euskararen erabilera sendotzeko balio du ikaste-

txean antzerkia lantzeak, baita ikasleen izaera garatzeko ere" dio, bere aldetik, azken hiru urteetan Arrasate Institutuko irakaslea eta antzerki taldearen arduraduna den Iratxe Larrinagak. Bere esanetan, gainera, dekoratuak egiten ere laguntzen dute ikasleek, eta diziplina lantzeko ere balio du antzerkigintzak.

### Ikasleen interesekoa

Bai Arizmendiko Gaztelupe gunean, baita Arrasate Institutuan ere, antzerkia hautazko ikasgaia da DBH 1. eta 2. mailan. Baina ikasleen interesekoa da? "Normalean bi ikasle motak aukeratzen

du arloa: antzerkigintza oso gustuko dutenek eta boligrafoa ukitu nahi ez dutenek. Bai batzuentzako eta bai besteentzako oso arlo interesgarria eta aberasgarria da", diote Gaztelupetik.

Iratxe Larrinagaren iritziak: ikasleak oso gustura egoten dira antzerkia lantzen: "Beste gauza batzuk akaso ez, baina antzezlanen gidoiak primeran ikasten dituzte. Denak egoten dira motibatuta eta parte hartzeko prest".

### Antzerkia egin... eta ikusi

Eskola-Antzerkiaren Jardunaldietan, urtero bezala, talde pro-

fesionalen antzezlanak ikusteko aukera ere izango da aurtten. Hiru antzezlan erakutsiko dituzte denera Arrasaten, eta horietako bat, Markeliñeren *Txitxarra eta Iñurria* izango da.

Antzerki talde horretako Jon Kepa Zumaldek, aurretik jasotako iritziaren ildo beretik jotzen du: "Hezkuntza ikuspegi batetik, ezinbestekoa da antzerkigintza eta gainerako adierazpen artistikoak lantzea. Umeak txikiak direnean egiten da hori, baina gero eta handiagoak izan, gero eta gutxiago lantzen da".

Zumaldek dioenez, euren lanean, ikusleak dibertitzeaz gain, saiatzen dira mezuak helarazten eta ikusleei buruan gogoetak sorrarazten. "Denok ezagutzen dugu txitxarraren eta inurriaren alegia. Gure bertsioan, esaterako, abestea, artea, lana ere badela aldarrikatzen dugu, eta txitxarraren bidez azaltzen dugu badela bizitza bitzeko beste modu bat: lasaiagoa, elikadurari garrantzia emanaz...". Antzezlanak ikusi aurretik eta ostean lanketa egiteko gainera, ikastetxei dossier pedagogikoa ere helarazten diete.

### ESANAK

**"Komunikazioa lantzeko tresna pedagogiko aproposa da antzerkia"**

JUANITO BARBERAN  
HEZKUNTZA TEKNIKARIA

**"Beste gauza batzuk ez, baina gidoiak primeran ikasten dituzte"**

IRATXE LARRINAGA | IRAKASLEA

### Apirilaren 8an, lau antzezlan Amaian

XXIV. Eskola-Antzerkiaren Jardunaldiak herriko ikastetxeetako lau antzerki taldek antzetzuko dituzten lau obrarekin hasiko dira.

Arrasate Institutuko DBH 1. mailako ikasleek *Amona honekin kontuz* izeneko lana aurkeztuko dute, eta DBH 2. mailakoek, euren aldetik, *Musu baten bila* izeneko.

Arizmendi ikastolakoek ere bi lan eroango dituzte agertoki gainera: Gaztelupe guneakoek *Gaixo* deitzen den obra eta Almenekoek *Bederatzi ez da bederatzi*.



Huhezinearen VII. edizioko irabazle guztiak, sari banaketaren ostean. | IMANOL SORIANO

# 'Zela Trovke'-rentzat Huhezinearen zazpigarren edizioaren sari nagusia

- ▶ Asier Altunarena izan da epaimahaiarentzat euskarazko film labur onena
- ▶ Ikasleen lanen artean, 'Anonymous' eta 'Jo ta jarri' izan dira garaile

**TXOMIN MADINA** | ARETXABALETA  
Egubakoitzean, Sail Ofizialeko lanak proiektatu ostean egindako sari banaketarekin amaitu zen Huhezine Euskal Film Laburren Jaialdiaren zazpigarren edizioa. Itziar Atienza eta Sara Cozar aktoreek gidatutako ekitaldia izan zen, eta Asier Altuna bergararraren *Zela Trovke*-k eroan zuen sari nagusia, euskarazko film onenari Goiena Saria.

## "Interesgarria eta borobila"

Anari Alberdi, Jon Garaño eta Maialen Belokik osatu zuten epaimahaia, eta bergararraren lana eduki eta forma aldetik "interesgarria eta borobila" dela adierazi zuten.

"Ez nuen espero saria irabazterik. Gustura egon naiz beste pelikulak ikusten. Oso politik eta

ezberdinak iruditu zaizkit, eta hori da politena, film laburrak bizirik daudela" zioen Altunak saria eskuetan. 2011ko Huhezinean ere ere saria lortu zuen bergararrak, orduan *Artalde* izeneko lanarekin.

*Zela Trovke*-k satisfazio asko eman dizkiola gaineratu zuen,

eta pozik dagoela egiten ari den bideagatik: "*Kimuak*-en sartu zen, munduko hainbat jaialditan egon da eta bost sari inguru irabazi ditu. Ibilbide elegantea egiten ari da, eta pozik". Altuna baina, ez da geldi egotekoa: dagoeneko bukatu du beste film labur

bat, *Soroa*, eta uda aldera *Amama* izeneko film luze bat grabatzekotan dabil.

## Ikasleak ere, pozik

Etxera saria eroan zuten Huheziko ikasleak ere pozik zeuden emaitza jakin eta gero. "Irabaztekoan Ikusleen Saria irabaztea espero genuen; sekulako ezustea izan da Fikzio Onenari Saria irabaztea" zioen Ander Larrañaga, *Anonymous* film laburren egileetako batek, eta proiektua aurrera ateratzea "lan gogorra" izan zela gaineratu zuen.

Dokumental Onenaren Saria Azpilikueta eskola txikiari buruzko *Jo ta jarri* lanak jaso zuen. Egileetako batek, Ikus-entzunezko Komunikazioan 3. mailan dagoen Amañur Perezek zioen saria irabazi izanak aurrera egb-



Goienako Oihane Agirrek eman zion saria Asier Altunari. | IMANOL SORIANO

## SARI GUZTIAK

### SAIL OFIZIALEAN

- ▶ **Goiena Saria:** 'Zela Trovke'
- ▶ **Epaimahaiaren Sari Berezia:** 'A political story'
- ▶ **Bertigo Saria:** 'Alejandra'
- ▶ **Ikusleen Saria:** 'Das Kind'

### IKUS-ENTZUNEZKO IKASLEEN LEHIAKETA

- ▶ **MU Saria Fikzio Onena:** 'Anonymous' (aipamen berezia 'Positibatzea'-ri)
- ▶ **MU Saria Dokumental Onena:** 'Jo ta jarri'
- ▶ **Ikusleen Saria:** 'Jo ta jarri'

### BASQUE CULINARY LEHIAKETA

- ▶ **Basque Culinary Saria:** 'Betiko eran'
- ▶ **Ikusleen Saria:** 'Tartare'

## Jakin-mina piztu zuten Benanek eta munstroak

Bergarako Musika Eskolak antolatuta, kontzertu pedagogikoaz gozatu zuten udal pilotalekuan

Jende ugari bertaratu zen atzo Bergarako udal pilotalekura, Musika Eskolaren eskutik sortutako *Benan eta Begigorri munstroa* istorioa jarraituz.

### Musika eta ipuina

Ipuina entzun aurretik, baina, Ahotsen soinua izeneko tartea eskaini zuten eta bertan parte hartu zuten Bergarako Orfeo

Gazteak eta Haurren abesbatzak. Hainbat kantu interpretatu zituzten, eta amaieran guztiek batera Ken 7 eta Itoizen kantak moldatu zituzten.

Ondoren, ipuinaren ordua iritsi zen eta tentuz jarraitu zuten istorioa: kostaldeko herri oso bat beldurtzen duen Begigorri munstroa garaitu zuen Benanek; hori bai, ez zen bakarrik egon, alboan izan zituen herritarren batasuna eta elkarlana.

2009an sortutako obraren bertsiok txalo ugari jaso zituen.



Benan superheroia, munstroa garaitzeko prest. | JOSETXO ARANTZABAL

teko eta ikus-entzunezkoen munduan amore ez emateko indarra ematen duela. Epaimahaiaren Saria ez ezik, Ikusleen Saria era jaso zuen dokumentalak.

KRONIKA

# Asier Etxeandiaren miraria Arrasaten

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Arrasateko Amaia antzokia jendez goraino betetzea (kontuan izanda ia 800 eserleku direla) ez dago artista askoren esku. Ezta bi orduz, ia atsedetik hartu gabe kantuan, dantzan eta kontu kontari aritzeko gaitasuna izatea ere.

Baina aurretik esandako baldintza horiei guztiei ikusle gehienak (denak ez esatearren) dantzan jartzea gehitzen badiogu, erronka ezinezkoa dela esango luke batek baino gehiagok. Gezurra. Posible da, Asier Etxeandiak zapatuan horixe bera egin zuen-eta.

## Zer da 'El intérprete'?

Norbaitek galdetuz gero, ez da erraza *El intérprete* zer den azaltzea. Kontzertua da? Bai, Asier Etxeandiak abestu egiten du. Antzerkia da? Bai, Etxeandiak antzeztu egiten du. Monologo bat da? Bai, horrelakorik ere egiten du bilbotarrak. Baina ikuskizuna hori guztia baino haratago doa: festa eta hausnarketa da, barrea eta negarra, intentsitatea eta bizipoza.

Obra hastean, Asier Etxeandiaren duela zehazki 30 urteko logelan sartzen da publikoa. Bakarrik abesten zuen logela horretan. Eta bederatzi urte dituen

Asierren lagun ikusezinak bihurtzen dira ikusleak. Haren beldurrrak jakingo dituzte, gabeziak, pentsamenduak, desirak. Antzez-

tuak, kantatuak eta kontatuak, era guztietara adieraziak.

"Bakarrik abesten dut bakarrik ez egoteko", dio obran zehar interpreteak. Eta abesten du, bai; nola gainera! Lou Reed, Tom Jones, Janis Joplin, Camilo Sesto, Madonna, La Lupe, David Bowie... Horien guztien kantuekin ausartzen da Etxeandia. Ausartu bakarrik ez, baita bere egin eta entzuleak aho zabalik utzi ere. Eta dantzan jarri. Bera bezala, lotsa barik. Bada-kielako nola bereganatu ikusleak, eta era berean nola sentiarazi apur bat libreago.

Ez da ohikoa izaten emanaldi bat amaitu eta argiak piztu

**"Hausnarketa eta festa da, barrea eta negarra, bizipoza eta intentsitatea"**

**"Badaki nola bereganatu ikusleak, eta era berean nola sentiarazi libreago"**

ostean, aktorea eta musikariak euren kamerinora joan arren, ikusle ugari oraindik ere dantzan eta kantuan jarraitzea. Hori ez da lortzen publikoari tekila tragoxka bat emanda (bai, horrelakorik ere gertatu zen); hori, miraria da.

FITXA
DIZIPLINA ANITZEKO 'SHOW'-A
<b>ASIER ETXEANDIAREN 'EL INTÉRPRETE'</b>
<b>Generoa:</b> Antzerkia, musika, bakarriketak.
<b>Non:</b> Arrasateko Amaia antzokia.
<b>Eguna:</b> Zapatua, martxoaren 29a.
<b>Iraupena:</b> Bi ordu pasatxo.



Asier Etxeandia Arrasateko emanaldiaren une baten. | IMANOL SORIANO



Ikusleak, zoratu beharrean. | I.S.



IMANOL SORIANO

## Arrieta edo Cano, hor gakoa

Huheziko aretoa bete egin zuen Goio Arrieta aktoreak egubakoitz gauean, Eskoriatzan. Iban Cano idazlearen gorabeherak jarraitu zituzten elkartutakoek *Lore bat* lanean, gustura jarraitu ere. Kontuak, kantuak, irudiak, umorea eta ironia tartekatu zituen hirugarren lan horretan Arrietak. Antzezlanaren estreinaldia, jaioterrian egin du oraingoan, baina maiatzean Aretxabaletan ere izango da.

## 'Muu!2' antzezlanak Yllana purua ekarri zuen Espalaira

MIRARI ALTUBE | ELGETA

Espaloiak 10 urte bete ditu eta Yllanak 20 urte. Eta zer hobeto orain dela 20 urte estreinatutako *Muu!* antzezlan, taldearen lehengoa, bi urteurrenok ospatzeko? Yllana konpainia madrildarrak Espaloiko publiko fidela

zuen zain Elgetan, 200 bat lagun, eta publikoak Yllana puru-purua topatu zuen egubakoitzean aurkeztutako *Muu!2* lanean.

Berba gutxi eta keinu asko; ironia, satira eta umorea; musika... hori izan zen beste behin ere Yllanaren ardatza, eta hortik

abiatuta ezohiko lau toreroren gorabehera xelebreak taula gainean. Publikoa, oster, gustura matxismoa, ausardia, aberria eta Espainiako jai nazionalaren gainean orain dela 20 urte egindako satira garratzari begira, oraindik ere gaurko gai diren horiei. Gustura eta istorioan guztiz sartuta, orain *koldarra*, gero *beldurtia*, oihukatuz toreroei. Hala, beste behin ere Yllanak eta Espaloiko publikoak bat egin zuten, elkarrekin gozatzeko.



Toreroa, besoak zabal-zabalik, Espaloiko taula gainean. | IMANOL SORIANO

# Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobeztatu abantailak. Abantailak ikusteko: [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

## ALZU

ALZU, S.L. Ehiza eta arrantza  
Arantzazuko Ama, 2 | Oñati  
Arropetan %10eko beherapena.

## ARGIA

ARGIA Aldizkaria  
[www.argia.com](http://www.argia.com)  
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).

## ARRIKRUTZ

o ñ a t i k o o b a k

ARRIKRUTZ Kobak  
Araotz Auzoa | Oñati  
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

## caravanas Oñate

CARAVANAS OÑATE  
Galdaragintza. Bizikletak  
Otadui Zuhaiztia, 25 | Oñati  
50€-ko erosketa egiteagatik, %10eko deskontua stockean dauzkaten oinetako eta ehun-gaietan. (ez du balio beste promoziotarako).

## Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda  
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza  
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



ESTACION SERVICIO ARRASATE  
Gasolindegia  
San Andres 7 | Arrasate  
%2ko gasolindegian erregaia erosituta.  
%2ko dendako produktuetan.



EUREKA ZIENTZIA MUSEOA Aisia  
Mikeletegi 43-45 | Donostia  
Sarrera bat erosituta eta kupaia+ Goiena  
Klubeko txartela erakutsita, sarrera bat doan.



GAES Entzumen zentroa  
Otalora 18 | Arrasate  
Zurradero 10 | Bergara  
%10eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin)



GAHIR Fisioterapia / Osteopatia  
Aranburuzabala 6 behe | Eskoriatza  
%50eko deskontua lehenengo kontsultan.



GUZTIZ EDER Estetika zentroa  
Kalebarria 29 | Oñati  
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).  
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajeetan.



KUTTUNA Estetika  
Aranburuzabala 19, behe | Eskoriatza  
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).



LASTAI  
Koltxoak eta umeentzako artikuluak  
Arkatza 1, 49 Pab | Gasteiz  
%5eko deskontu gehigarria helduentzako atsedean arloan.  
%5eko deskontua haur kotxe eta automobilerako segurtasun-aulkietan.  
%5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobilerako segurtasun-aulkietarako denboraldiko ehun-gaietan.  
%10eko deskontua denboraldiko haur-arropetan. (Beherapenetan eta eskaintza berezietan izan ezik).



LILURA EDERTZE INSTITUTUA  
Estetika zentroa  
Bidekurutzeta 7 | Bergara  
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterondoak (besapekoak opari).  
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.  
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.  
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.  
Bazkidearentzat eta lagunarentzat



MAGDALENA Gasolindegia  
Santxolopetegi auzoa | Oñati  
%2ko deskontua gasolindegian erregaia erosituta.



MULTIÓPTICAS Optika  
Juan Carlos Guerra, 1 behe | Arrasate  
Ibargarai, 16 | Bergara  
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun baturaerakoetan).



NAREN  
Fisioterapia eta osteopatia zentroa  
Belorrieta 5 behe | Aretxabaleta  
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).



NINIKA Loradenda  
Ramon Maria Lili, 8 | Bergara  
%10eko deskontua artikulu guztietan.



OÑATI GARAJEA  
Autoen garaje. Konponketak  
Goribar Auzoa 9 | Oñati  
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.



TXURI URDIN Itzotz jauregia  
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia  
%20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubi edo oporraldia).  
%10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

### GOIENA KLABEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera: Astelehenetan ere etxean. **Deskontuak:** Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05 | [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)



**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabazle!



## GURE MUSIKA TALDEAK

# 70eko hamarkadako rock progresiboa bizirik dago

## Camel-en arima berpizteko lanean dabil Zingira

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Iñigo Ibarrondo oñatiarraren, Sharon Stoner taldeko baxu-jotzailearen, proiektu berria da Zingira. Duela bi urte hasi zen forma hartzen 70eko hamarkadako rock progresiboa ardatz duen taldea. Canterbury soinu moduan ezagutzen denaren bueltan dago Zingira; Camel, Emerson, Lake & Palmer eta Soft Machine taldeen testigua hartuta.

Sharon Stonerreko Egoitz Olalde bateria-jotzailea eta Mikel Zarketa gitarrista proiektuan bidelagun dituen arren, Ibarrondok berak egiten ditu kantuak. Esan bezala, Ibarrondok duela bi urte ekin zion rock progresiboaren ildotik doazen kantuak konposatzeari, eta, horiek Olalderi erakutsi ostean, bateria-jotzaileak proiektu serioa egitera animatu zuen.

Oñatikiko stoner musikako estandarrea izandako taldekideak betidanik rock progresiboa gustuko izan duela esan du; are gehiago, Camel bere talde kutunetako delatortu du. Beraz, naturala denez, Zingiraren kantuak 70eko hamarkadan bere gorenari izan zuten musikatik edaten dute; hala ere, beste hainbat influentziak lekua dute. Tartean, Itoiz taldearen *Ezekiel* diskoa oso gustuko duela esan du.

### Bidaiaria aurrerapen bezala

Interneten ikusgai dagoen *Bidaiaria* izan da Zingirak erakutsi duen lehenengo pieza. Abenduan grabatu zuten, Azpeitiko Elektra Grabaketak estudioan Ander Barriuso teknikariarekin. Barriusok Sharon Stonerren maketa



Zingira, Elektra grabazio estudioan. | ZINGIRA

grabatu zuen, eta, estudioa martxan jarri zuenean, Ibarrondori deitu zion stoner taldeko kantu bat grabatzeko asmoz. Hala ere, Zingiraren lehenengoa grabatu zuten, *Bidaiaria*. Elekrika estudioan, bateria, baxua, gitarra akustikoa eta elektrikoa grabatu zituzten; horren ostean, Ibarrondok etxean melotroia eta hammond

organoa programatuta grabatu zituen. Bi instrumentu horiek rock progresibo klasiko kutsua ematen diote kantuari. Zingira proiekturako konposatu zuen lehenengo kantua grabatu zuen hirukoteak; hala ere, dagoeneko lan luzea grabatzeari begira daude.

### Diskoa aurten

Hasiera baten zazpi kantu izango dituen estreinaldia aurten grabatzeko asmoa du Zingirak, eta, lehenengo kantua entzunda, bide onetik joango dira. Kantuei azken zertzeladak eta moldaketak egiten dabil Ibarrondo.

Zuzeneko emanaldiez galdetuta, oraindik taldekideak behar dituztela esan du oñatiarrak. Estilo horretara moldatzen den organo-jotzailerik ezagutzen ez dutela esan du, eta baxu-jotzaile bat behar dutela gaineratu. Izan ere, Zingirarekin, Ibarrondo gitarra akustikoaz eta ahotsaz arduratzeko ilusia du.

### ESANAK

"Melotroiak eta hammond organoak sonoritate berezia eman diote 'Bidaiaria' kantuari"

IBARRONDO | KONPOSATZAILEA

# Hawkins Thugs, estudioko bigarrena prestatzen

Lehenengo lana bi aste barru kaleratuko duten arren, bigarreneko kantuak grabatu dituzte


J.D. | ARRASATE

Hawkins Thugs arrasatearrek estudioko bigarren lana izango dena grabatu zuten duela bi asteburu Aretxabaletako Nekrosounds estudioan. Lehenengo lana bi aste barru kaleratuko duten arren, laukoteak ez du denborarik galdu eta beste sei abesti grabatu ditu.

*My own Path* izango da Hawkins Thugs taldearen lehenengo lana eta Alemaniako Contra diskoetxeak argitaratuko du. Zazpi hazbeteko binilozko single formatuan kaleratuko dute, eta, horrez gain, kamiseta berriak jarriko dituzte salgai.

### Disko berria martxan

Martxoaren 20an sartu ziren bigarrenegoz Aretxabaletako Nekrosounds estudioan, eta bi egunean sei kantu grabatu zituzten. Lau kantu propio: *Best Memory*, *Never Believe*, *Lager Lads* eta *Respect for my soul*; The Press talde estatubatuararen *21 guitar salute*; eta Zakarrak taldearen *Skinhead*. Azken kantu hori izango da taldeko abeslariak, Tedyk, Zakarrak taldeari omenaldia egiteko prestatzen



Sid estudioan grabatzen. | J.H.T.

ari den bildumarako. Beste kantuekin zer egingo duten ez dute oso argi: berriz ere single formatuan kaleratu denak edo beste talde batzuekin lan partekatatu moduan kaleratu.

### Udan Bartzelonara

Abuztuaren 21etik 23ra ospatuko den Barcelona, Beach, Beer and Chaos jaialdian parte hartuko du laukoteak. Jaialdian Agressive Combatekin batera joango dira eta, besteak beste, The Templars, Agent Bulldog, The Crack, Booze & Glory eta Lion's Law taldeekin batera joko dute.

# Andaluziara joango da No Hope taldea Aste Santuan, 'Kale ustelak' lan luzea aurkezteko asmoz

No Hope aretxabaletarrak Andaluzia aldera joango dira Aste Santuan; oraingoz, bi kontzertu eskaintzera. Lehenengoa apirilaren 17an, egunean, izango da, Marinaledako Talo Talo aretoan. Hurrengo egunean, ostera, Kordobako probintziara joango dira; Mantillara, hain zuzen. Oraingoz bi kontzertu dituzten arren, hirugarrena lortzeko lanean dabiltza. Joan den urtean urtarrilean kaleratu zuten *Kale ustelak* diskoa aurkeztuko dute lehenengoz Andaluzian; Katalunian 2013ko apirilean aurkeztu zuten.

# Bailarako hiru taldek bat egin dute Aste Santurako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

*Ez egin otoitz gure alde, beranduegi da* lelopean, Dirty Brothers, Los Galerna eta Screamers and Sinners taldeek bat egin dute Aste Santurako. Hiru egunean furgonetan sartu eta Madrilen, Vigon eta Ferrolen eskainiko dituzte kontzertuak.

Lehenengo geldialdia Madrilgo Gruta 77 aretoan egingo dute; Semana Saña Fest jaialdian, apirilaren 17an. Hiru eguneko jaialdia izango da Carabanchel auzoko aretoan egingo dena eta Debagoieneko ordezkariak izango dira jaialdiari hasiera emango dietenak. Hurrengo egunean, eguba-

koitzean, Vigoko Master aretoko agertokira igoko dira; eta amaitzeko, Ferrolgo Fundação Artabrian izango dira.

### Hiru estilok egingo dute bat

Punk-rockaz, rock-and-roll instrumentalez eta psychobillyaz gozatzeko aukera paregabea izango da, eta baita Euskal Herritik kanpo taldeak ezagutzera emateko aukera bikaina ere. Izan ere, talde bakoitzak publiko mota bat du eta guztiak batzeko esperantzarekin doaz Madril eta Galizia aldera; Aste Santuko ohiturekin bat eginez, *rockaren prozesioa* egiteko asmoz.



Dirty Brotherseko Agina, Los Galernako Moreno eta Screamers and Sinnerseko Eneko birako kartelarekin. | GOIENA

**1. ETXEBIZITZAK**

**103. ERRENTAN EMAN**

**Arretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldia eta bainugela. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 285 350

**104. ERRENTAN HARTU**

**Antzuola.** Antzuolako bikote bat gara, eta Eusko Jaurilaritzaren Bizigune programaren bitartez etxea hartuko genuke errentan Antzuolan bertan. Etxe huts bat duen oro animatzen dut programa ezagutu eta bertan izena eman dezan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 676 61 15 47

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Interesatuok deitu telefono honetara: 691 16 96 43

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan, prezio ekonomikoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Arrasate.** Pertsona bakarrendako etxebizitza behar dut errentan. Mutil arduratsua naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 722 45 33 59

**Bergara.** Logela bakarreko etxebizitza errentan hartuko lukeen mutil bergarar gazte bat naiz. Gehienez ere 300 euro ordainduko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 83 82 15

**Bergara.** Gutxienez bi gelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Mila esker. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 03 33 56

**Bergara.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 654 24 13 27

**105. ETXEA OSATU**

**Arrasate.** Erdialdean logela bat ematen da errentan. Prezio ekonomikoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 82 69 77

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 629 80 77 73

**Bergara.** Erdigunean dagoen etxebizitza bat osatzeko bi gela daukat libre eta jende bila nabil. Hilean 270 euro dira pertsonako, gastuak barne. Interesatuok deitu telefono honetara: 672 68 57 77

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldia eta komuna erabilita. Leku lasai da. Hilean 260 euro. Kontraturik ez. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

**4. LANA**

**401. ESKAINTZAK**

**Elgeta.** Pertsona behar dugu, etxean bertan bizi izaten, nagusiak zaintzeko. Autoa beharrezkoa. 626 78 33 67 edo 686 30 09 29

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** Emakume euskalduna plantxa eta etxeko lanak egiteko gertu. 699 54 17 27

**Arrasate.** Emakume gertu etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko zein ospitalean gauak egiteko. 943 25 05 72 edo 658 70 56 94

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Fatima. 696 81 09 32

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Mari Karmen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 10 33 51

**Arrasate.** Emakumezko arduratsua gertu haurrak edo nagusiak zaintzeko, orduka, edo baita etxean bertan bizi izateko ere. Aukeran, Arrasaten nahia-go. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 943 04 45 38 edo 652 58 41 99

**Arrasate.** Neska euskalduna bulegoak, elkarrekin, tabernak eta abar garbitzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 686 27 45 81

**Bergara.** 49 urteko emakumea lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 89 82 39

**Bergara.** Adin ertaineko emakumea, informea dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

**Bergara.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Bertakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 696 84 19 51 edo 943 53 29 18

**Bergara.** Prest adineko pertsonak edo umeak zaintzeko. Eskarmendua daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 665 75 41 32

**Debagoiena.** Bergarako neska lanerako gertu, orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 658 31 06 20

**Debagoiena.** Emakume arduratsua, informea, garbiketara lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 696 27 25 34

**Debagoiena.** Emakume euskalduna lanerako gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 606 50 25 67

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 02 00 81

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsonak zaintzen edo bestelako lanetan jarduteko. Sonia. 632 84 02 30

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. Gauze ere bai. Garbiketarako, nagusiak zaintzen eta abar. 604 11 12 18

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Eskarmendua daukat nagusiak eta umeak zaintzen. 673 78 08 99 edo 698 39 83 62

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile lanak egiteko nituzke, nagusia eta gaisoak zaindu edo etxean laguntzen. Opor garaian ere bai. 602 516 728

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea sukaldian lan egiteko gertu. 619 18 81 86

**Debagoiena.** Garbiketara lanak egiten ditut eta haurrak zaindu ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 47 81 87

**Debagoiena.** Gertu nago nagusiak zaindu, garbitasun lanak egin edo etxeko lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. 632 98 17 79

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO**

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.**

**Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

**- Profesionalen moduluak.**

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan eman
- 104. Errentan hartu
- 105. Etxeak osatu
- 106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

- 201. Saldu
- 202. Erosi
- 203. Errentan eman
- 204. Errentan hartu
- 205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**

- 301. Saldu
- 302. Erosi
- 303. Errentan eman
- 304. Errentan hartu
- 305. Bestelakoak

**4. LANA**

- 401. Eskaintzak
- 402. Etsakerak
- 403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

- 501. Jaso
- 502. Eman
- 503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Alokatu
- 603. Konpondu
- 604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

- 701. Saldu
- 702. Erosi
- 703. Eman
- 704. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

- 901. Agurak
- 902. Harremanak
- 903. Deiak
- 904. Bestelakoak

**10. RELAX**

- 801. Saldu
- 802. Erosi
- 803. Eman
- 804. Hartu
- 805. Trukatu
- 806. Galdtu
- 807. Aurkitu
- 808. Bestelakoak

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 60314 59 17

**Debagoiena.** Lorazain eta kofratzaile lanetan lan egiteko nuke. Tituluduna, esperientziaduna eta gidabaimena. 633 84 65 30

**Debagoiena.** Lan bila nabil umeak zaindu, atariak garbitu edo etxeko garbitzen. Esperientziaduna. Egunez disponibilitate osoa. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72

**Debagoiena.** Lan bila nabil, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Lege agiriak eguneratuta daukat. Interesatuok deitu telefono zenakira: 662 23 13 01

**Debagoiena.** Gizona gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izaten edo egunez edo orduka. Garbiketara edo peoi lanetan ere bai. Erabateko prestutasuna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 07 12 06

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu, etxean bertan bizi izaten, egun osoz edota orduka. Gauze ere bai. Garbiketarako, nagusiak zaindu eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 620 12 78 46

**Debagoiena.** Lan bila nabil, pintorea naiz. Margoketa lanetara, garbiketara edo peoi lanetara norbait behar baduzu deitu telefono honetara. Hurmi. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 32 31 83

**Debagoiena.** Mutil arduratsua etxeko lanak egiteko nituzke. Sukalde laguntzaile eta baso, baserri eta abarrek lotutako lanak ere egiteko nituzke. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

**Debagoiena.** Mutila gertu lanerako: gidari, zerbitzari, sukalde laguntzaile, margoketa lanetan edota nagusiak zaindu. 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila gertu garbitasunak egiteko taberna, elkarrekin, bulego eta abarretan. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 722 45 33 59

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Esperientzia daukat nagusiak zaindu, garbiketara, zerbitzari, banatzaile eta abarretan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 691 16 96 43

**Debagoiena.** Mutil arduratsua eta esperientziaduna lan bila: nagusiak zaindu, etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten zein bestela, ospitalean, egoiztatan eta abar. Orduka eta asteburutan ere bai. Bestelako lanak ere egiteko nituzke. Berehalaz hasteko moduan. Deitu zenbaki honetara: 685 42 72 80

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu lan egiteko nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. Garbitasun lanak ere egiteko nituzke eta baita umeak zaindu ere. Astelehenean ostiralera. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 682 31 97 37 edo 603 22 53 66

**Debagoiena.** Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaindu, orduka garbiketarako, zein nagusiak lagundu edo pasean ateratzeko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua nagusiak zaindu edota atari, elkarrekin eta abarrek garbiketarako egiteko gertu. Baita etxeko lanak egiteko ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 08 14 33

**KAZETARIA BEHAR DA**

Oñatiko Eltzia kazetaria behar du proiektuaren gaineko informazioa jaso eta zabaltzeko, asteen 8 orduko dedikazioarekin.

CV-ak apirilaren 2rako: laneskaintzak@gmail.com

**Debagoiena.** Neska arduratsua, sukaldaritza eta geriatria oinarriko ikasketaduna, lanerako gertu. Nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko nituzke, etxean bertan bizi izanda, egun osoz edo orduka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu nagusiak zaindu eta etxeko garbitzeko. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta umeak zaindu edo garbiketara lanetan jarduteko. Orduka, egun osoz edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 48 47 76

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 619 18 81 86

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu: sukalde laguntzaile, pertsonen zaintza, garbitasun eta abar. Autoa daukat. Eskoriatzan bizi naiz baina Debagoiena guztian lan egiteko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

**Debagoiena.** Neska prest gauden lan egiteko, ospitalean edo etxean. Geriatria edo laguntzaile tituluduna. Autoarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Pertsonen zaintza lan egiteko nuke. Geriatria, etxe etxeko laguntzaile eta profesional ziertagiriak daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 17 81 01

**Debagoiena.** Mutil arduratsua orduka lan egiteko gertu: garbiketara, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo nagusi eta umeak zaindu. 631 05 34 15

**Garbitasuna.** Atari, elkarrekin, taberna eta abarrek garbitzen lan egiteko nuke. Lege paperak eguneratuta daukat. Miguel. Interesatuok deitu telefono honetara: 722 45 33 59

**Klinika laguntzaile.** Esperientziadun klinika laguntzaile prest nagusiak, bai etxean eta bai ospitalean zainduko. Orduka edo gauze. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 609 98 02 52

**Nekazaritza arloan, lan egiteko nuke.** Ganaduak zaindu, ortuko lanak egin, base-ria txukundu eta abar. Edozein lan egiteko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 17 45 11

**Oñati.** Emakume gaztea haurrak zainduko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 17 10 15

**Pertsona nagusiak zainduko nituzke.** Pertsona nagusiak zainduko prest nago, orduka edota egun osoz. 632 17 45 11

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 17 45 11

**Zaintza lanak.** Geriatria ikasketak eta eskarmendua duen emakumea nagusiak zainduko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 41 13 86 eta Mari Carmenengatik galdetu.

**5. IRAKASKUNTZA**

**501. JASO**

**Automatak.** Siemens 1 automaten eskola partikularrik emango dizkidan norbait behar dut, Bergaran edo inguruan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 660 46 34 93 edo 943 76 15 76

**703. EMAN**

**Cockerra.** Cockerra ematen da opari. Zapzi urte dauka. Txipa eta osasun agiriak dauka. Deitu telefono zenbaki honetara: 671 45 96 01

**8. DENETARIK**

**802. EROSI**

**Bizikleta estatikoa.** Bigarren eskuko bizikleta estatikoa erosi edo hartuko nuke. Salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 649 38 14 00

**Kutxa-izozkailua** erosi nuke. Salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 656 75 76 98

**Lotarako zakua.** Negurako bigarren eskuko lotarako zakua erosi nuke. Salgai baduzu deitu telefono zenbaki honetara: 628 51 22 78

**Trangia erregailua.** Alkoholarekin dabilen bigarren eskuko Trangia erregailu kita erosi nuke. 660 43 64 29

**804. HARTU**

**Bizikletak.** Erabiltzen ez dituzun edo botatzeko daukazu bizikletak jasoko nituzke. Berdin da zein egoeratan dauden. Bila joango nintzateke. Inaki. 699 06 23 95

**806. GALDU**

**Jaka beltza Bergaran.** Larunbat gauean, martxoaren 8an, Bergarako Usoa edo Ariznoa tabernetan, norbaitek nire larruzko jaka beltza eraman da berea utzi zuen. Nire emakumeendakoa da eta utzitakoa gizonendakoa. Nirekin harremanetan jarredila eskertuko nuke. Naiara. 606 82 45 52. Mila esker.

**Lepoko zintzilikarioa.** Harri bitxi zuri handi bat eta 3 txiki-kin gorri, berde eta txurirekin atondutako zilarrezko zintzilikarioa galdtu nuen martxoaren 18an ospitale inguruan. Balio sentimental handia du. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara mesedez. Mila esker. 660 82 61 81

## ETXKO SUKALDERAINO

## J. Sang | Governors musika taldeko abeslaria

- ▶ Bihotz samurra erakutsi du musika gogor samarra egiten duen musikariak
- ▶ 22 urte daramatza esaten egiten duen azkeneko diskoa izango dela

## "Jatea izugarri gustatzeaz gainera, kozinatzea ere oso gustuko dut"

UBANE MADERA | ARRASATE

Governors taldeko abeslari izateaz gain, Arrasate Musikaleko Big Bandeko kolaboratzaile ere bada Juan Corral Duran (Gasteiz, 1975). Eta Fjord, Brutal Melody eta Ekon musika taldeetan jardundakoa da, bateria jotzen eta abesten.

### Zein da J. Sang?

Publikoki eta gauez Governorseko musikari eta egunez, Lanbide Heziketako irakaslea Zuazola-Larraña institutuan. Arlo pertsonalean, akats asko eta bertute bat edo beste dituen pertsona naiz.

### Zela konpontzen zara sukaldean?

Jatea izugarri gustatzeaz gainera, kozinatzea oso gustuko dut, eta, batez ere, nik egindakoa probatzen dutenen aurpegiak ikustea; abesti bat egin eta entzuten duenaren erreakzioaren esperotan zaudenean moduko sententzia da.

### Zein da zure espezialitatea?

Oso ondo irteten zaizkidan batzuk ditut: erreboiloa labean, etxeko saltsa bereziarekin eta panadera patatekin; hezur, urdai-azpiko eta barazki saltsarekin prestatzen ditudan garbantzuak; eta azkenaldian postreekin nabil.

### Zertara gonbidatuko zenuke lagunik onena?

Sukalderitza txangoetarako lagun onenetako bi (Jimmy, SAKo gita-

rra-jolea eta Jose Uribealgo) gonbidatu ditut, adibidez, babak jatera Gatzagako Arrate jatetxean. Haluzinanteak. Eta txuleta jatera, berriz, Tolosako Casa Julianera. Inoiz jan dudak txuletarik onenak dituzte, eta asko jan ditut.

### Eta etsairik handiena?

Ez nuke gonbidatuko.

### Zeinekin eseriko zinateke mahian?

Askorekin; zerrendaren erdia baino gehiago miresten ditudan

musikari handiak lirakeke. Euskal Herriko pertsona ezagunen artean, Arnaldo Otegi aukeratuko nuke, bi arrazoiengatik: interesgarria iruditzen zaidalako eta horrek esan nahiko zukeelako kalean dagoela, dagokion lekuan, gainontzeko euskal presoekin batera.

### Zergatik musikari?

Bizitzako zatirik handienean musikari izan naiz eta maitasun-gorrotto harremana da. Sormenari dagokion arloa maite dut, baina beste batzuk gutxiago. Ulertzen dut, hala ere, beharrezko direla. Nahiko ona naiz musika eta kantutak egiten; ingurukoei beti esaten diet azken diskoa dela, baina beste bat egiten dut... eta ja 22 urte dira.

### Musikan, zein miresten duzu?

Mike Patton, Dimebag Darrell, 60ko eta 70eko hamarkadetako Tom Jones, Hans Zimmer...

### Gidatzeko, ze musika nahiago?

Rocka, metala, popa, elektronikoa... Alabarekin, berriz, Pirritx eta Porrotx, hark agintzen du.

### Musikari ez bazina...

Aktore izatea gustatuko litzaidake, baina ez nuke balioko, sekula ez dut jakin emozioak ezkutatzen. Eta musikari izan aurretik, futbolekin jokatu nuen. UDArekin jokatu nuen, baina gero,



J. Sang. kontzertu batean, abesten. | GORKA LASA

## "Oso beldugarri dator etorkizuna, ez dagoelako norberaren esku"

musikak irentsi egin ninduen.

### J. Sangek zer maite du bereziki?

Ohetik jaiki eta oheratu arte, nire bikotekidea eta alaba.

### Iratxoek hiru desio eskainiz gero...

Niretzat eta ondokoentzat zoriontasunez betetako bizitza; beste bi desioak nahi kolektibo, politikotara... bideratuko nituzke.

### Bizimoduan ezinbestekoa da...

Sekula ere ez amore ematea.

### Damu zara...

Ia egunero damutzen naiz zerbaitegatik. Gauza txikiak batzuetan,

handiak beste batzuetan...

### Zer errepikatuko zenuke?

Balira (Indonesia) bikotekidearekin egin nuen bidaia. Askotan dut gogoan agobiatuta nagoenean.

### Zerk beldurtzen zaitu?

Etorkizunak. Egoera kontrolpean izatea gustatzen zait, baina orain datorrena oso beldugarria da, ez dagoelako norberaren esku.

### Etxera iritsi, sofán eseri eta...

Gauera arte ez naiz eseri ere egiten. Ahal dudanean, filmak ikusi eta alabarekin jolastea izugarri gustatzen zait.

### Nora egingo zenuke ospa?

Lehen esandako lekura: Balira.

### Ze esaldi konpartituko zenuke?

*Guztiok gara jeinuak. Baina arraina arbolak eskalatzearen epaitzen baduzu, mozolo hutsa dela pentsatuz bizi izango da beti* (Albert Einstein).



**Lehen platera:** Foiea mahatsarekin.

**Bigarrena:** Idi-txuleta.

**Postrea:** Ondo prestatutako gin-tonika.

**Edatekoa:** Ardo beltz ondua.

## PATRIZIAREN GUTIZIA



Patrizia Vitelli

## YAKISOBA

Probatu nituen lehen yakisobak Gernikako Ikegutxi jatetxea zenekoan dastatu nituen. Finlandian bizi izan nintzenez nire elikagaien piramidean oinarritzekoak izan zirenak bigarren mailan geratu ziren fideoez berba egiteko orduan.

Orain dela hilabete gutxira arte ez nekiena zen plater hori etxean presta zitekeenik arrakasta erabatekoarekin eta bidean galdu barik. Hori egiteko, ezinbestekoak dira osagai izarrak: yakisoba saltsa eta soba fideoak, biak ala biak ekialdeko jakiak saltzen dituzten saltokietan esku-ara daitezkeenak.

### Osagaiak hozkailuan

Eta gainontzeko osagaiak, berriz, norberaren hozkailua zabaldua aurki daitezke: barazkiak, oilaskoa, olio... eta nahikoa. Horien arteko nahasketa gure gogoak



Yakisoba fideoak, barazkiekin eta oilaskoarekin. | PATRIZIA VITELLI

ematen duenaren arabera egin daiteke, ez dago-eta inongo errezeta ofizialik.

### Txina eta Japonian

*Yakisoba* berbari dagokionez,

bere esanahi literala da frijitutako fideoak. Txinan du jatorria, han *chow mein* izena dute fideo horiek. Edozelan ere, gaur egun sukaldaritza japoniarrean erabat barneratuta daude. Menuko

## Fitxa

- ▶ Denbora: 40 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★

### OSAGAIK

- ▶ Soba fideo siku pakete bi.
- ▶ Yakisoba saltsa.
- ▶ Bi azenario.
- ▶ Piper berde italiar bat.
- ▶ Tipula more bat.
- ▶ Hiru berakatz kimu samur.

beste plateren osagai moduan atera daitezke, baina baita lehen plater edo plater nagusi moduan.

Errezeta hori prestatzeko baldintza bakarra da, *sine qua non*, izen bera duen saltsa erabiltzea. Hala eta guztiz ere, nagia sartzeko bazezue, nik landutako errezeta proposatuko dizuet, eder asko dago-eta!

## Prestaketa

1. Barazkiak juliana eran txikitu, tira finatan.
2. Wok batean salteatu, olio tanta batzuekin eta gatzarekin.
3. Oilaskoa ere salteatu, hori ere dadotan edo tiratan zaituta.
4. Pasta egosi, berorren paketean dakartzan jarraibideen arabera.
5. Pasta egosita dagoenean, wokera bota, barazkiekin eta okelarekin batera. Eta gero horri yakisoba saltsa gehitu, norberaren gustuaren arabera, eta gero guztia ondo nahasi, egurrezko koilara erabilia.



Haur eta heldu asko joan ziren aurkezpen ekitaldira. | EUSKALMET

## Harrera ona izan du Euskalmeten mugikorrerako aplikazio berriak

Astebetean 15.000 deskarga baino gehiago izan ditu zerbitzuak

JULEN APERRIBAI | ARRASATE

Erantzun ona jaso du Euskalmet meteorologia agentziak martxan jarritako aplikazio berriak. Azkar lortu du 15.000ko deskarga kopurua gainditzea eguraldiaren informazioa gure eskuko gailu teknologietara ekarriko digun zerbitzu horrek. Guztiz doakoa izango da eta eskuragarri egongo da Android, iPhone eta BlackBerry sistema eragileetan.

Aplikazio horri esker, erabiltzaileek eguraldiaren gaineko informazioa jaso ahal izango dute, Euskal Herriko edozein txokotan egonda ere. Mugikorrean edo tabletean abisu eta alerta meteorologikoen berri izateko aukera ere ematen du. Eta, horretarako, erabiltzaileak momentu jakin bakoitzean non dagoen jakinaraz diezaiokie.

Aplikazioak eskaintzen duen beste funtzio bat radarraren seinalea zuzenean ikusteko aukera da. Modu horretan, prezipitazioak edo ekaitza noiz datorren ikus dezake erabiltzaileak.

**Teknologia berrietara egokitu** Euskalmeteko prentsa arduradun Ignacio Javier Orbe Diazen arabera, "gaur egungo teknologia berrietara egokitzeko beharrari" erantzuten dio aplikazioak. "Agentziak Twitterren dituen jarraitzaile kopurua ikusita, zerbitzu praktikoagoa eskaini nahi genuen", dio.

Arabako Parke Teknologikoan dagoen Euskalmeten zentroan egin zuten aurkezpen ekitaldia martxoaren 23an (domeka), Munduko Meteorologia Egunarekin bat eginda. Estefania Beltran de

Heredia, Eusko Jaurlaritzako segurtasun kontseilaria, izan zen ekitaldian jendaurrean hitz egin zuenetako bat, eta Euskalmeten lana goraiatu zuen: "Lan honek eguraldiaren gaineko informazioa egunean 24 ordukoa eta urtean 365 eguneko ia zate ahalbidetzen du".

**Neguko denboraleak**

Bada, aurkezpen ekitaldia aprobetxatu zuten aurtengo neguan izan diren denboraleen balorazioa egiteko. Hain zuzen ere, kostaldean izan diren olatuak "ohikoak baino handiagoak" izan direla onartu du, baina "normaltasun baten barruan" kokatu behar ditugula.

Urtarrilaren 4tik martxoaren 4ra bitartean zazpi alerta laranja eta bi alerta gorri izan dira.

## Turkiako Gobernuari ez zaio ondo atara Twitter blokeatzeko ahalegina

Blokeoa deuseztatzen jakin dute hango herritarrek

J.A. | ARRASATE

Joan den martxoaren 21ean Twitter erabili ezinda esnatu ziren Turkiako herritarrek. Gobernuak sare sozial hori erabilerarik gabe uztea erabaki zuen, aurreko egunetan mehatxu hori egin ostean. Recep Tayyip Erdogan lehen ministroa ustelkeriarekin lotzen zuten mezuak sarean ugaritu izanak ekarri zuen Gobernuaren haserre.

Internetek eskaintzen dituen aukerak, ordea, zabalak dira. Twitter sare internazionala izanda, URL kodea aldatzea ezinezkoa da. Beraz, nahikoa da DNS (Domain

name System) sisteman aldaketak egitea Twitter normaltasun osoz erabiltzeko. Hori aprobetxatuz, asko dira debekuari jaramonik egin ez dioten herritarrek. Erabiltzaileak pausoz pauso Gobernuaren blokeoa saihesteko azalpenak zabaltzen ere hasi dira.

Bada, Erdogan alderdiak aurkako nahiko aldarri zituen, eta areagotu egin dira orain, Twitterren blokeo egoera horrekin. Adierazpen askatasuna urratu izana leporatu badiote ere, ez da kikildu lehen ministroa eta beste webgune batzuk zentsuratzeko mehatxua ere egin du.

## LumoBack, postura egokian eserita egoteko sentsorea

J.A. | ARRASATE

Ordenagailu pantaila aurrean eserita denbora luzez egoteak eragindako bizkarreko minak ekarri zion makina hori sortzeko ideia Andrew Chang ingeniariari. Eserita gaudeanean postura desegokiren bat hartuz gero jakinarazi egiten digun prototipoa asmatu zuen Lumo enpresak orduan.

Prototipoaren arrakasta ikusita etorri zen *Lift* izeneko bigarren bertsioa, iman baten bidez arroparen azpian jartzen den gailua. Udan helduko da merkatura makina hori eta 99 dolar balioko du.

## Informazioa jaso eta argitara eman dezakeen robota, egunkariaren esku

J.A. | ARRASATE

Albiste honen beraren berri ematen ari den kazetariaren lanbidearentzat mehatxu izan litekeen robot bat asmatu dute Los Angelesen (AEB). Izan ere, Ken Schwenke kazetariak informazioa bildu eta modu ordenatuan argitara emateko gai den robota jarri du martxan.

Ameriketako Estatu Batuetako mendebaldean ohikoak dira mugimendu sismikoak, eta horiek lekua dute bertako prentsan. Schwenkek lurarren mugimenduen inguruko testuen ezaugarriak programatu zizkion robotari eta hurrengo mugimenduaren zain geratu zen. Lurrikara txiki bat izan eta hurrengo goizean egin zuen gailuak bere lana. Albiste idatzita zegoen eta argitaratzea besterik ez zitzaion falta. Botoi bat sakatzeko hutsarekin egin zuen hori eta gertatutakoari buruz informatzen aurrea izan zen modu horretan.

Arrakasta lortu ahal izateko, meteorologia zerbitzuen informazioa jasotzen duen Quakebot programa beharrezkoa izan da. Kasu horretan, mugimendu sismikoa gertatu eta

hiru minutu besterik ez zen behar izan albiste egunkariaren argitaratzeko prest egon arte. 4,4 graduko lurrikara izan zela ere zehazten zen.

*Los Angeles Times* egunkari ezagunean atera zen berria. Bada, robotaren eraginkortasuna ikusita, egunkariaren zuzendariak hasi dira beste albiste mota batzuetarako erabiltzen pentsatzen. Beste gertakizun batzuk jasotzeko programatzea posible ikusten dute; kirol informazioa edota lapurretak, adibidez. Horretarako, nahikoa litzateke kasu bakoitzean makinari xehetasunak zehaztea.

**Kazetaria alboratu gabe**

Hala ere, asmakuntza hori ez dagoela kazetaria ordezkatzeko egina azaldu zuen Schwenkek, *Slate Magazine* aldizkarian. "Denbora luzea aurrezten digu eta, historia jakin batzuetarako, datuak beste edozein pertsonak bezain zehatz lor ditzake", haren hitzetan. Kazetaritzan makina hori sartzea "intergarritzat" jo du, gainera, hain mekanikoak ez diren beste zeregin batzuk egiteko.



L.A. Times egunkariaren atera zen albiste. | RYAN QUICK

## Ilargian egon den kamera bakarra enkantean saldu dute Vienan, 660.000 euroren truke

Yodobashi Camera etxetresna elektrikoaren katearen sortzaile Terukazu Fujisawa enpresari japoniarrak erosi du, bere museo pribatuan jartzeko. 1971n Apollo 15 espediziora eraman zuten eta Jim Irwin astronauta estatubatuarrek erabili zuen. 80.000 eurokoa zuen enkantean hasierako prezioa *Hasselblad* izeneko modeloak. Misiora eraman zituzten gainontzeko kamerak espazioan askatu behar izan zituzten, kapsulan espazio handiagoa edukitzeko. Horrek, ordea, 299 argazki atera zituen ilargian.

## Twitterrek Twitter Music zerbitzua kendu du AppStoretik, martxan jarri eta urtebetera

Urte bat besterik ez du egin sarean Twitter Music aplikazioak; 2013ko apirilaren 18an jarri zuten martxan. Erabiltzaile jakin batek Twitterren jarraitzen zuten jendeak musikaz hitz egindakoa kontuan hartuta, talde berriak aurkitzen laguntzeko balio zuen. Aplikazioa jaitsita dutenentzat funtzionatzen jarraituko du apirilaren 18ra arte. Dena den, Twitterrek alor honetan lanean jarraitzea ez du baztertu eta eduki musikala izango duten aplikazio gehiago garatuko dituztela esan dute.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Eufemismoen aroa

Ustez sexuari buruz hitz egitea inoiz baino libreagoa den garai hauetan, inoiz baino leungarri gehiago erabiltzen dira preserbatiboen iragarrietan. Sexu kontuekin zuzenean zerikusia ez dituzten produktuak iragartzeko haragiaren usaina nonahi suma daiteke eta batzuetan, tamalez, matxismoaren zantzuak ere antzeman ditugu.

Baina kondoiak iragartzeko aldiz, era guztietako trikimailu sortaileak erabiltzen dituzte, zergatik? Legeak ez duelako zakil baten marrakia irudikatzen uzten, zergatik?

Horren ordez, preserbatibo iragarkietan, DJ bat ikusi dugu disko arrosa eta urdin batekin, mutilak eta neskak orgasmora aldi berean iristeko kondoi magiko batzuk iragartzen; edo erdi-aroko bi zaldun, euren ezpatekin alde-raketa barregarri eta tamalgarria eginez, eta lubrikatzaile iragartzeko emakume koardrila bat azaltzen da arrosa bat usaintzen (?).

Preserbatiboa normalizatu nahi badugu, utz ditzagun lelokeriak eta egin ditzagun gauzak era sanoan. Ez diot bi tipo jarri behar ditugunik jo eta ke larrua jotzen, baina, beharrezkoak dira horrenbeste eufemismo?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 31	MARTITZENA, 1	EGUAZTENA, 2	EGUENA, 3	EGUBAKOITZA, 4
<b>'Berriak'</b> Asteburuan gertatutako albiste garrantzitsuenak eta eguneko kontuen berri, albistegietan.   14:20	<b>'Auzorik auzo'</b> Aretxabaletako Galar-tza auzoan izango da Mireia Bikuña. Jon Murgiondo izango du bidelagun.   20:00	<b>'Erakusleiho'</b> Aretxabaletan kokatutako Amaia Berri iturgintza ezagutuko dugu aste honetako erakusleihon.   20:00	<b>Bideoklipak</b> Gazteek gustuko duten bideoklipak jarriko ditu ikusgai Amaia Txintxurreta DJak.   19:30	<b>'Tertulia'</b> Larraitx Zeberio aurkeztutako tertulia izango da egubakoitzean hainbat gonbidaturekin.   19:00
12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Ikusi irratia	12:00 Tripa-zorri	12:00 Ikusmira	12:00 Ikusmira
13:00 Ikusmira	12:55 Tripa-zorri	12:30 Klaketa	12:20 Sagarrondotik	12:20 Sagarrondotik
13:20 Zorion Agurrak	13:25 Amaia DJ	13:10 Ikusmira	13:05 Ikusi irratia	13:05 Bertso saioa
13:30 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	13:30 Kantari	13:50 Zorion Agurrak	13:30 Kantari
14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Tertulia	15:00 Harmailatik	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:00 Pedalka	15:00 Pedalka	15:00 Pedalka
16:30 Berriak	15:55 Zorion Agurrak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:00 Amaia DJ
17:00 Kantari	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein
17:30 Sagarrondotik	16:30 Berriak	17:00 Kantari	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
18:20 Zorion Agurrak	17:00 Ikusmira	17:30 Klaketa	17:00 Ur eta lur	16:30 Berriak
18:30 Berriak	17:15 Sagarrondotik	18:15 Ikusmira	17:30 Tertulia	17:00 Klaketa
19:00 Amaia DJ	17:55 Bertso saioa	18:30 Berriak	18:30 Berriak	17:45 Ur eta lur
19:30 Harmailatik	18:25 Zorion Agurrak	19:00 Pedalka	19:00 Pedalka	18:30 Berriak
20:00 Debagoiena zuzenean	18:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Amaia DJ	19:00 Tertulia
20:30 Berriak	19:00 Pedalka	20:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Kantari	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	20:30 Berriak
21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	22:00 Pedalka	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Amaia DJ	21:30 Berriak
23:00 Berriak	21:30 Berriak	23:00 Berriak	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Tertulia
23:30 Gurean gaur	22:00 Pedalka	23:30 Gurean gaur	23:00 Berriak	23:00 Berriak
23:50 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak	23:50 Debagoiena zuzenean	23:00 Gurean gaur	23:30 Gurean gaur
	23:30 Gurean gaur		23:50 Debagoiena zuzenean	
	23:50 Debagoiena zuzenean			

ARRASATE IRRATIA

Arrasate Irratian musika 24 ordutan daukazue entzungai

Arrasateko Otalora Lizentziaduna kaleko eraikinean dago kokatuta Arrasate Irratia eta bertan izan ditugun obrak direla-eta emisioa etenda eduki behar izan dugu. Hala ere, dagoeneko airean gara berriro ere eta musika entzungai daukazue egunero, egun guztian zehar, 107.7ko uhinetan.

Izaki Gardenak taldearen kontzerturako sarrerak

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, Izaki Gardenak taldeak joko du gaztetxean egunero. Bada, egunero bertan zozketatuko ditugu sarrerak. Zozketan parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera.

TELEBISTA LABUR

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa nola egiten den ikusi ahalko dugu

Bergaran Ibilgailuen Azterketa Teknikoa nola egiten duten ikusi ahalko dugu gaur, astelehena, Debagoiena Zuzenean saioan 20:00etan, 22:00etan eta 00:20an. Asteburuan Amaia Antzokian egondako *El intérprete* ikuskizunari buruz ere jandungo gara.

TELE-ALBISTEAK

Gorlako igoeraren errepasso zabala ikusi ahal izango duzue gaur 19:30ean eta 22:00etan

Antzuolako Uzarragako igoera ere jasoko dugu gaurko 'Harmailatik' saioan

**AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE**  
Atzo, domeka, jokatu zen aurtengo Gorlako igoera. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izan den proban amateur mailako ziklistarik onenak batu ziren eta lasterketaren nondik norakoak ikusi ahal izango dituzue gaur, astelehena, eskainiko dizuegun *Harmailatik* saioan 19:30ean eta 22:00etan Goiena telebistan.

Bailarako hainbat ordezkari izan genituen lasterketan, hauek hain zuzen: Debarrena taldeko Etxabe anaiak, Asier Taboada, Julen Irizar eta Jon Rivero, Gipuzkoa taldeko Aitor Umerez eta Eneko Lizarralde, eta Zirauna Infisport taldeko Alex Aranburu eta Iker Eskibel. Horien jarraipen zabala ikusi ahal izango duzue saioan, besteak beste, eta prota-



Aurtengo Gorlako igoerako argazki bat. | GOIENA

gonisten lasaterketa amaierako sentazioak ere nolakoak izan ziren jakin ahal izango duzue eurek emandako adierazpenenak

ere entzun ahal izango ditugulako saioan.

Antzuolako Uzarragako igoera ere ikusi ahal izango duzue.

Ima Beristain Antzuolako alkatea martitzenean Goiena telebistan

Hiri hondakinak, AHT, bidegorria edota Udal aurrekontuari buruz hitz egingo du 'Harira'-n

**A.T. | ARRASATE**

Bihar, martitzena, Antzuolako alkatea izango dugu Eneko Azkaratek aurkezten duen *Harira* saioan 22:00etan.

Alkateak herrian pil-pilean dauden kontuen berri emango du, hala nola, hiri hondakinak, AHT, bidegorria, autobusa herritik ateratzeko bigarren fasea, herriko argiteria, Udal aurrekontua edota aurtengo inbertsio nagusienak izango ditu hizpide.

Alkateaz gain, baina, oposizioiko indar nagusiak ere aho-tsa izango du saioan eta, hala, Maria Eugenia Arrizabalagak, EAJ-ren bozeramaileak, Bilduren gobernu jardueraren balorazioa egin ahal izango du. Horri ere erantzungo dio alkateak.



Ima Beristain alkatea. | GOIENA

Bidali zuen galderak

Herritarrok ere izango duzue aukera saioan galderak egiteko. Bidali Whatsapp 688 69 00 17ra, idatzi Twitterren [#harira](https://twitter.com/harira) traolarekin edo [harira@goiena.com](mailto:harira@goiena.com) era bidali mezua.

## ZORION AGURRAK



**ANTZUOLA**  
**Maddi Alonso**  
Apirilaren 5ean, 4 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, pitxin! Ondo pasatu zure egunean eta belarritik lau tirakada Xabiren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



**ESKORIATZA**  
**Martin Berezibar**  
Apirilaren 5ean, 9 urte.  
Zorionak, txapeldun! Zelako ondo pasatuko dugun txokolatadan! Zure lehengusinak eta anai-arrebak desiatzen gaude eguna heltzeko.



**OÑATI**  
**June Urzelai**  
**Txintxurreta**  
Apirilaren 4an, 4 urte.  
Zorionak, printzesa. Lau tirakada goxo belarritik eta ondo-ondo pasatu eguna, etxeko danen partetik.



**BERGARA**  
**Anouk**  
**Muruamendiaraz**  
**Arevalillo**  
Apirilaren 4an, 5 urte.  
Zorionak eta lau muxu potolo. Urkoren eta etxekoen partetik. Asko disfrutatu eguna.




**BERGARA**  
**Enara Martin**  
**Unamuno**  
Apirilaren 4an, 2 urte.  
Handitzen, handitzen, ari naiz handitzen... Bi urte bete ditxut. Zorionak, Enara.



**BERGARA**  
**Naia Unamuno**  
**Martinez**  
6 urte, apirilaren 4an.  
Zorionak eta patxo potolo bat, sorgintxo, denon partetik eta, bereziki, Marenen partetik.



**BERGARA**  
**Ainere Gallastegi**  
**Lete**  
Apirilaren 4an, urtebete.  
Zorionak, prexioxa! Konturatu orduko urtetxo bat gure etxeko erreginak! Muxu handi bat familia guztian partetik!



**ANTZUOLA**  
**Maria Maiztegi**  
**Arruti**  
Apirilaren 4an, 2 urte.  
Zorionak, potxola! Urte askotarako, familiakoen partetik. Muxu handi bat!



**BERGARA**  
**Olatz Arregi**  
**Eguren**  
Martxoaren 31n, 9 urte.  
Zorionak, Olatz! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu handi bat etxeko guztien partetik!



**ANTZUOLA**  
**Angel Mujika**  
Martxoaren 31n, 61 urte. Urte askotarako, aitona. Bazkai goxo-goxua preparatu eta tartia ein, eh! Ainararen eta Aitziberren partetik, muxu handi bat.



**ARETXABALETA**  
**Intza Atxaga**  
**Arrese**  
Martxoaren 31n, 4 urte.  
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Marrubizko patxo bat familia danaren partetik.



**OÑATI**  
**Illare Zabala**  
**Arabaolaza**  
Martxoaren 31n, urtebete. Zorionak, Illare, etxeko danen eta, batez ere, Uritzen partetik. Ondo pasatu zure urtebetetzean.



**OÑATI**  
**Iñaxio Inza**  
Martxoaren 31n, 65 urte. Zorionak eta urte askotarako, aittaita! Jarraitu holaxe urte askuan!



**ARRASATE**  
**Naroa Balerdi**  
**Berezibar**  
Martxoaren 31n, 8 urte. Zorionak, sagu! Konturatu gabe handi egiten zabilta. Ondo pasatu txokolatadan eta zure egunean! Aupa erreala!



**BERGARA**  
**Aitana Aristegi**  
Martxoaren 31n, 7 urte.  
Zorionak! Bihotzez maite zaitugu. Iargiraino buelta eta askoz ere gehiago, maittaa! Primeran pasatu zure egunean. Aroa, Ender, aitatxo eta amatxo.




**ANTZUOLA**  
**Nora Lasa**  
**Oncala**  
Martxoaren 30ean, 8 urte. Zorionak, polita! Zortzi urte jadanik! Ondo pasatu zure egunean. Etxekoen partetik, mila muxu.




**DEBAGOIENA**  
**June Contreras**  
**Arakistain**  
Martxoaren 30ean, 4 urte. Mila kilo zorion dizugu eskeintzen. Zure familiakoen partetik muxu eta besarkada handi bat.



**BERGARA**  
**Naia Murgiondo**  
**Kortabarria**  
Martxoaren 30ean, 5 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna! Belarritik bost tirakada etxeko guztien eta, bereziki, Alazneren partetik!



**OÑATI**  
**Ane Ormazabal**  
Martxoaren 29an, 21 urte. Zorionak, Ane! Ondo pasatu eguna eta txabolan zebratuko danok!



**ESKORIATZA**  
**Danel Nuño**  
**Otamendi**  
Martxoaren 28an, 2 urte. Milaka zorion, Danel! Eta muxu handi bat etxekoen partetik.



**ARRASATE**  
**Ixone Garitaona**  
**Uriarte**  
Martxoaren 27an, 10 urte. Zorionak, Ixone. Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Hamar mila muxu etxeko poxpolinendako. Asko maite zaitugu.



**BERGARA**  
**Ekain**  
**Muruamendiaraz**  
**Eguren**  
Martxoaren 27an, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Besarkada eta muxu bana amatxoren, aitatxoren eta, bereziki, Magaliren partetik.



**OÑATI**  
**Danel Urrutia**  
**Garcia**  
**de Albeniz**  
Martxoaren 24an, 2 urte. Bi urtetxo! Zorionak, txapeldun, etxeko danen eta, batez ere, Anerren eta Katixaren partetik!



**DEBAGOIENA**  
**Nagore Barandiaran**  
Bi urtetxo martxoaren 7an!!! Zorionak, politx hori!!! Besarkada eta patxo haundi haundi bat, familixako danen partez.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaituzte *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaituzte Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko  
11:00ak arte  
jasotako zorion agurrak  
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak  
hurrengo astean  
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



**Enara Kortabarria Larrea**

Oñati 3,700 Kilo. Martxoaren 26a. Gurasoak: Itziar eta Iñigo. Argazkian, Enara sehaskan lo.



**Ane Larrañaga Salaberria**

Osintxu 3,860 Kilo. Martxoaren 26a. Gurasoak: Esti eta Mikel. Argazkian, Ane gurasoekin.



**Maren Lopez Sanchez**

Arrasate 3,350 Kilo. Martxoaren 25a. Gurasoak: Susana eta Richard. Argazkian, Maren txikia sehaskan lo.



**Elene Garcia Gil**

Arrasate 3,230 Kilo. Martxoaren 27a. Gurasoak: Joana eta Ganix. Argazkian, Elene jaioberria gurasoekin.



**Jon Larrañaga Altuna**

Bergara 3,650 Kilo. Martxoaren 24a. Gurasoak: Saioa eta Joxemari. Argazkian, Jon jaioberria sehaskan lo.



**Xabi Kortabarria Noain**

Oñati 3,160 Kilo. Martxoaren 24a. Gurasoak: Oihana eta Iñaki. Argazkian, Xabi txikia argi-argi.



**Unai Miranda Dapena**

Arrasate 2,540 Kilo. Martxoaren 23a. Gurasoak: Maria eta Osvaldo. Argazkian, Unai aitaren besoetan.



**Ekain Kerejeta Gorostiza**

Arrasate 3,900 Kilo. Martxoaren 23a. Gurasoak: Ane Miren eta Iñigo. Argazkian, Ekain jaioberria sehaskan.



**Garazi Lete Guridi**

Ondarroa-Bergara 4,050 Kilo. Martxoaren 22a. Gurasoak: Ainhoa eta Josu. Argazkian, sehaskan goxo lo.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

**zorionak!**

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA\*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30



\* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat



**Jaio da!**

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENaren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Kroaziako hizkuntza	Tortura	Itsas hegaztia
	Krisialdia	Babarruna	Idatzia, idazkia
	Uretako garraioa		
	Asiako estatua		
Alorrak, lur landuak	Sadismoa maite du		
Alkizakoa	Txarrantxa		
* Oñatiko auzoa			Suitzako ibaia
Sorta		Baldintzetan	
		Kontso. bustia	
Abar		Istua, txistua	
Ezeztia		Sufrea	
	Asto ar		

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	I	S	V	A	K	U
R	T	A	R	A	V	N
V	U	T	R	A	D	V
A	B	A	E	I	R	S
I	V	I	B	A	V	G
A	V	R	A	Z	I	K
O	K	O	S	A	D	E
I	Z	N	O	K	R	I
S	I	A	K	R	I	S
K	E	K				

BILA-BILA 7



## Jolasten segi edo estali, zeuk erabaki

Golf partiduak zuhaitz gutxiko zelaietan izaten dira; euria hasiz gero, ez da erremedio txarra golfeko makila berezi hau. [www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



# 194

EGUN BAHITUTA

Iazko irailaren 16tik Sirian bahituta egon ostean, zapatu gauean askatu zituzten El Mundo egunkarian Ekialde Hurbileko berrie-

mailea den Javier Espinosa kazetaria eta Ricardo Garcia Vilanova argazkilaria *freelance*-a. [www.elmundo.es](http://www.elmundo.es)



Max. 20°

Min. 8°

Zeruan erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak ikusiko ditugu, batez ere arratsaldean. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

# goiena

2014-03-31

**Marimaistra** Euskarari buruzko zalantzak argitzea du misio eta atsedean hartu ostean, horretara itzuli da Goiena Telebistara; eguaztenetan irekiko du kontsulta, 'Debagoiena Zuzenean' saioan | TXOMIN MADINA

## "Hobe da euskaraz baldar samar aritzea, erdaraz baino"

### 1. Zelan bizi izan zenuen telebistara salto egin zenuen eguna?

Ai maitia, asko sufrizten dut, eta ez naiz ohitu. Bero handia pasatzen dut, eta mikrofonoen hariak ez didate mugitzen uzten! Baina edozer egingo nuke zuoi, euskaldun ganorabako gaixooi laguntzeko.

### 2. Zein da galdera ohikoena?

Denetarik galdetzen dute; gazteek batez ere, oso arduratuta ikusten ditut hizkuntzalaritzarekin: ergatiboa, erlatiboa, nominatiboa... Pena ematen dit euskaraz polito edo gehiago erabiltzeaz baino, gramatika teorikoaz kezkatuago egotea! Gainera, gero ez die ardura ganoraz erabiltzeak. Zabar asko dago!

### 3. Deiak jasotzen dituzu, baina batez ere WhatsApp, edo?

Galdera gehienak WhatsApp bidez jaso ditut, baina azken boladan erantzungailuan ere uzten dizkirate mezuak. Batzuk amorragarriak, beste batzuk eder-ederrak!

### 4. Taroteko kartak botatzen dituztenek kobratu egiten dute telefono horien bidez; zuk, ezer ere ez.

Hala da, bihotza! Oso gustura egiten dut, e? Beharra ikusten dut kalean, eta horregatik hasi naiz neure burua eskaintzen.

### 5. Kalean geratzen dute Marimaistra galderaren bat egiteko?

Ai, amante, ez naiz kalean ibiltzen! Grabatzeko platoon gorpuzten naiz, eta bukatzean, desagertu eta Iratiko basoan barreiatuta egoten naiz, naturarekin bat eginda.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Denok euskaraz jakitea eragingo nuke, baina gero erabiltzekotan, e? Ondo, zuzen eta ganoraz gainera".

AGM

### 6. "Euskararik onena erabiltzen dena". Ados mezu horrekin?

Sarri sutzen naiz entzundako astakeriekin. Baina hobe da euskaraz baldar samar aritzea, erdaraz baino. Euskaraz sarriago eginda eredu gehiago izango genituzke kalean esamoldeak-eta jaso eta naturalago egiteko!

### 7. Eskoletan erabiltzen ei dute zure emanaldia irakaspenetarako.

Hala uste dut, eta pozgarria da! Baina kezka dut gazteen artean euskararen kontrako jarrerak ez ote dauden oso zabaldua. Euskaraz aritzeagatik bikotekideak utzi dituela esan didate hainbatek!

### 8. Atrezzoan ikusten ditugu hiztegi pila bat. Papera. Hori da zure euskarri gustukoena?

Ez, baina pantailan ondoen ematen duena akaso bai! Laguntzen didatenak ezin dituzue ikusi: Anbotoko Mariren indarra, On Joxemielen antiparrak, Lamien urrezko orrazia... Ikusi ez arren, hor daude.

### 9. Zurekin kontaktatzeko bideak zeintzuk dira?

@mari\_maistra Twitter kontua; marimaistra@gmail.com posta elektronikoa; eta erantzungailua edo WhatsAppa 668 88 91 92 zenbakian. Deitu edo idaztean ez ahaztu zuen izena esatea, e?

### 10. Goienan platoa berri du. Pozik aldetarekin?

Lekua zabalagoa da eta erosoago aritu naiteke kamara aurrean; aukia aldatuta, perfekzioa litzateke!



IXIDOR SODUPE

## Kukua eta udaberria

Arbasoen egutegiak bi urtaro besterik ez zituen, udara eta negua. Kukuaren etorrerak lur-soroak neguko lozorrotik esnatu zirela adierazten zuen. Martxoak 25 Ama Birjina egunetik hasi, eta 15. eguneko tartean kukuak ez jotzea gaitz handi eta beldurgarria zen, ez baitzeterren udaberririk. Udaberria, bizi berri baten esperantza iturri dugu eta zorte hobearen itzaropen. Eta kukua ere udaberriarekin batera dator, bizitza berriarekin batera, herriaren jakinduriak jaso bezala: "Kukua Ama Birjina martxoko egunean hasten da kantatzen Erromako zubian eta San Pedro biharamunean mututzen da. Izan ere, kukuak kantatzeko gaztina muskil bat bigun-biguna eztarrian jarri behar izaten omen du. San Pedrotan hostoak gogortuta direlako kukua kantatu ezinda geratzen da eta, orduan, beste leku batzuetara joaten da". Eta zuk entzun al duzu aurtengo kukua? Sakelean dirurik baduzu, sakatu hemen.

*Apirilean etorri zinan eta San Juanetan juan. Atzo goizean pago gainean eta gure etxe onduan, kuku txoria entzun nunian atera nintzan orduan. Hark kuku otsez, nik nere bertsoz elkar agurtu genduan. (Lazkao Txiki)*

si, ya estoy en casa con Jokin...

si, ya estoy en casa con Jokin...

...que si puedes traer algo para cenar, ¿vale?

...que si puedes traer algo para cenar, ¿vale?

...afaria erostea zure kontu, ados?

Zer ikusi hura egin

# EREDU IZAN

DEBAGOIENAKO UDALAK